# MARKINA XEMEIN - II

AUGUSTIN ZUBIKARAI
JUAN FDEZ. EGIGUREN



# MARKINA XEMEIN
# II

AUGUSTIN ZUBIKARAI
JUAN FERNANDEZ EGIGUREN
1991

**BIZKAIKO ALDUNDIAREN LAGUNTZAGAZ**

Augustin Zubikarai.
Legerako gordetza: Bl-887-91.
Irarkola: Flash Composition, S.A.
Argazkiak: Juan Fernández Egiguren.
Azala: José María Muñoz.

# MARKINA-XEMEIN

# II

## AMALLOA
## ARRETXIÑAGA
## ATXONDOA
## ERDOTZA
## IDARRAGA
## ILLUNZAR
## MEABE
## URBERUAGA

AUGUSTIN ZUBIKARAI
JUAN FERNANDEZ EGIGUREN
1991

Idaz-lankide
eta
benetan adiskide
izan neban
Arrizmendiarrieta
eta Madariaga'tar
Jose Mari,
Iturbe'ko seme,
gogo eta biotzez
markiñar jator
izan zanaren oroimenez
eta bera be
Bariñaga'ko toponimia
aztertzen ekitean
markiñar eta euskal
kondaira suspergille
izan zala gogoratuaz.

# BIGARRENAREN SARRERA

Markiña-Xemein I argitaratu gendunean au esaten gendun:

Lenengo liburuan Ziortza, Bolibar, Bariñaga eta lturreta ikusi eta aztertzen alegindduko giñala.

Eta bigarrenean, Larruskain'dik lruzubieta bitartekoa.

Edozeiñek ikusi eta igarriko eban gure liburua, etxeen egitura eta kontuei buruz, geienbat baserri ikuspegitik datorrala. Asmo orregaz asi giñan Lea-Artibai lurraldeko erri eta eleizateik buruzkoak argitaratzen asi giñanean.

Emen dator bigarren au.

Amalloa

Arretxiñaga

Atxondoa

Erdotza

Idarraga

Illl untzar

Meabe

Urberuaga

Jemein.

Markiña, gaur bat izanarren, banaka istori ugariago daukena.

Oar bat egin bearrean gara.

Auzoen sailketa, gaur Udaletxean dagozan zerrendetatik atara dogu. Eta or konturatu gara etxe batzuk oituraz edo Kofradien legez ango edo besteko zirala uste dabenak, gaur zerrendetan sakabanatuta datozala.

Baiña guk, lenengo liburuan egin gendun lez, ala jarraitu bear oraingoan be.

Beste batzuk, len baserri edo kale-baserri ziranak, gaur leike sailketa orretatik kanpora egotea. Ori ez da gure arazoa.

1927 urte arteko gorabera asko, Markiña'ko barrutiari dagokiozanak, J. Mugartegi'ren "La Villa de Marquina" liburuak agertzen dauzala kontuan artuta, nai eta a erderaz idatzita egon eta gurea euskeraz, al danik gitxien barriztatzen alegindu gara, batez be erderaz nai euskeraz bardintsu ikusten diranetan, izenen zerrenda dagonetan lez.

Ala alkateen zerrenda agertzean, guk azken alkateena bakarrik egiten dogu, 1927'tik aurrerakoena.

Gero, gaurko irakaskintza, langintza, kirol eta abarretan, gaur-

ko aldakortasuna ezagututa, beste era bateko liburuetako gai egokiagotzat uste izan dogu arlo ori.

Guk geienbat lengoa gogoratu eta gaurkotu nai izan dogu Errezago da gaurkoa gerokoentzat.

Gure lenengo liburuan egin genduzan akats batzuk. Egin edo igestu, konturatu ez. Zorionez ez astunak, ur bedeinkatu ontzian atzamarra sartu ta parkatzekoak baiño. Esateko argazkiren bat aldatu, besteren bat sartu ez, izenen bat oker opini... Uste dogu irakurleak jakin dabela uts egite oneikaz konturatu eta esku zabaltasunez parkatzen.

Bardin eskatzen dautsagu oraingoaren irakurleei. Askotan borondatez eskatzen dana errezago konpontzen da, ixilean asarre gordeta baiño.

Guk, beintzat, idazle nai argazkilariak, borondaterik onenagaz eskintzen dautzugu.



**PADARRA - ARRETXINAGA**

# IZENA DALA TA

Markina izena, deítura, zetatik datorren?

Asiera baterako ortaz Labayru istori egilleak bere Bizkaiko Kondairan idatzi ebana euskeratuta agertuko dogu. Gero gerokoak.

"Markina izena, uri berberarena da eta izen onetako merindadearena. Markiñar merindade au Jaurerritik sorkalderen dagon lurraldea da.

Markina deitura **marra-kina** tik dator, au da, erderazko **marra,** arraia, muga eta egala. Eta benetan be markiñar errialdea Gipuzkoako muga da.

Markina deitu zan lurralde onetako etxe jatorrik zarrena, inguruari izena emonaz, edo inguruaren izenetik artuta.

Euskalerrian ba dagoz izen onetako tokiak, edo izen bereko edo bertatik sorturikoak. Orrela Araba'n, Zuya'ko Anaidi eta ibarrean ba dago Markiniz, eta X garren mendean Araba'ko errien katalogoan agertzen dira orrelako izenak, esateko Hita'ko lurraldean an dagoz Markina goikoa eta Markina bekoa, antxiña Markinaniz, gaur Markinez deiturako uria dagon lekuak. Eta izen oneik Treviño'ren egalean dagozalako emonak dirudie.

Marquinez da, baita Markina biurtu Quintana uriak osotzen daben La Guardia taldeko Anaidiaren izena.

Berezitasun bat oartzen da Bizkaiko Markina eta antxiñako Ibita inguruko Markina artean. Azken onetan lbita izeneko ibai bat dago (gaur Yuda deitua) eta ordez Bizkai'ko Markina'n ez da ibaia izen onetakua, bai antxiñetako etxe jator lbita izena daroana.

Zegaitik ete da Araba'ko ibaia lbita, Estadu aretako Markina'ren albo-erri luzeetan eta Bizkai'ko Markina lurraldeko etxe jatorreko lbita, izar bateri jarraitzen dautsen izar-moltso lez?

Markio deitzen da Bizkai'ko Ugao'ko auzo bat, eta beste eleizatetan ba dagoz Markino deitzen diran auzoak. Markina deitu izan zan baita lengo denboretan Gipuzkoa'ko lurralde izan eta Bizkaiaren mugan dagon Elgoibar.

Don Tello'k irasitako uriari buruz jardun baiño !en, Markina merindadeari buruz esan nei, au lpar-Sorkalde aldetik Kantauri kolkoagaz batzen dala; Ego Sarkaldean Bergara'ko jaubetasuneko lanetan; EgoéSarkaldean Durangoaldeagaz eta lpar-Sarkaldean Gernikagaz.

Bertako mendien artean Oiz da luzeena: 1041 metro itxas-gaiñetik. Txikiagoetan Arrigorri, Arnoate, Oa, Urkaregi, Mendibil (561 metro), Urko, Mash, gaur Max deitua; Arno, Igoz edo Santa Eufemi (701 metro), Asterrika, Ituiño, Gastiburu, Otoio (401), lllunzar, Lekoniz eta Izagirre; danak pago, arta, tarteka, urki, aritz, gurbix, altza, intxaur, gaztain, gorosti, errabiña, txillar, ota eta abarrez beteak.

Markina merindadeko lurraldea oraintsuko molde lurrez osotua da eta urgoaptensear kare aitzez eta Etxebarriako San Andrés edo Markiña'ko Etxebarria bereziki ondartsu eta pizarratsu da, eta Aginaga eta Barinaga'n suge-arria (ofita) da nagusi. Bertako ibaiak, Etxebarria eta Barinaga'koak Ondarroan itxasoratzen dira; bere mendarteak, Urko eta Max artekoak, Etxebarria'n; eta oargarri da baita Amalloa eta Etxebarria'tik Markiña'ra duana.

Inguru onetan lau antxiñako etxe jator ezagutzen dira; Markina, Ibita, Barroeta eta Ugarte. Azken onek, Markiña'ko Ugarte lez ezagutzen danak, merindadeko zaindariak aukeratzen zitun. Lau etxe jator oneik euren torre-etxeak euki zituen, batzuk Jemein, Xemein, Xemeingan edo Semengain'en eta besteak Etxebarria'n.

Merindadea eleiz-ate bi oneik eta Markina uriak osotzen eben, eta sei legua ozta-ozta eukazan.

Merindadearen erdi-aldean, Aspiltza deiturako ibarrean, eraiki zan XIV garren gizaldian Markiña uria, don Tello Bizkaiko Jaun zala. Bere esanetan merindadeko andikien eskabidez egin eban



iraspena (fundasiñoia) 1355 urteko Maiatzaren 6'ko uri-iraspeneko agirian irakurten danez.

lbar ori ibiltarientzat igaro toki arriskutsua zan, zuaitz, altz eta ia-tokiz betea, gaizkilleak euretan bizi-lekuak eukezala. Esaten dan lez, lapur zulo bat zan, eta bertatik sartzen ziran sarri gipuzkoarrak Bizkai'ko merindade eta lurretara, kalte egiteko asmotan.

lbar onetan lekutzen dau lbarguen'ek **ogei erromatarrek ogei kantauritarren aurka** euki eben gudako ipuiña... eta **erromatarrak ilda jausi ziran, iñor bizirik geratu barik.**

Asiera baten lurralde onetan bizi izan ziranak, eleiz legez Garai'ko Santa Luzia'ren menpeko ziran. Xemein'go Andra Mari Monastegia zerga-ordaintzailleak egiña dala diñoe, baiña eleizate onetan dagon Barroeta etxeko artxiboan irakurri leikenez, XII garren gizaldian etxe onetakoak jaso eben zati baten, eta ez eben osorik amaitu bertako arerio eta etsai arteko asarreakaitik, eta orrez gain, aldi aretan, Barroeta batek Erromara eskatu ebalako bere kontura Etxebarria'ko parrokia eraikitzea. Ikusi ez dodana lenengo esaten danaren ziurtapena da".

Orixe diño, gorago esan dan lez, Labayru'k bere "Historia General de Bizcaya", II tomoan, 369-370 orrialdetan.

lzan ete leike Markina marra-egiña'tik sortzea?

Zer diñoe ortaz izkuntzalariak?

Gaitz da toponimian oso-oso zerbait ziurtatzea, batez be antxiñako deitura askotan, lekuaren zeaztasunik geratzen ez danetan eta deiturako berba ziur-ziurra ez danetan.

Deitura onekaz be batzuk, abizen eta ezaugarri askotan joten daben antzera, bedar edo abereen bazkagai edo alapideetara joten dabe, berbaren muiñaren billa.

Ala Isaak Lopez Mendizabal'en ustez, Markina deiturak "pastizal" esan gura dau gaztelaniaz, alka, arka= pasto eta na atzizkia (subfijoa) geituta, aurrean protética deitzen dan izkia (letra) daukala, oraingo onetan M.

(l. L. M. "Etimologías de Apellidos Vascos".)

José A. Mujika'k, bere "Los Apellidos de Iberia" liburuan, bardintsu diño: A be irizpide bardiñeko da, au da, alki, arki'tik sortzen dan berbaren aldeko.

Koldo Mitxelena'k bere "Apellidos Vascos" en "marka"tik sortutakotzat dakar, "marca, señal, frontera". Baiña ez dau bastertzen beste leiken bat. lzan leikela "antropónimo" lez izatea, Marki "Marcos", Betiri edo Pet (i)ri "Pedro"tik datozan lez. Ba dagola



Marcozubi bat Elorrio'ko San Agustin monastegian. Ba dagozala Markotegi, Markoleta, Markuleta ta abar. ("Apellidos Vascos" Bigarren agerraldia, 99 orrialdean).

Endika Mogrovejo'k, bere "Apellidos Vascos" Diccionario Etimológico"'n era biak agertzen dau. "Señal o línea del límite" eta "Pastizal: límite".

Jaime Kerexetak bere Apellidos Vascos-Diccionario Etimológico"n Mitxelena eta Lopez Mendizabal'ek ze irizpide daben diño, beste zeaztasunik emon barik, Markina abizen eta etxeak, bateko edo besteko izan, daukezan armarri ezbardiñen zeaztasunak emonaz. Ala Xemein'go etxekoa, Markiñakoena, Enkarterrietakoena eta abar. Ba dira zazpi armarri ez bardin deitura onetako etxeetan.

# XEMEINGO ELEIZATEA
# 1796 urtean.

Urte onetan egin zan etxeen erroltzean, eleizate onetan agertzen ziran etxeak eta euren jaubeak, oneik ziran.

Atxondoa auzoan.

| Exe izena | Jaubea. |
|---|---|
| Montemar | Josefa Laka. |
| Zumarraga | Josefa Ugartetxea |
| lturbe | Domingo ltuarter |
| Ezkurrandi | Fransizko lbazeta |
| Bolua. Errota | Jose Antonio Astarloa. |
| Azpikoerrota (Errota) | Andrés Goenetxea. |
| ltuarte goikoa | Domingo Arrate. |
| Ituarte bekoa | Jose Donestebe. |
| ltuarte benta. | Eleizatearena. |
| Olabe | Antonio F. lribarria. |
| lgoz | Bizente Belarroa |
| lbarburu. Etxetxua. | Franzisko Malaxetxebarria. |
| lbarra | Antonio Uberoaga |
| Intxauspe | D. Amandarro. |
| Torrezar | Bizente Belarroa |
| Etxetxua | |
| Lezaran | Domingo Espilla |
| Mendibe | Antonio Urkidi |
| Axpe | Jose Garate |
| Errekalde goiko | Joakin Barroetabeña |
| Errekalde beko | Migel Rekalde |
| Urloa | Domingo Arrate |
| lbazeta Beazkoa | Jose Soloaga |
| lbazeta erdikoa | Jose Onaindia |
| lbazeta ormaetxea | Jose lbazeta |
| Jaen | Juan Zubizarreta |
| Bega. | Benito Ansotegi |
| Arizmendi torrea. | Peñafloridako kondea. |
| Arizmendi, errota. | |
| lturraran goiko (Sakoneta | —Damian Muniozguren. |
| Artibai | Maria A. Lasa. |

Oarra: Auzo onetan dagoz Arezmendi burdiñola bi, batean burdiña egiten da eta bestean toberak. Lenengoak dauka bakarrik erri-baso ta mendiekaz baliatzeko eskubidea.

**Goierri auzoa.**

| | |
|---|---|
| Ubilla torrea | Martin J. Abarrategi. |
| Ubilla goia | |
| Ubilla errota | |
| Arrate nagusia | Juan Arrate. |
| Arrate txikia | |
| Lazurika | Bizente Urkiza |
| Gañeta | Pedro B. Mugartegi. |
| Sarasua nagusia | Maria Ana Murga |
| Sarasua erdikua | Pedro B. Murga. |
| Sarasua bakua | Martin J. Abarrategi |
| Itoiño | Peñaflorida Kondea |
| Trotiaga | Agustin Landeta |
| Eizagirre | Pedro Garramiola |
| Ateguren torrea | Biota bizkondea. |
| Belaustegi | Franzisko Olabe. |
| Ateguren bekua | Juan T. Mugartegi. |
| Aspiltza | Miguel A. Murga. |
| Garazatua | Pedro B. Mugartegi. |

Oarra: Auzo onetan dagoz Ubillako burdiñola eta Aspiltza'ko biak, bai eta errota bat be, Aspiltza'n, baiña emen ez da iñor bizi eta Aspiltza torrean bizi danak erabilten dau.

**Meabe'ko Kofradia.**

| | |
|---|---|
| Zubialdea | Antonio F. Iriberria. |
| Zubialdea | Juan Bta. Barroetabeiña. |
| Zubialdea | Maria Ant. Alzibar. |
| Irarraga'ko benta. | Eleiz-ate onena. |
| Irarraga nagusi. | Pedro Urruzuno |
| Ugarte torrea | Peñaflorida kondea. |
| Ugartetxea | Jose Zubialdea. |
| Ugartetxea | Martin Malaxetxebarria. |
| Bolunbarria | Markiña'ko Mesedetako monjak. |
| Bidaurreta | Pedro Eizagirre. |
| Olasolo barri. | Jose Olasolo. |

| | |
|---|---|
| Olasolo nagusi. | Jose Olasolo. |
| Olasolo errota. | Ansotegi kapitana. |
| Erdotza'ko ermita. | Izen onetako Kofradikoena. |
| Otaolea nagusi. | Petronila Elgezabal. |
| Otaolea errota. | Peñaflorida kondea eta Petronila Elgezabal. |
| Ansorena | Pedro Ansorena |
| Ansorena Etxetxua | |
| Alejandro etxea | Antonio F. Iriberria. |
| Etxezuri | Franzisko Zangroniz. |
| Basterretxea | |
| Goikoetxea. | |
| Gerrikaetxea. | Iñazio Olabarria |
| Meabeko etxetxua | Jose Irusta. |
| Onaindia | Domingo Onaindia. |
| Ormaetxea | Jose Irusta |
| Aldekoa | Andres Lexarza |
| Beazkoa | |
| Usatorre | Pedro B. Mugartegi. |
| Kareaga barri | Jose A Ihañez Renteria. |



| | |
|---|---|
| Kareaga errota. | Jose A. (bañez Renteria. |
| Olaetxea benta | Eleiz-atearena. |
| Anitua bekua | Juan Karlos Olea. |
| Anitua goikua | Juan Andrinua. |
| Markiz | M.ª Ant. Laka. |
| Iturreta-jauregi | M.ª Ant. Laka. |
| Iturreta etxetxua | Markiña'ko Mesedetako monjak. |
| Larrina | Migel F. Azpiri. |
| Barinaga Etxenagusia | Iñazio Oregi'ren alarguna. |
| Barinaga etxetxua. | |
| Etxenagusia errota. | |
| Oregi Aldapa | Franzisko Maguregi. |
| Baskaran | Martin Baskaran |
| Basakaran errota | |
| Baskaran sabaia (Horreo) | Pedro Axpiri. |
| Erzil | Joakin Solozabal |
| Gorostadi (Iteria) | Migel Baskaran. |
| Obillos | Franzisko Sarasua |
| Uzuriaga | Pedro Olabe |
| Uzuriaga errota | Eibar'ko monjaena. |
| Goikoetxea goiko. | Kristobal lbarluzea. |
| Oloaga | Manuel Mendibe. |
| Oloaga etxetxu | |
| Goikoetxea beko | Jose Ant. Astarloa |
| Bidarte torrea | Migel A. Murga Andonaegi. |

Oarra: Auzo onetan dago Kareaga burdiñola.

Amalloa auzoa.

| | |
|---|---|
| Gorostola mendi | Santa Cruz markesarena. |
| Gambukorta | Domingo Arispe. |
| Larruskain goiko | Domingo Urrosolo. |
| Larruskain nagusi | Antonio Urrosolo. |
| Larruskain errota | Domingo Urrosolo. |
| Garramiola | Domingo Garramiola. |
| Agorria nagusi | Jose J. Ormaetxea. |
| Agorria beko | Pedro Elordi. |
| Olabarria | Juan Olabarria. |
| Olazar | Santo Domingo bizkondea |
| Amallobieta txiki | Petronila Elgezabal |
| Amallobieta goikoa | Martin G. Amallobieta. |

| | |
|---|---|
| Egurrola eta errota | Petronila Elgezabal. |
| Laparra | Domingo Elordi. |
| Gabiola | Pedro B. Mugartegi. |
| Bengoetxea | |
| Olazar | lñazio Uriarte |
| Ormaetxea | " " |
| Lariz | Jose A. Iturbe'ren alarguna. |
| lbarloza | Bizkondearen ardurako. |
| Plaza barri. | Jose A. Gaytan Ayala. |
| Plaza errota | " eta bizkondearena. |
| Plaza torre. | Jose A. Gaytan. |
| Urrijate torre | Santo Domingo Bizkonea. |
| Torretxu | |
| Labaetxe | |
| Zamora | Jose Barroetabeiña. |
| Mendikute | Bizente Etxezabal. |
| Amalloa'ko ermitaetxea. | Bertako kofradikoena. |
| Aranzabal | Petronila Elgezabal. |
| Agirre Amalloa | Franzisko Agirre-amalloa. |
| Azkurrunaga bekoa. | Maria Orbea. |
| Azkurrunaga goikoa. | Jose A. lturralde'ren alargunarena. |
| Baruskain | Barroeta etxekua. |
| Barroeta-beiña | " " |
| Oxiloin errota | " " |
| Ortulau etxea | " " |
| Barroeta torrea | " |
| Barroeta-goitia | " " |
| Arretxinaga ermitako etxea. | Eleiz-atearena. |
| Udal-etxea. | Eleiz-atearena. |
| Arretxinaga-gain | Pedro B. Mugartegi. |
| Erretolaza | Juan Zezil Erretolaza. |
| Oregunza | Jose Zezil |

Oarra: Kofradi onetan dagoz Plaza burdiñola biak eta Oxiloin'goa.

Jakingarria.

Esan bearreko da, zerrenda onetan agertzen diran etxe batzuk 1704ko erroltza baiño geroago egiñak dirala eta 1796 urtea baiño len.

Oneik dira:
Erzil,
Gañeta,
Meabe aurrekoetxea,
Oloaga,
Oregunza,
Oregi,
Sakoneta
eta Ugartetxea.

Zortzi etxeok fogera osokoak dira. Eta zerrendan sartu bear dira baita, errazoi berberagaitik,

Gorostadi,
Kareaga,
Markiz,
Montemar eta
Plaza torrea.

Azken bost oneik fogera erdikoak dira.

Orrela jakin eragiten da, 1704 urte arte Xemein'ek larogei ta amabi fogera eta laurden bat eukazala, eta 1796 urte onetan, amar fogera ta erdi geiago, au da, danetara eun eta bi fogera osoko eta beste laurdeneko iru.



# XEMEIN JATORRA 1796 URTEAN

Urte bi iru gorabera, orain berreun urte, Xemein eleizatea lau auzotan banatuten zan:

Amallo
Atxondoa
Goierri
Meabe.

Urte orretan, danetara 163 sutondo ta erdi eukazan. Sutondoak onela banatzen ziran:

| | |
|---|---|
| Amalloa | –45 |
| Atxondo | 36 |
| Goierri | 20 |
| Meabe | 61,5 |
| Guztira | 163,5 |

Etxeak gitxitxoago ziran:

| | |
|---|---|
| Amalloa | 44 |
| Atxondo | 31 |
| Goierri | 18 |
| Meabe | 62 |
| Guztira | 155 |

Etxe jaube eta errenteruei begiratu ezkero.

Amallo'n 13 etxetan euretako jaubeak bizi ziran eta beste 33-tan errenteruak.

Atxondo'n 11 etxetan jaubeak eta beste 20-tan errenteruak.

Goierri'n, 5 etxetan jaubeak eta beste 14-tan errenteruak.

Meabe'n, 20 etxetan jaubeak eta beste 42 tan errenteruak.

Ikusten danez, jaubetasunari buruz, irutik batek eukan etxe jaubetasuna, beste biak errenteruak izanaz.

Etxe jaube eta errenteruak, auzoetan:

**Amalloa.**

| | |
|---|---|
| Agirre-amalloa.– | Jaubeak. |
| Agorria txiki | |
| Agorria andi.– | Errenteruak. |
| Amallobieta txiki.– | Errenteruak. |

| | |
|---|---|
| Amallobieta andi.– | Jaubeak. |
| Amalloa-ermitakoa.– | Errenteruak. |
| Aranzabal.– | Errenteruak. |
| Arretxinaga-ermita | |
| Arretxinaga ganekoa | |
| Arretxinaga. | |
| Askurrinaga beko | |
| Askurrinaga goiko | |
| Baruskain | |
| Barroeta torrea | |
| Bengoetxea | |
| Beñakoa | |
| Egurrola | |
| Errikoetxea | |
| Gabiola | |
| Gambokorta | |
| Gambokorta | Jaubeak. |
| Garramiola | Jaubeak. |
| Goitia | Errenteruak. |
| Ibarloza | |
| Labetxe | |
| Laparra | Jaubeak. |
| Lariz | Errenteruak. |
| Larruskain | Jaubeak. |
| Larruskain goiko. | |
| Larruskain errota. | Errenteruak. |
| Mendikute | |
| Olabarria. – | Jaubeak. |
| Olazar (2) | Errenteruak. |
| Oregunza | Jaubeak. |
| Ormaetxea | Errenteruak. |
| Ortulaun | |
| Oxilagin errota | |
| Plaza errota | |
| Plaza Etxebarri | |
| Plaza torre | |
| Retolaza | Jaubeak. |
| Torretxu | Errenteruak. |
| Uriarte | Jaubeak. |
| Zamora | Jaubeak. |

Atxondo.

| | |
|---|---|
| Akoda | Jaubeak. |
| Arizmendi torrea.— | Errenteruak. |
| Arizmendi errota | |
| Artibai (2) | |
| Azpiko errota | |
| Bega | |
| Bolu errota | |
| Errekalde beko | Jaubeak. |
| Errekalde goiko. | |
| Etxetxu | " |
| Etxetxu | Errenteruak. |
| Ezkurrandi | Jaubeak. |
| Ibarra | |
| Ibaseta erdikoa | " |
| Ibaseta beaskoa.— | Errenteruak. |
| Ibaseta ormaetxe. | |
| Igoz | |
| Intxauspe | |
| Irube | Jaubeak. |
| Ituarte goiko | |
| Ituarte beko. | Errenteruak. |
| Ituarte benta | |
| Jaen | Jaubeak. |
| Lezaran.— | Errenteruak. |
| Mendibe | |
| Montemar | |
| Olabe | |
| Sakoneta | Jaubeak. |
| Torrezar. | Errenteruak. |
| Urloa | " |
| Zumarra | " |

Goierri.

| | |
|---|---|
| Arrate nausi.— | Jaubeak. |
| Arrate txiki | Errenteruak. |
| Aspiltza | |
| Ateguren beko. | Jaubeak. |
| Ateguren goiko. | Errenteruak. |
| Belaustegi (2) | |

| | |
|---|---|
| Eizagirre. | Jaubeak. |
| Ganeta | Errenteruak. |
| Garazatua | |
| Ituiño (2) | |
| Lauzirika | Jaubeak. |
| Sarasu erdiko | Errenteruak. |
| Sarasu andi | |
| Sarasu txiki | |
| Trotiaga | Jaubeak. |
| Ubilla torre | Errenteruak |
| Ubilla errota | |
| Ubillagoia | |
| | |
| Meabe | |
| Aldekoa.– | Jaubeak. |
| Alexandro | Errenteruak. |
| Anitua | |
| Anitua | Jaubeak. |
| Barinaga-Etxe-nagusia– | Jaubea. |
| Barinaga-Etxenagusia errota.– | Errenterua. |
| Barinaga etxntxi | Frm„fnru i |



| | |
|---|---|
| Baskaran. | Jaubeak. |
| Baskaran | Errenteruak. |
| Baskaran. (Sabaia) | |
| Baskaran errota.– | Jaubeak. |
| Basterretxea. | |
| Basterretxea. | Errenteruak. |
| Beazkoa. | |
| Bidarte torrea | Jaubeak. |
| Bidaurreta | |
| Bolunbarri | Errenteruak. |
| Erdoza | |
| Erzil | Jaubeak |
| Etxezuri | Errenteruak. |
| Gerrikaetxea | Jaubeak. |
| Goikoeetxeeta | |
| Goikoetxeeta beko | Errenteruak. |
| Goikoetxea | |
| Gorostidi | |
| Irarraga benta | |
| Irarraga nagusia | Errenteruak. |
| Iturreta etxetxua | |
| Izuriaga | |
| Jauregi (2) | |
| Kareaga txiki | Errenteruak. |
| Kareaga torre | |
| Kareaga errota | |
| Larrinaga | |
| Markiz | |
| Meabe ansorena | Jaubeak. |
| Meabe ansorena etxetxua- | Errenteruak. |
| Meabe etxetxua. | Errenteruak. |
| Obillos (2) | |
| Obillos barri | |
| Olaetxea | Jaubeak. |
| Olasolo nausi | |
| Olasolo barri | Errenteruak. |
| Olasolo errota | |
| Oleaga | Jaubea. |
| Oleaga etxetxua | Errenteruak. |
| Onaindia | Jaubeak. |

| | |
|---|---|
| Oregi | Jaubeak. |
| Oregi | Errenteruak. |
| Ormaetxea. | Jaubeak. |
| Ormaetxea | Errenteruak. |
| Otaola nagusi | |
| Otaola errota | |
| Pagate | |
| Ugartetxea | Jaubeak. |
| Ugartetxea | Errenteruak. |
| Usatorre | |
| Zubialdea | Jaubea. |
| Zubialdea | Errenterua. |

**Errota eta burdiñolak.**

1796 erroltzetan, Xemein'en, amalau errota agertzen ziran eta bederatzi burdiñola.

Errotak oneik ziran:

Amallo auzoan:
Egurrola (utsik)
Larruskain
Plaza
Oxilagin

Atxondo auzoan:
Azpikoerrota.
Arizmendi
Bolua.

Meabe auzoan:
Barinaga etxenagusia.
Baskaran
Kareaga
Olasolo
Otaola.

Goierri auzoan:
Aspiltza
Ubilla.



**Burdiñolatan** bederatzi ezagutzen ziran.
Amallo auzoan:
Oxilagin
Plaza (bi)

Atxondo auzoan:
Arizmendi (bi)

Goierri auzoan:
Aspiltza (bi)
Ubilla.

Meabe auzoan:
Kareaga.

# MARKIÑA ETA XEMEIN, EDO TA XEMEIN ETA MARKIÑA MADOZ'EN IKUSPEGIAN

Xemein, eleiz atea, Bizkai'ko jaurerrian dago (Bilbo'tik 8 leguara), Durango'ko Auzitegira lau eta Burgos'era, lurraldeko audientzi burura, 31 legua. Kalahorra'ko gotzaingoa da eta arako 30 legua dagoz.

Mendi artean dago. Giroa: otza. lpar eta Sarkaldeko aizeak joten dabe eta aldietako edo denboraldietako gaixotasunak batzen dira.

Eun eta ogei baserri-etxe daukaz Atxondoa, Goierri, Amalloa eta Meabe deitzen diran auzoetan banatuta; udaletxea ba dauka, baita lenengo eziketako ikastetxea, 48 ikaslegaz. lkastetxe onek 1.100 errialen laguntza dauka bertako arduradunarentzat.

Eleiz-parrokia Andra Maria'ri eskeiñia da, bere lurretan egonarren Markiña'gaz batera erabilten dana.

Bertako ermiten artean sei gogoratu leikez eta euren artean ospetsu da Arretxiñaga'ko Mikel aingeruari eskeiñia; eleiz-etxe egitura exagono arrunta da, bere egalak, kanpotik, 41 oin daukezala. Bere barruan iru aitz andi dagoz, suarri saillekoak. Kalidade ori ez da ezagutzen inguru guztian.

Aitzak bata besteari eusten dagoz, 110 oiñeko ingurua osotzen dabela, betik batzutan oin bat eta bestetan sei oiñez agertzen dan kare-arrizko aitzean oiñarrituta.

1 646 urtean egin zan aldararen sagaratzea, bedeinkatzea, eta bertan partaide izan zan gotzaiñak idatzita itxi eban, Apulian Mikel deunaren Agerkundea ikusi ebala eta angoaren antzeko dala.

1 826 urtean, aurrerago bedeinkatutako irudiaren ordez. beste bat ipini zan aldarean, san Fernando izeneko Akademiako zuzendari eta erregeen gelako taillugille zan Esteban Argeda jaunak egiña eta lñazio Luis Astarloa jaunak bedeinkatu eban, gotzaiñaren ordez.

Lurraldeak inguru oneik daukaz: lparraldean Berriatu, Sorkaldean Mutriku, Egoaldean Etxebarria eta Markiña eta Sarkaldean Ziortza.

Inguru onetan zuaitzez betetako mendiak dagoz eta zortzi iturrik dauke bertan sortzea, bat beroa, eta bere urak dauken berotasuna igarri egiten da batez be Ondarroa ibaiko uragaz naastutean ataraten daben ketan.

Lurraldea, gaitasunez (kalidadez) erdi-erdizkakoa da, ongarri (abonu) asko eta lan ugari eskatzen dauana eta esandako ibaiak inguratzen dau.

Erriaren bideak egoera txarrean dagoz.

Posta, korreoa, Markiña'n artzen da.

Emaitzak (frutuak): Gari eta artoa; idi-abere eta lanadunak; eper eta erbien eiza dago eta amuarraiñak be artzen dira.

Lurgintzaren gain, gero ta makalago ezagutzen diran zortzi burdiñola dagoz bertan, burdiñak daukazan zerga eta bertako lurralde barruan jasoten diran lantegi barrien eragiñez. Amabost errota dagoz.

Bizilagunak: 138 etxe jaun, 669 arima. Zergetatik lortzen dauan sarrera: 39.873 errial eta 21 marau.

Gernika'ko Batzarretan 27 garren emoten dau bere botoa eta jarrileku ori dauka.



# MARKIÑA ETA MADOZ

Markiña uriari buruz luze idatzi eban Madoz'ek bere "Diccionario-Geográfico-Estadístico-Histórico dalakoan.

Gogoan euki bere esaerak artzeko, ba dirala 150 urte inguru idatzi ebala.

Laburtu egingo dogu bere lana, datu zeatzak emonaz.

Ibar polit baten kokatua dagola diño, ibai bi alkartzen diran lekuan, bat Etxebarria'tik datorrena eta bestea Bolibar'etik beratzen dana.

Ibar onek zazpitik zortzi milla oin daukazala Iparraldetik Egoaldera eta sei milla inguru Sorkaldetik Sarkaldera.

Ipar-mendebaleko aizetatik aldeztua dagola, Santa Eufemia edo Igoz mendiari esker.

Giroa bustia dala, nai eta epela, gaixorik geienak otzeri edo katarrazkoak izanik.

Erriko kaskoak 1.200 oin Iparretik Egora eta 1.300 Sorkaldetik Sarkaldera.

Etxeak: 152 lau kale ta iru arrabaletan.

Kaleetatik iru tarte eta alde bardiñekoak, laugarren baten amaitzen dira. Izenak: Guenkale, Erdikokale, Kale Okerra eta Zear kalea.

Kaleak ondo arriztuak, euren arrizko espaloiekaz eta danak, Okerra izan ezik, zuzenak. Eta garbi ta erraz zaintzeko, ur garbidun urarka bat orretarako dagola eta bertatik ura doan banatzen jakola, bear aiña, erriari.

Arrabalen izenak, Artibai Iparraldean; Abesua Ego-sorkaldean eta Goikoa, sarkaldean.

Errepidea iru arrabal orreitako lenengo eta azkenengotik zear igaroten da. Bide au zabaltzeko asmoa dago, Karmengo eleizaren aurreko plaza zabalduagaz. Orrela arrabal ori iru kaleekaz alkartzen da. Orretarako noiz jausiko dagon "Elixa barria" beratzeko asmoa dago.

Karmengo konbentuaren aurrekaldean, etxe bardintsu neurkideak (simetrikoak) egiteko asmoa dago, batzuk egiñak be bai, eta izan lei euren artean egitea auzitegia eta kartzelak.

Plaza onek asko jantzi eta apainduko dau Markiña'ko alderdi au euren artean geratzen dala arri-nabarrez egindako iturri ederra.

Abesua'n ikusgarri da Prado izenez ezagutzen dan ibiltokia; ziurretik uriko edergarririk onena. Iru ertzekoa da ta baten baratzak eta espoloi polita: Neguko ibiltoki deitzen dana. Beste aldean etxe illera ta euren artean Merzedeko konbentua, eta bestean pelota toki eder bat, luzeran 328 oin eta zabalean 66 oin daukazana.

Erdian arbola ederdun iru ibiltoki, erdian zelai berdea dauala. Eta bide bi alkartzen diran tokian, ermita txiki polita, lonbardiar makalez (txopoz) inguratua. Eta bere egalean Indietako gaztain, errabinia eta abar.

Barriro goratzen dau Madoz'ek lau txurrodun iturria eta bertako uretzazko plaken gogorapena egiten dau, nai ta idazki zeatzik agertu ez. Ur oneik Ugarte etxearen lurretan artuak dirala esaten da eta 1788 urtean egindako 3.000 oin luzedun ubide batetik zear eroanak.

Ur ugaria; iturri ori ganezka eukiagaz batera, Karmengo Konbentuan beste iru txurru eta Arategian beste iru eukiarren, oraingik kale garbiketarako ta abar emoten daualako.

Arategia gogoragarri dala diño bere garbitasunagaitik, aragiaren ebagitze eta banaketaren gain kandelak be egiten diralako bertan eta narruak gertu.

Au gogoragarri ba da, Markiña'k ba daukala beste alderdi baltza; Ipar eta Sorkaldean dagozan beste zerka bi zikin eta osasunaren kaltegarri agertzen diralako.

Irakaskintza 2.926 errial eta etxe ordaindua daukazan irakasle baten kontura dago eta 1.650 errial ordaintzen dira latiñeko irakaskintza daroanarentzat.

Irakaskintza saillean utsune andia igarten dala, diño, baiña gazteak zentzu onez eta borondatez beteten dabela utsune ori, neguko gauetan matematiketako oiñarriak ikasten ordu bete emonaz eta beste ordu bete marrazki ikasketan, ortarako gastuak arpideen artean ordainduaz. Orrez gain astean iru bidar ba dago musika ikastaroa. Ba dira iru urte ikasketa au emoten dala.

Aberatsagoak ba dauke Alkarte bat, 1805 urtean sortua, egunkariak artu eta irakurteko eta ba dauke billarreko mai eta jokorako areto bat be.

Ba dago beste jolastoki bat, neska mutillentzako, eta bertan batzen dira jai-egunetan eta kantu eta dantzekaz batera, tresilloan be jokatuten dabe eta antzerki jaien bat emoten da tartetan.

**Parrokia**

Bat da Markiña eta Xemein'erako. 1510 eta 1550 bitartean egiña da. Egituran ez-bardiña, aldi aretako etxegintzako arkitekturan erabilten zan lez.

350 oin daukaz luze eta 102 zabal. Sei abade dagoz, lau irabazi osokoak eta bi erdikoak, Ugarte eta Barroeta etxeak aukeratuak.

Parroki onen mesedea obetuko litzake, gaur utsik dagon Karmengo konbentuan meza batzuk esango ba leukiez. Bere eleiza erriaren aukeran eta mesedegarri dalako. Orain kenduta eta utsik dagon konbentu au 1691 urtean sortu eban orduan Ziortza'ko Abata zan Iñazio Munibe jaunak.

Ba dago Merzedarien beste eleiza bat be, 1538 urtean Bidarte Torreko Martin (bañez Garakate eta Maria Saez Zubillagak Xemein'go parrokiaren alboan sortu eta laster gaur dagon tokira aldatu zana.



**MURGA JAUREGIA**

# MARKIÑA ETA HUMBOLT

Humbolt, alemaniar gizon ospetsua izan zan.

Izkuntzalari, olerkari eta kritikalaria.

Postdam'en jaio zan 1767 urtean.

Lenengoz 1799 urtean egin eban Euskalerrirako ostera bat.

Urte bi geroago, 1801'n berriro dator.

Europar izkuntzak aztertzeko, nai ta ezko zan beretzat euskeran sakontzea.

Bere osteretan ezagun eban Markiña'ko parroko zan Juan Antonio Mogel eta Urkiza, bere esanetan Bizkaia'n egozan izkuntzalarietako jakintsuenetako bat.

1801'ko Apirillean itxasertzetik ibili zan Gipuzkoa guztian eta Ondarroa'ra eldu.

lkusi daigun zer diñon:

"Ondarroa.– Bere izeneko ibaiaren egalean. Mutriku'tik bertarako bidea estua da, baiña ona, eta itxasertzeko mendien ostean suge-bide lez dator.

ltxas ikuspegi zerutarra. Ondarroa'k erromantiku egoera dauka. lbaia ibar berde atsegin batetik zear dator itxasora eta ertzeko punta baten eleiza zar baten jaube dan erria dago. Eleiz onek, emengo besteen antzera, bere irudi berezia dauka. Laukotea, torre baten antzera goi-aldean, benetako torrerik barik, baiña tellatu lautuan 3-5 erremate luzeagoak, egal luzeen bien gaiñean.

lbaiaren gaiñetik zubi zar bat igaroten da. ltxasertz onetako tokien artean pintatu leiken erromantikoena.

Ondarroa baiño lentxuago ba dago toki bat, aitz zorrotz garbiak itxasoan sartzen dirala, ikusteko gai polit bat osotuaz. Ondarroa Bizkai'ko lenen erria da.

1794'n, erri ordezkari zan Pinet ona etorri zanean Donostin urkamendia gertu eban eta erasoaldi asko egin, Bizkaitarren eta Deba eta Azpeiti artean asarrea sortu zan, alkarren aurka jardutera elduaz. Pinet'ek politikako goraberak ziralakoan, bere gudariak bialdu zitun Errezil, Azkoiti, Azpeiti eta Elgoibar zear, euskal baserri baserri-auzo batzuk erretera. Eibar eta Ermua ondatu zituen eta gero Soraluze (Plazentzi), Bergara, Urretxu eta Ordizia'tik zear Tolosa'ra biurtuaz.

Gero antzeko beste erasoaldi bat egin eben Ondarroa eta Berriatu'ren gain, erri bi oneikaz aiertuteko, bengatzeko.

Bereala deitu eutsen Pinet'er Frantzera biurtzeko.

## Bideko kontuak

Bidea, beti, ibarretik zear doa.

Toki menditsu, ibai ondoan bide estua, burdiñolak, egaletan txatar baltz multzoak daukezala, ur-zurruzta txikiak, euren ur-ate-ekaz.

Baiña ibaiondoko ibar eta mendirik geienak ondo landu eta landaretuak. lkuspegia aldatu egiten da sarri, ibarra noz-nai estu-tu eta zabaltzen dala. Toki guztietan etxeak, banakatuta. Gaitz da bizi lagunez obeto inguratutako lurralde bat billatzea.

Berriatu auzoak solo, baso, belardi eta berdetasun ezbardin baten ikusi leiken tokirik zoragarriena dauka.

Markiña ibar berderean dago, baiña alaitsuago. Begiak mendi altu eta buru-soilagoak ikusten dabez.

## Etxaguntzak

lbar onetan etxeguntza asko dago.

Tarterik tarte aurkitzen dira famili andien jatorri-etxeak.

Ez dauke ze ikusirik ez gure gaztelu zar eta ez oraintsuago-ekez. Lau kantoidun etxe zabalak dira, leio gitxigaz, eta sarri leiar barik, gris illunak, baiña ate gaiñean armarri andiak dauke-zala.

Etxe baten aurrean lau-bost baserritar. Bat Santo Domingo'ko bizkondea dala diñoskue. Besteen erara jantzita, bereizten gaitz. Buruko biribil bat eta kapa laua. Era berean Markiña'n Murga'ren aita dan Aldun nagusia.

Munibe deitzen dan Peñaflorida kondearen etxean daukagu ostatua.

Ardularia, Manuel Bikuña da. Cervantes'en itxura bereko. Txi-ki, arpegi galdu, zimur ugariz.

Daruadan karta emoten dautsot. Asko begiratu ondoren, bere betaurrekoak ataraten dauz. Etxejaunarentzakoa da, "partikula-rra". Ba dira ogei ta bost urte, diño, daroadazala eta ez naz ain zaar. Zenbat, uste dozu? Berrogei ta amazortzi, bai adiskide, ba daukadaz.

Alako baten goiko gela batera eroaten gaitu. Kondearen argazki baten aurrean diñotsat: Ezagutu zendun? Ziurtatu nairik, ara zelako konfiantza euki eban nigaz, erantzun eta jarraitzen dau:

## Kondearen semearen eriotza

Orduntxe kontatu eustan kondearen semearen gertaera. Seme nagusia txarto osatutako zauri baten ondorenez il zan. Jesuita bat lagun ebala ibili zan. Bein Viena'n egozala, arratsalde baten kondesa baten etxean denbora larregi egon zan. Jesuiteak errietan egin eutsan origaitik. Kondeak aizto (kutxillu) bat artu eta il nai izan eban jesuita ori, baiña bat batean beregain biurtu ta zauritu zan; zauria txarto osatu eta urte batzuk geroago il zan.

Orrelaxe esaten zan beintzat. Gauza ziurrik iñok ez daki.

Jesuita a Toulouse'n geratu zan ibilleratik osteran. Semeak eskutuan euki eban ori eta bakar bakarrik bere aitari jakin erazo eutsan ilteko orduan, baiña eskutuko lez.

Gero aitak beste semeak erbesteko ostera egiten bialdu nai izan zitun, baiña amak ez; lengoa galdu ta barriro arriskatu nai? Bai eta zelan bein konde zarra gelara sartu eta esan eutsan: Manuel, ba dakizu zer gertatu jatan..., nire semea, bigarrena, etxean geratu bear da, iñor eta ezer ikusi barik, ezjakin bat lez geratuaz... Zeu joan bear ziñateke eurekaz, orretarako ama zuritu daigun...

Gero (kontatzen jarraituz) zelan biak kondesaren gelara joan ziran eta zelan baietza lortu eben. Ta zelan biurtu zitun ain lodi; zelan konde zarrak bere zaliagaz (kollareagaz) jan eragiten eutsan, berak bere aitari eskatzen eutsan lez... ori autorleak (konpesoreak) esaten eutsala, fraile politikoa a, fin-fiña, ez emengo fraile lodien antzeko...

Bere gaztearoan dantzan egiten zala, orain abadeak galerazo egin dabela; orduan gaztediak arauak beteaz ikasi egiten ebala zortzikuko lenengo puntua zelako oiñez asi bear dan; gero zelan aldatu. Zelan egozan kantu zarrak, zar-zarrak, amairu puntukoak; orain iñok ez dakila dantzan egiten; kantu guztia jakin bear litzakela eta bere bertsoen egitura, ondo dantzatuteko.

Orain gizonak ez zirala len aiñako alai. Pelotan obeto jokatzen ebela Probintzian...

Orrelako kontuetan jarraitu eutsan kondearen ardulariak. Gero Bizkai'ko erakundea, Korrexidorea, Sindiku, Batzar Nagusi eta abarretaz jarduteko.

Beste baterako itxiko doguz beste gaiak. Zeaztu gaitezen Markiña'n.

**Markiña'ko izatea**

Markiña artzen da erriak euskera garbien egiten dauan erritzat.

Emen aozkera geienetan z eta b gaz egiten da. Egi(z)a, esku(b)a, baiña emendik legua batzutara ez. Alaz eta izen jatorretan ez da orrela: Berriatua, Egia, esateko.

Markiña erri atsegiña da. Ondo arriztatua, etxe egokiak, ate eta leioak arlanduz inguratuak, pelotatoki barri bat, albo baten orma luze bat daukala eta beste alboan orma txiki batez inguratuta, bertako egal estu baten ikusleentzako maillak dagozala. Iturri polit bat, arri-oin batekua eta marmolezko ontziduna; baso txiki eder bat aritz andiz betea, illara estu baiña zuzenetan, pelota tokiaren ostean.

Peñaflorida'ren etxea lez auzoko Eleiz-atean kokatuta dagon Murga'ren etxetik, ikuspegi ederra agertzen da aurrean, mendi altu baiña soillak ikusten dirala, ezkerretara baso txikien bat, pelota tokía, eskurradun ibar eder ondo landua, berdez betetako tontorrak, uriko zubi bat eta atze aldeko zelai eder baten, atzean munak daukazala, gotiko erako eleiza.

Mendien izenak, Oiz, Goiz esate ordez, au da, Gorena.

**Arretxinaga (Arri-**txindun **arri lekua)**

Iru aitz andi, guztira 40-50 luze, ezin sinistu alako orekan, noz-nai jausi leikezan itxuran.

Bi egalez, baiña alderik estuenetan alkarri eusten, eta goian zabal diranak, eta euren gain beste askoz andiago eta pixotsuago bat. Onen azpitik igaro leike baiña aldare bat ipiñi da erdian, irudi batzuekaz. Aldare aurrean Diakono birentzat baiño tokirik ez egoalako, eta iru bear, zati batzuk kendu jakoezan be aldetik, alderdi estutik, egitura osoari kalte barik. Beste alderdi batzuetan arria marruzatua, meetua igarten da, erriak, miraritzat artuaz. gaixo askoren sendagarritzat ango zatitxoak eroaten dauzalako.

Arri inguruan, Mikel deunaren kapillatxua dago.

Barriro asten da Humbolt Bizkai'ko erakundearen barri emoten. Gero baserritarrekaz eukitako jardunetan luzatzen da. Bizimodu, lanabes, nabasai, mazu, arrea, baserri ta abar azaltzen. Bai eta errietako txikikeriak gogoratzen be.

Ara bat:



**Iturriko esanak**

Txukun egindako Markiña'ko iturrian, diño, euskeran jakintsu dan Juan Antonio Mogel parrokoak egindako esangarriak egozan.

Geroago Jose Astarloa alkate aukeratu ebenean, kentzeko agindua emon eban eta berak egindako beste batzuk bertan jarri. ltxuraz berak eginda eukiarren, Mogel'enakaitik bastertu eutsezan.

Laster. **siño,** alkate barri bat etorri zan eta barriro Mogel'enak ipini.

Orrelako ezin ikusiak erri txikietako ogi dira.

# AZKEN-NAI (TESTAMENTU) JAKINGARRI BAT

Markiñarra zan Martin Markiña, eta itxas kapitana gaiñera, txalopa arduraduna, gerraetan sartua, arrisku andiko serbitzuetan. Gizon ospetsu aiña kezkati, ez jakin egiñaren bildur edo geroaren larri.

XV eta XVl gizaldien azken-aldi eta asieran bizi zan.

Bizitza arro, estu, gordin, erruki bakoan... ta era berean kontzientzi bateri ikututzeko erakoan.

Berak diño azken naia egitean, soin eta adimenez osasuntsu eta irizpide jatorreko zala, Jainkoaren al eta errukiari esker.

Baiña konturatzen zala gizonaren bizitza mundu onetan ez dala ziurra ez eta jakiña be, nai eta bat ausarditsu izan eta iñok ez dakiala bere ordua noiz elduko jakon, eta gitxiago berak, ebillan moduan. Jainkoaren eta Erreginaren serbitzuan ibilita, eta gure jaunen eta armadaren menpetasunean, etenbako lapurretetan eta atxilotzeak egiten, eta frantzetar guztiei egin eikezan kalte eta aierkuntzak (bengantzak) egin nairik, eurak gure errege eta erregiñaren menpekoei egin dautsezanen ordaiñez, orrelaxe agintzen eutselako. Eta orretan inorentzat baiño niretzat datoz arriskurik andienak, autortzen dau, bai soiñean eta bai ondasunetan. Gaiñera esandakoa gertatu leiken tokian dabillanik ez litzake ibili bear bere azken naia egin eta batez be bere animaren aldeko lenengo eta gero bere ondasunei buruzko aginduak artu eta emon barik.

Origaitik nik, Markiña'ko Martin'ek, nire azken nai eta aginduak zeaztutea agindu dot eta olaxe egin be eskribaduari nire idatziak itxiaz era onetan:

Lenengo autortzen dot gure Eleizak sinistuten dauan guztian sinistuten dodala, kristau katoliku zintzo lez, nai eta duin izan ez eta bai pekatari.

Bardin Jaungoiko altsuaren borondatea mundu onetatik atara eta erotea eltzen danean, nire gorpua Markiña'ren barruan dagon Andra Mari Eleizan lurra emona izan dedilla. Geroago esango dan tokian, bertan nire aldetik meza bat betiraunerako sortzeko asmoa dodalako, eta orrela egurrezko kapilla bat egitea nai dot eta illobi bat, il ondoren nire gorpua, ala al izan ezkero, bertara eroan

dagien eta ori eziñean bertan bertan ospatu dagiezan nire aldeko bederatziurren, eskintza, serbitzu, ondra, urteurren, mankal jasote eta abar, niri dagokidazan onoretan, eta nire azken nai onen arduradunak uste izan leiken eran.

Eta nire ondasunen kontura, lenengotik agintzen dautset iru Ordenei, au da, lrutasun deunari, Mesedetakoari eta Barzelona'ko Eulali deunari, zidarrezko errealak eskintzeko, era orrela askatzen dodaz bai etxe eta bai lurretako nire ondasunetatik.

Bardin, Guadalupe'ko Andra Mariari marko bat pixuko zidarrezko kaliza bat eskintzea.

Bardin Xemein'go Andra Mariari, bere eleiz lanetarako, milla marau.

Bardin Erdotza'ko Andra Maria'ri marko bat pixutako zidarrezko kaliza bat eta kalizari dagokiozan jantzi eder batzuk.

Bardin Ziortza'ko Andra Mariari, irureun marau bertako lanetarako.

Bardin Murua'ko Martin deunari irureun marau bertako lanetarako.

Bardin Arretxinaga'ko Mikel deunari, irureun marau bertako lanetarako.

Bardin Igoz'eko Santa Fimia andreari (sic) berreun marau bertako lanetarako.

Bardin Arbinaga'ko Esteban deunari, berreun marau bertako lanetarako.

Bardin Amallo'ko eleizari, berreun marau bertako lanetarako.

Bardin Etxebarria'ko Andres deun jaunari, berreun marau.

Bardin Markiña erriko ospitalari, milla marau.

Eta agintzen dot nire azken-nai onetako arduradun eta ordezkariak, Markiñako eleizan obetoen deritxoen tokian kapillaba egin dagiela, eta bertan illobi bat, nire gorpua bertan sartuta egon dedin, eta kapilla orretan aldare barri bat egin dagiela eta bertan Andra Mariaren irudia ipiñi, eta zidarrezko kaliza bat, eta jantziak, eta oriegin al izateko nire ondasunetatik irurogei ta amar milla marau agintzen dodaz.

Eta jaun orrei agintzen dautse daz beste eun eta berrogetamar milla marau kapilla orretan urteko egun bakoitzean nire eta nik eurekaitik egitera beartuta nagon arimekaitik, eta batez be garbitokiko arima guztiekaitik, betiraunean meza bat eskeini al izateko.

Eta nire arreba Juanari eun milla marau ezkontzako laguntza lez.

Eta Maria Peres, nire arrebari, amabost milla marau.

Eta Maria Urtis, nire arrebari eta Madalene bere alabari, amabi milla marau Xemein'go Andra Mari eleizan nire oblada eskeiñi eta kan dela ekarri dagien, eta nire illetak eta bederatziurrenak eta urteko serbitsuak niri dagokidan onorez egin dagiezan, eta geratzen dana beretzat artu bedi.

Domeka Makotegi'ri, ezkontzako laguntzarako, sei milla marau, ona izaten ba da eta legez ezkontzen ba da, eta bestela ezer ez.

Eta Makotegi'ko Santxa'ri, gona bat eta kapa bat erosteko, bi milla marau.

Eta Arexkurenaga'ko Martin Otxoa'ri, iru milla marau jantzietarako.

Eta Azarrolatza'ko Matxin, nire morroiari, zortzi milla marau edo ta kostatu leikena urte betean Burgos'en irakurri ta idazten alfabetatzeko; eta geiagokoa Salamanka'ko Peru'k ordaindu dagiola bere kontzientzian ereisten dauan lez.

Bardin, Adorriaga'ko Esteban nire morroiari, iru milla marau.

Eta Juan Martinez nire osabaren seme diran Txareko eta Maria'ri, sei milla marau.

Bardin agintzen dot ogeitamar egunetako mezak eskeiñi dagiazala Xemein'ho Andra Mari eleizan nire osaba Iñigo abatak, berak aukeratutako beste abade bigaz.

Bardin agintzen dot Izaro'n ogeitamar egunetako meza talde bat eskeiñi dagiezala nire arimaren alde eta Erramu igandeko kurutzetakuak.

Agintzen dot baita Xemein'go Andra Mari eleizan, urte bateko zapatu guztietan Andre Mariaren omenezko meza bat eskintzea, abestuta, eta iñoiz eziñik gertatuko ba litz, zapatu orreik beste urtekotan bete dagiezala, urte osoari dagokiozan zapatuen kopurua bete arte.

Bardin agintzen dot nire txalopa-lagun eta grumete eta laguntzaille eta alogerekoei, nik ziurtatuta daukezan txarteletan eta nire kontularitzako liburuetan be agertzen diran ordainbearrekoak ordaintzeko era onetan: Erregeak eta erregiñak ordaintzen ba dabe len itxitako zorraren irugarrenik, Napoles'en nire talde eta txalopeagaz egindako serbitzutik; eta ordaintzen ez ba dabe be, txarteletan agertzen dan irugarren zatia eurei ordaintzeko, nik niri dagokidanaren kanpaña orretako irugarren zatia artuta daukadalako, beti be nire txaloparen arduradunak bakoitzari zor jakoneko irigarren zati ori ordaindu ez ba dautse, idatzi neutsan lez.

Baita agintzen dot nire senide eta koñatu dan Legarra'ko Rodrigo'ri sei milla marau emoteko, bere ezkontzako laguntzarako

Bardin agintzen dot errege korteko eskribadu dan Montesinos'eri len ordaintzeko itxi neutsazan urrezko dukat bi ordaintzeko, berak eskolan daukalako nire kontura Arexkurenaga'ko Matxin.

Baita Salamanka'ko Peru, merkatariari, Burgos'en bizi danari, berak nik izenpetuta daukan txartel baten agertzen diran marauak, Londres' era egindako ostera baten zorretan itxi neutsazalako.

Eta nire kontzientziaren bakerako agintzen dot baita be Andres Eskobar eta Juan Alonso Sahagun'eri amabost milla marau ordaintzeko Flandes'eta egindako mi milla koroe'ren truketik eta beste zerbai geitxuagogaitik ordaintzeko nagolako.

Eta nire txalopan Ponza'n il zan Leiza'ko Juan, naparraren, oiñordekoren bat agertuko ba fitz edo bere anai Pedro'ri sei dukat urretako emoteko, eta iñor agertu ezik, dukat orreik bere arimaren alde serbitzurik egokienean eskeintzeko, bai esandako gizonetan edo tabeste umezurtzen baten, agertuko ba litz. Eta orrez gain beste amalau dukat, emoteko daukadazanak, au da, guztira ogei dukat urrezko.

Bardin agintzen dot Arta'ko lñigo'ren oiñordekoei urretako zortzi koroe ordaintzeko.

Agintzen dot baita Larrauri'ko Joan'ek zor daustazan laureun eta bat urrezko dukat eskuratu ezkero, bere eta bere ondasunen aurka izenpetuta daukadan txartel baten agertzen dan eran, euretatik ordaintzeko Martin Saratsu'ko zanaren Rodrigo'ren oiñordeko edo artzekodunei eta bere azken naian agintzen diranak beteteko. Eta geratzen dana bere oiñordekoentzako, ni bere il-buruko izan nitzalako. Eta nire kontzientziaren nasaitasunerako agertzen dot, Rodrigo orren azken naian ezer aitatzen ez ba da be, eriotz orduan san Frantziskoren ordenako jantziaz egoala, Bidania'ko Domingo bat agertu zala bere aurka, ogei ta zazpi dukat ostu eutsazala azpikeriz, eta areik ordaindu ezik ez eutsala parkatzen ez bizi zan artean ez gero Jainkoaren aurrean be, eta azken arnasa emoteko egoala Rodrigo orrek esan eban

nik esaten nebanean eta neban lez lagaten ebala ordaintze ori, eta nik Rodrigo berberaren kontzientziaren bakerako esaten dot ordaintzeko Bidania'ko Domingo'ri, amazortzi urrezko dukat Rodrigo'ren ondasunetatik.

Bardin agintzen dot nire txalopan ibili eta Sevilla'n bizi dan Pedro Baltza bateri sei milla marau ordaintzeko. eta agertuko ez ba *fitz,* nire azken naiaren betetzailleak banandu dagiezala Pedro Balza'ren arimaren alde egokien etorri leikezan eran, orrela nire kontzientzia nasaituaz.

Eta une onetan zor dautsadan beste iñogaz gogoratzen ez naizalako agintzen dot iñor agertuko ba litz, agindu eta txartelak bear lez agertuaz edo zin egiñaz zerbait zor dautsedala, nire ondasunen kontura ordaintzeko.

*Ori da azken naiaren lenengo zatia.*
*Baiña nundik eta zelako ondasunetatik*
*ordaindu orko dirutza, menpekotasun*
*eta gainerako ondasunak?*
*Bigarren zati onetan datoz ainbat artzeko.*

Oneik dira, diño, niri Markiña'ko Martin'eri zor daustezan marau, dukat eta burdin-kintalak.

Asierako, erregien diruzain dan Alonso Morales'ek, nire txalopa eta gizonekaz Napoles'eko gerran egin neban serbitzuagaitik, laureun eta berrogei ta zazpi milla marau baino geiago.

Diruzain berberaren kontuan nire alde geldi-eraginda daukadaz Juan Larrauri'k zor daustazan eun eta irurogeta bat milla eta seireun eta ogetabost marau. Orretaz diruzain berberak eta Palma bere ordaintzailleak dauke ardura ori, eurak daukelako zorraren txartela, lau lekukok izenpetuta, Errege korteko alkate nausi dan Pedro Mercado'k ziurtatuta. Gaiñera Palma orrek dauka esandako alkatearen agindua. Larrauri'ren dirutzatik niri izan ezik iñori ez ordaintzeko esaten, eta orren ziurtapena be ba daukat diruzain berberak izenpetuta.

Baita be zor daustaz Nunno Canpo, Napoles- eko armadaren ordaintzaille izan zanak, nire karguan egindako agiri biren ordez, bata ogeita amar dukatekoa eta bestea amabi dukat eta amaika karuiletakoa, nik sekula artu ez nebazalako eta orren agindurlk be emon *ez* nebalako, eta zor daustaz emen eta Jaungoikoaren aurrean.

Markiña'ko merindadeko bizilagun dan Arezmendi'ko Peru'k seireun eta berrogetamar kintal burdiñetan zor daustaz. Eurekaitik eun eta irurogei ta bi eta bosteun marau emon neutsazan eta ori errege-eskribadu dan Pedro Hernanzez Mugertegi'ren aurrean ziurtatuta daukat. Eriotzarik gertatuko ba leuskit edo ta berak bur-

diñetan ordez artutako dirutan ordaintzea obeto usteko ba leu. berari deritxona egin begi, beti be esandako epe barruan egin ezkero.

Esteban Andia, Peladinos'ko Kondeak, Ondarrabin bizi danak, irureun urrezko dukat zor daustaz, eleiz eta erri eskribaduen aurrean ziurtatuta daukadan lez. Orretzaz ba daukat beste ziurtapen bat be. baiña egia esateko ez dauka beste zorrik esandako irureun dukatak baiño, eta eurak ordaindu ezkero beste guztia kittututzat emoten dot.

Baita Ugarte'ko Beltran'ek eun urrezko dukat urretan zor daustaz, eta ori nire aginduz Martin Azarrolaza nire koñatuaren alde aldatuta daukat, baiña eun dukatak neureak dira.

Elorriaga'ko Martin Otxoa, Markiña'ko bizilagunak, ogei ta zazpi kintal zor daustaz burdiñatan, eurekaitik berreun eta berrogei ta amar marau kintaleko ordaindu neutsazalako. Eta burdiñatan ordez dirutan ordaintzea naiago ba leu. bardin egin leike epe barruan.



Kareaga'ko Martin gazteak be eun eta ogei eta bost kintal burdin zor daustaz Martin Azarrolaza nire koñatuaren bitartez ordaindu neutsazalako, eskribadu aurrean, baiña burdiñak nireak dira, eta eurekaitik ogei ta amar milla eta berrogei ta sei marau eta erdi emon neutsazan. Durutan ordaintzea be naiago ba leu, bardin da, beti be agindutako epe barruan egin ezkero.

Arezmendi'ko Juango eta bere emazteak, Joana Ibarrak, amar urrezko dukat zor daustez, azken nai au egiten dabillan eskribadu berberaren aurrean aurreratu neutsezalako.

Eta Arezkurenaga'ko Juan'ek amabost kintal burdin zor daustaz, Martin nire konatuaren bitartez egindako tratuan, eta epe barruan dirutan nai burdiñatan ordaindu leike.

Kareaga'ko Adan'ek be urrezko sei dukat zor daustaz, Medina del Campo'n aurreratu neutsazanak eta orren agiria berak izenpetuta daukat.

Eta Azpeitiko bizilagun diran Alzaga'ko Juan M. eta Arrieta tar Pedro'k, lau milla eta berreun eta larogeitamar marau zor daustez Napoles'en il zan Loiola'ko Juan P.ren ordez. Jaunak bere arima beregan euki bedi. Nik zorraren agiria daukat.

Idiarax itxasontziko maisu izan zan eta Jainkoak berekin bedin Martin Betrauza azkoitiarrak bi milla eta laureun eta larogei marau emon neutsan laguntza bategaitik, eta orren agiria ba daukat.

Baita Saratsu'ko Lope, Jaunak beregan dedilla edo ta bere ondasunen jaube danak, lau urrezko dukat zor daustaz, eta agiria daukat.

Eta Pedro Urkiza, Mundaka'ko bizilagun dan Martin Urkiza, itxas maisu danaren semeak, urrezko bost dukat zor daustaz. Genova'n emon neutsazan kartzelatik urten al izateko eta agiria daukat.

Eta Juan Bitoria, Levante ingurutan dabillan lagun batek, dukat eta erdi zor daustaz, eta ortazko agiria ba daukat.

Eta Deba'ko bizilagun dan Fernando Leizaola, itxasontzi maisuak, ogei ta bost urrezko dukat, Barzelona'n aurreratu neutsazanak, desarmatu giñanean.

Eta Adorriaga'n bizi dan Adorriaga'ko Otxoak lau urrezko dukat, Markiña'ko Peru Saez eta Olabarria'ko Juan M. bere koñatuaren aurrean emon neutsazanak.

Eta Bilbao'ko gizon batzuk amabi milla marau aiña zor daustez. Peru Markiña'k daukan liburu baten idatzita daukadaz.

Bardin Leonor Andreak, Barroeta'ko etxekoandreak, urretan aurreratu neutsazan sei dukat zor daustaz, eta euren ziurtapentzat jantzi batzuk gordeta daukadaz lbarra'ko abata dan nire osaba Peru'ren etxean. Bere gona bat, eta ordaintzen dabenean biurtu dagiela agintzen dot.

Eta Legarra'ko Juan S. errege eskribaduak, agiri au ikusten dauanak, amar milla marau zor daustaz, eta berak idatzitako agiria daukat.

Eta Juan S. berberak berrogeitamar urrezko dukat urretan zor daustaz, bere premiñaren baterako aurreratu neutsazanak.

Eta Martin Munibe Ondarroa'ko bizilagunak, itxasontzietako maisuak, amabi dukat urretan, orain gertuten nabillan armadarako jendea batzeko aurreratu neutsazanak.

Eta Kristobal Estakonak sei dukat zor daustaz urretan, armadarako jendea gertuteko emon neutsazalako.



Era berean Juan Zelaia, Markiñarrak, dukat bi urretan.

Eta Diego Arezmendi'k urrezko dukat bi, aurreratu neutsazanak

Eta Ubilla'ko Diego'k urrezko dukat bat.

Eta Butroi'ko Juan Gonzalez'ek. urrezko sei dukat, armadarako jendea batzeko aurreratu neutsazanak.

Bardin Rodrigo Legarra'k beste urrezko dukat bi, zeregin bardiñerako aurreratuak.

Eta Ondarroa'ko lau txalopa armatuta daukadaz, eta euretatik neureak dira:

Ni joaten naizen Munibe'ko -Martin'en txalopan, armamentu eta artilleri guztia neurea da, eta orrez gain txalopa berbertan eroaten dodaz eun kintal burdiñatan.

Eta Kristobal Estakona'ren txalopan be armari guztia neuria da, arma eta artillerian, nik emon neutsalako Kristobal'eri. Ala agertu ziran Kristobal berberak emondako ezaupideko agiri baten.

Eta Ugarte'ko Beltran kapitan lez joaten dan Juan Ayala'ren txalopan, armamentuko laugarren zatia neurea da, ala arma eta artilleria, eta nire lez agertzen dira Beltran eta Juan Ayala'k emondako ezaupidean.

Eta Juan M. Gillestegi eta Martin Zuri Kontxa'koen txalopan, Juan Barrutia lekeitiarra kapitan lez dabillenean, txalopa orretako armamentuko bostgarren zatia neurea da, eta bardin bertako arma eta artilleria, nik gordeten dodan Juan M. Gillestegi berberen ezaupidean agertzen dan lez.

Eta Errege eta Erreginak lau txalupa oneik armateko Bilbao'ra bialdu eusten artilleri eta armak lau txalopatan bananduta duaz txalopetako kapitanen agirietan zeaztuten dan lez, eta ganerakua ni kapitan lez joaten naizen txalopan sartuta dago, eta orren ezaupidea, nik izenpetuta, Bilbao'ko Martin Arbolantxa'k dauka, eta agintzen dot agirietatik errege eta erreginarentzat irakurten dana eurentzat geratu dedilla eta eurei biurtu.

Eta Lebante aldian daukat Santa Maria de Erdoza deiturako nire txalopa eta bertan itxas-maisu eta nire ordezkari lez Gorozika'ko Fortun. ondarrutarra eta nire eskribadu dan Martin Alzaga dabiltz. Eta eurei emon neutsen bertan nebana eta Jainkoak emon eikeezan irabazien ondasuna. Txalopa ori kittutan emon neutsen, ezelako zorrik barik, ez eta bere aurkako artzekorik be, sei aingura eta zortzi kablez ornitua, ondo armatuta, artilleri ugarigaz, eta buru eta bularreko babeskai ugarigaz, bai eta zortzi gaillu

andi, lau lonbarda andi eta beste laurak iraizekoak, bai eta gai bardiñak txikiagotan, guztira irurogei gailluetara, andiak zenbatu barik. Eta txalopa, eta artilleri eta izkillu guztiak. Jaungoikoaren aalpean, neureak dira.

Eta esandako Gorozika'ko Fortun'eri eta Alzaga'ko Martin'eri, neure kutxa bi itxi neutsezan, baten urrezko ogei dukat duaz urretan, eta beste amaika zati zidarrezkoak, au da, zazpi plater, eta eskudilla bi eta taza bi, au da guztira amaika tresna, eta orreik Deustu'ko Martin san Pedro'ri aginduta daukadaz berrogei ta amar dukat urretangoen ordez, eta agintzen dot berrogetamar dukatat ordaintzen ba dauz, berari biurtzeko.

Eta kutxa aretan itxi nebazan baita zidarrezko taza eta gatzontzi bat, eta ontza bat pixatzen dauan urrezko erastun bat, eta beste bederatzi urre garau. Eta bertan itxi nebazan baita Genoba'ko terziopelo lodiko ogei ta amazazpi arra, urretan emeretzi dukat urrezko balioko leikena. Bertan itxi neban baita beneziar gorontz barri bat, besarte erdikaduna eta urre xafladun kollare bat. Eta gañera kaputxa bat be itxi neban, moraua, zabala, fina. Geiago, beste nire babeskai bi laga nebazan, beneziar karmesitan jarriak, urrezko lotugarriekaz. Batzuk emeretzi dukat urretan kostatu yatazan eta besteak, kordoban baltzekoak, urrezko gaztelaniar bi. Bertan itxi nebazan baita buru-babeski bat, eta okozpeko bat, eta beso zaingarri batzuk eta lau alkondara. Baita itxi neban baita bost dukat urrezko kostatu jatan eunki bat.

Bai eta itxi neban nik erabilten neban mai-ontziteria, eta sei pare mai-oial, eta nire oea, eta kobrezko lapiko eta tresneria, eta beste ainbat gauza nire serbitzua.n erabilten ziranak.

Baita txalopa orretan itxi neutsezan esandako Fortun eta Marti n'eri ogi eta ardau, gazta, zeziña, kandelak eta indarra, euren osterarako aiña, eta ba dakit nire txalopan Cartegena'tik Horno'rako ostera bat egin dabela eta eurak idatzi eusten uste ebela txalopak zazpireun eta berrogetamar dukat urretan atarako ebala edo zortzireun. Ori orrela ostera aretan irabazi ebena eta emendik aurrera irabazi leikena, euren kontzientzian lagaten dot ordaintzea. Idatzi neutsen bi irutan nik jendeari zor neutsan iruren bat edo erdia ordaintzeko, eta ordainduen agiririk ekarten ba dabe, kontuan artzeko agintzen dot; idatzi neutsen baita txalopa saltzeko lortu eikien dirutzarik onenean; orretan zorionik euki ba dabe eta benetan saldu ba dabe, sinistuteko agintzen dot egin leiken ziñean, eta ez dagiela euki euren zinpean esaten daben dirutza besterik ordaintzeko beartasunik.

*Eta barriro gogoratzen da bere zor eta artzekoekaz, aginduta daukazan meza eta eleizkizunekaz.*

*Eta oraindik amaitzeko dagon eleiza barriagaz gogoratzen da eta orain daukan tellaturaiño dana bear lez sarratzeko kare eta arriz edo ta otez, bere azken-nai arduradunak obetoen uste leiken eran. eta ori egin ondoren zerbait geratzen ba da, eta Markŕña edo ta merindadeen bere senide umezurtzŕk laugarren oŕñerarte aurkitu ezkero, eurei banatzeko. ezkondu nai dabenei ezkontzeko premiñetarako. eta esandako inguruan iñor billatu ezik eta bai Aulesti'n, bardin egiteko, eta laugarren oiñekorik aurkitu ezik. uri eta merindadean egon leikezan umezurtzik premiñadunetan banatzeko.*

Bardin agintzen dot nire jantzi, apaingarri eta egoki diran tresnak saltzeko eta orretan lortzen dan dirua beartsuak jazten eralgi, gizon nai emakume izan, eta dirua dagon bitartean beartsu bakoitzari ez emoteko gona bat eta oiñetakoak baiño gitxiagorik, eta emakumeari gona bat eta beste soiñeko bat, baiña beti be dana zuri koloreko, ez bestelako koloretan.

Eta Ondarroako Errenterian bizi dan Juan L Azkue'ri berrogeitamar milla gaztelaniar marau eta urrezko dukatak lagaten dautsadaz, berreun kintal burdin erosi dagidazan, berak jakiñerazi eustan lez.

Bardin diñot Makotegi'ko Santxa eta bere alabak erosi dagiezala eskribaduaren aurrean, oneri bialtzen dautsadan txartelean diñoana, eta esandako prezioetan, dirutza orretan ziurtatu dodazalako euren zor batzuk. eta bein nik eurekaitik ordaindu dodana kittatzen dabenean, euren etxe eta soloak biurtzeko nik eurei erosi eta ordaindutakoa nire liburuan agertzen dala.

Eta autu-mautu eta esan-mesanetan erabili leikezan beste kontuetan, niru liburuetan agertzen diranak dira balioko, eta kontu orreitatik kanpora esan leikezanei buruz nik neure liburua daukat egizkotzat. Baiña iñok uste barik orko kontuen bat eztabaidatuko ba leu. zin egin dagiala, sinistuteko eran, eta bere zin ori sinistua izan daitela mi milla marau arte, nire liburuan idatzita dagonaren eratik.

Bai eta agintzen dot, goian begon nire aitaren azken naiko ezer beteteko ba dago, falta dan ori nire kontura betea izan daitela, nire ogasun eta ondasunetatik.

Gero bere azken naiaren betetzaille, eta arduradunen izentapen, baldintza, lekuko eta bere paperen balio eta abarrei eragiñaz, oraind dik be ba dauka zer agindu.

Agintzen dot baita nire etxean daukadan katillu biribil bat Lope Etxarte edo bere oiñordekoei biurtzeko, urrezko dukat bi ordaindu eragiñaz, nai ta nik bost dukaten baliotzako euki.

Lekukotzat, testigutzat, Urkiza eta Bengolea'ko Peru abata. bere anaia, Ugarte `ko Beltran, Meabe'ko Juan eta Munibe'ko Martin ondarrutarra izentatzen dira.

Azken-nai au Ibarra'ko Martin Ruiz eskr¡baduak izenpetua da, eskribadu ori oraindik gaztetxo zala "menor de dias" .

(Markiña-Xemein udaleko artxibuko kopia batetik. Reg. 50-6 zenbakia). Kopia au 1512 urteko Martiaren 12'an Gonzalo Solarte'k Markiña'ko alkateari egindako eskabidez ataratakua da).



# MERINU TXIKIA

Akoda etxearen zeaztasunak emotean (Markiña-Xemein 1) au esaten gendun: Akoda etxea izen andiko gertatu zan lengo denboretan. Izen zabal eta era berean garratza. Oiturea zalako inguru onetako merinu txikia emen bizitzea.

Eta bertan sartzen gendun Akoda'ri buruz Bizkai'ko kronikalari ospetsu izan zan Anton Trueba'k idatzia:

"An goietan, Iturreta'ko magalean, arbolartean, Akoda baserria dago.

Etxe orretako jaube eta bizilaguna Jose Ugarteburu da. Gizon onek etxeak eukan entzute itzala garbitu nai izan dautsa, erosi, barriztu eta bere nortasunaren duintasun barri bat emonaz, Gizaldi luzetan etxe au Bizkai'ko Merinu txikiaren bizileku izan zan, borreruarena. Auzitegitik Urkamendirako emoten ebezan sententziak bete bear izaten ebazan eta gero Lapurzulo'n lurra emon.

Benetan, gaur baketsu bizi diranen aurretikoak amets larri eta illun ugari egin bearrean aurkituko ziran etxe onetan".

Zer ziran merinuak?

Merinoak euren merindadean erri-ordena zaintzeko eskubidea eta ardura euken. Gaizkille, lapur eta erailtzalleen jazarpena euren konturako izaten zan. Eta sarri erri txikietako auzietan gizon-onen zere-giña beteten eben. Errota eta denda, bentaetxe eta tabernetako neurri eta kalidadetan zer ikusia euken.

Merinu nausia korrexidoreen ordezkari lakoa izaten zan.

Baiña ba egozan merinu txikiak, borreroak be.

Merindadeak eukiten eben merinu txikia deitzen zana, legearen betetasunik garratzenen ardura eukena: borreroa. Eta Markiñaldekoa Akoda baserrian biziten zan.

Ze irabazi euken edo zelako saria, euren zeregin orde?

Zeatz esanda, etxea eta bere lurrak. Zeatzago esanda, etxe errenta.

Ori gertaten zan merindade onetan be. Orretarako erabilten zan Akoda baserri-etxea.

Ba dagoz Markiña'ko Udal Artxiboan onetazko agiriak. Bat 1512 urteko Irailla'ren 3'koa da.

Arezmendi'ko Peru Saenz eskribaduak jasoa da.

Gaia au da: Ordurarte Akoda'n bizi zan borrerua, Juan Akoda, itsututa egoan eta bearrezko zan borreru barria izendatzea, edozein gertaeretarako.

Origaitik Amoroto'ko Juan'egaz berba egin eben erriko aginta-ri batzuk eta a gertu egoan zeregin ori beteteko.

Orretarako inguruko agintariak batu eta esan eben beartuta egozala borreru bat izentatzera, zuzentza zaindu eta lotsa sartu egian erri eta inguruan ebiltzan gaizkileen aurka eta orretarako aukeratuta egoala Akoda baserria bere lurrekaz.

Ordurarte Pedro Akoda eta bere semeak bete ebela zeregin ori, baiña il zirala eta orain bertan bizi zan Juan Akoda'k eukala ardura, baina galduta eta itsu egoala eta zeregiña bete eziñean. Origaitik berba egin ebela Juan Amoroto'gaz eta a gertu egoala ardura ori bere gain artzeko.

Bere baldintza au zan: erriaren izenean etxea eta lurren jau-betasuna baketan lortzea iñoren asarre eta eragozpen barik.

Ori ikusita batzartuak, itxuraz orretarako gertu, Juan Amoroto ori Akoda'n etxe barrura sartu eben eta bertatik Juan Akoda, itsu egoan borreroa eta Mari bere emaztea eta Teresa eta Txari ala-bak atara zituen kanpora, eta ateak itxi, Juan Amoroto barruan gelditzen zala.

Eta jakin eragin eben etxe-jauntza emoten eutsela Amoroto'ri eta bere emazteari eta zeregin orretan jarraitu nai eutsenari, ser-bitsu ori beteten eben artean.

Origaitik Markiña alde onetan ezaguna da Akoda etxea eta ezegun baita bertatik urbil dagon Urkamendia, ziurretik Akoda etxekoentzako ingururik garratzena eta irudipenik illunenak gogo-ratu eragingo eutsezana.



AKODA ETXEA

# GURE FOLKLOREA

Ezin ukatu Markina-Xemein eta ingurua Bizkai erri jator izatean, gure lurraldeko siniste, oitura, maitasun joko, esaera eta ibarretan erri aberatsa danik.

Egia esateko ardura eta eroapena bear dira edo izaten dira orrelako gauzak batzeko eta batez be oarpeneko sentidu berezi bat.

Nik ba dakit, esateko, markiñarrak oitura asko daukezala, urtien urtetan zaintzen dabezanak, eta ziurretik eurak be konturatzen ez diranak erri baten istori eta bizia erakusteko zelako balioa dauken. Eta oiturak lez, kanta zar eta abar.

Onetan nik utsune bat billatzen dautsat Azkue zanari, txoko zalegi nazalako. Ba dakit berak esaten ebala Ondarroa eta Markiña ez zitula berak aztertu pentsaurik Ondarruk, batez be itxas gaietaz euki eikeena, Lekeitiok be ba eukala, eta orrela be "Euskalerriaren Yakintzan" agertzen dauzan gaiak Lekeitio'n batutzakotzat argitaratuarren, Ondarroa eta Elantxobekoak be ba zirala. Eta bestelako asko, esateko Aulesti-Murelagan batuak, Markina eta Markiña aldekoak zirala.

Gogoratu bear da Azkue'k ainbat erritan eukazala orrelako gauzetan asko ekiezan pertsonak eta beretzat jakingarriak batzen alegintzen ziranak.

Lekeitio'n Dolores Etxebarria eukan, eta ezin aztu bere ama be an eukala, gauza asko jakin erazten eutsazana. Murelaga'n Martin Alkorta eta Martin Aranguena. Oneik ziran inguru onetako barri emole ta kontu batzailleak.

Emen, Markiña'n, ba eukan adiskide bat, Juan Jose Maguregi jauna. Abade lagun lez gogoratzen ebana adierazten eutsan.

Liburu onetan berak markiñakotzat lez agertzen dauzanak gogoratuko doguz, barriro esanaz ez dirala bakarrak, berak emengo lez bereziki zeaztuta agertuak baiño.

Osasunari buruz.

Agiñako miña kentzeko, Arretxiñaga'ko ermitako arriari zatitxo bat kentzen dautse eta gero agiñeko zuloan sartu.

Agiñeko miñarentzat beste bat: iñoiz ez izateko, goizean belarri atzeak goitik bera ondo igortzi bear izaten dira.

Buruko miña.

Buruko miña kentzeko San Martin Burukora eroaten dabez umeak. Munibe-ondoan dago ermita au.

Errosena. (Kaspa)

Erosendun umeak santa Errosaren izeneko ermitara eroaten ditue. Ermita au (santo Domingo da batzuntzat) Markina ta Berriatu bitartean dago, Plazakola deiturako auzoan.

Istai.

lstai erreak edo egostuak osatzeko Andra Maria Erdotzakora eroaten dabez umiak.

Oraiñak.

Oraiñik ez daukan pertsona sorgiña da. Ala sinistuten eben lengo zarrak.

Umeen jokoak.

Erri guztietan lez umeak be oitura bereziak eukiten dabez euren jokoetan. Markiñarrak ezagun dabe Apoka jokoa.

ldi-apatx edo apo bat erdian ipinten da, lurrean; bere inguruan bost edo sei mutil, oboan, makillak eskuetan dabezala egoten dira ta aldizka apoa yo bear izaten dabe.

Onetarako bear izaten diran makillak kin-kin dabe izena.

Apoa eukiteko txoloak potxi o dau bere izena. Apoa makillaka edo kinkinka yaurtiten danean, bat (makillarik eskuan ez daukan bat) apo billa yoaten da. Apozain emoten jako izentzat, ekartzaile be bai. Aporik (apatxik) eztaukenean, trokotz bat (egur-kozkor bat) eukiten da potxilloan.

Zapata zarka.

Bost sei bat lagun bear izaten dira jolas onetarako. Saroebate ta artozuritzetan egiten da. Abarketa zoru bigundua belaunpean gordeten dau batek. (Noizbait zapata zar bat izango zan, jolas onen izenak darakuskunez). Guztiak lurrean jarrita dagozala bat kukuruntxu beste guztien artean zoru ori arrapau nairik ibilten da.

Zorudunak, beste aldera lagun ori begira dagoanean, esaten deutso: nik kenduko eiaz (deuadaz) iri autsok.

Beste batek, beste aldetik yoaz, nik akabauko eiaz arkakusuok.

lrugarren batek, nik berotuko deuat iri bizkarra.

Atan dabillenak noizbait arrapatzen dau zoru edo azpi ori, ta

bestea bere lekuan yarri artean otsak emoten deutsaz au esanaz: **Len berotu deustak ik niri, nik iri orain berotuko deuat bizkar ori.**

Markiña ta Arratia ta Lekeitio aldean, abarketa azpiaren ordez, zapi bat idizilla lez gogor batuta, eskurik esku erabilten dabe.

Beste joku bat au da: **Zezin ala Urdaika deitzen dana.**

Burtigun edo pertika baten ertzean mutiko bat jarten da, besteak barriz atzeko aldean. axe goraka erabiltzeko. Ta itaune au egiten dautse: **Zezin ala urdai?** Pertikakoak **zezin** ba diño, gora ta gora erabilten dabe; **urdai** ba diño bera ta bera.

Itxi umeen jolasak, eta goazen umeak baiño sarri umeago izaten dakien zaarrekana.

Zarren ipuin eta kontuetan, Resurreción María Azkue jaunak beste kontulari bat aurkitu eban Markiña'n. Domingo Aldazabal zan.

Onek kontatuta argitaratu zitun bere "Euskalerriaren Yakintza"ko bigarren liburuan ipuin polit, atsegin, barregarri eta erakusgarri batzuk.

Euren izen buru edo deiturak esango doguz:

**"Aritza ta Ospala edo Prakaman ta Prakaman".**

lpuin luzea da. Onela aste da:

"Markina deritxon urixko politean aita-seme batzuk bizi izan ziran, alkarren antz andikoak egikeretan eta arpegieran, ganera izen batekoak eta ezizen bardindunak. Semea gaztetxu zanartean, aita **Prakaman** zan, semea **Prakamantxu** edo Prakaman txiki; semea gizondu ta aita aguretu ziranean, semea zan Prakaman, aita **Prakaman** zarra. Aita ildakoan barriz semea geratu zan ezizen osoaren jaube bakar. **Aritza ta ospala zer diran nok eztaki?**

Orrela Prakaman'en ipuiña onela amaitzen da: Prakaman bat, Prakaman bi, Prakaman nor dan ezetz igarri.

**Edo ta Aritxak ospala bere erikoa.**

**Beste bat: Doistuko Sakristaua.**

Ardau zalea zan.

Ondorena: Lo kokorrean sarri, burua erdi galduta.

Abarketa baltzekaz ibilten zan beti.

Bein, bestetan baiño zerbait geitxuago eda ondoren, astun egoan eta lo geratu zan, bide egal baten.

Laietan ebilan mutil zirikalari bat beregana urreratu eta anka bateko abarketa baltza kendu eta abarka zar bat jantzi eutsan.

Sakristaua esnatu zanean, urduri geratu zan: Abarketadun oiña berea zan, baiña ta abarkaduna?

Eta bere artean pentsatu eban: Etxera joango naz. Sakristaua etxean ba dago, ni ez naz sakristaua.

Orrelako buruaustetan eldu zan etxera. Bein eta birritan atea jo eta iñok erantzun ez.

Ni ete naz ba sakristaua? beretzat esan eta sartu zan etxean.

Bertan lo aldien bat egin bearko eban oraindik, abarketaren istoriaz ondorenen bat atarateko.

Geiago: Indiarrak eta arrautzak.

Kuba'rako itxasontzia artzeko asmotan, Azpeiti'tik Donostia'ra joan zan mutil bat.

Denborale itzala itxasoan eta amabost egun atzeratu bear urteera.

Ori ikusita, barriro bere etxera.

Bidean taberna baten arrautza bi eskatu ta jan. Bost pesetako dirua atara ordaintzeko, ta tabernan atzerakorik ez eta biaramonean ordainduko ebala ta konfiantzan itxi eutsen.

Baiña... La Habana'ra joan zan mutilla barriro andik igaro barik. An amalau urte egin eta aberastuta biurtu zan etxera.

Gogoan eukan bere zorra. Joan zan lengo tabernara. An diru asko eskatu eutsen arrautza bi arein ordaiñez. Berak jan ezik, olloak atarateko asmoa eukela, gero geiago atara bearko zituela eta abar.



Gure gaztea diru billa etxera joiala, adiskide bat topatu eban.

Itzal ikusten zaitut gaur, esan eutsan adiskideak. Zerbait gertatzen.

Azpeitiarrak sits eta bits kontatu eutsan gertatua.

Gaiñera auzitegira salatuko nabela esan dauste.

Adiskideak, asko pentsatu barik, argia zan-eta, erantzun: Ez bildurtu. Eroan nagizu deia artzen dozunean bertara lagun lez.

Deiturako eguna eldu zanean, an egoan zintzo ordurako. Baserritar adiskidea ez. Larritu zan, baiña alako baten ikusi eban bestea etorten eta nasaitu zan. Asi yakoezan lege gizonak itaunka, eta baserritarrari, bildurra sartzearren edo, garratz esan eutsen: Ez dakizu ordurik zaintzen? Oraiñarte nun egon zara?

Jauna, biar indiarrak erein bear dodaz eta egosten ipini dodaz biar ereitekoak.

Zelan da ori? Indiar egosiak erein? Orrelakoak sekula ez dira erneten.

Ori entzunaz batera, baserritarrak: Indiar egosiak ez ba dira erneten, arrautza brixiduetatik be ez da txitarik agertzen.

Eta danak igarri eben nora eioan erantzuna, eta ao zabalik gelditu ziran. Auzirako deia bertan bera amaitu zan.

Kontu polit eta atsegiñak, baiña gure zizendapen au laburtuaz esango dogu, Markiña'n batutzakotzat agertzen dirala gorago aipatutako Azkue;ren "Euskalerriaren Yakintza" liburuan beste oneik be, bata baiña bestea polit, atsegin, irudi eta zentzu on eta barregarriak:

Ara euren deiturak:

Odolik garbiena. Bigarren tomoko 257 orrialdean.

Peru Arraizpe. Bigarren tomoko 275 orrialdean.

Prakadun emazte ta gonadun senarra. Liburu berbertako 298 orrialdean.

Sakristau burutsua. 306 orrialdean.

Ur bedeinkatua.

Jakiña da Ur bedeinkatuak Euskalerrian euki izan dauan entzutea eta sinistea. Toki askotan, bertan bedeinkatutako ur ordez, kanpotik ekarteko oiturea egon izan da. Ala Berriatu eta Murelaga'ra, ingurukoak aitatzearren, Los Arcos'etik ekarten eben, beste zeregiñik barik erriaren kontura udalzain bat bialduaz, ango San Gergorio'ko ura, lurrak eta frutuak bedeinkatzeko.

Markiña'ko urak be ba eukan ortarako bere entzutea. Esateko, Arrona'ra San Jazinto'ren ura Markiña'ko praileetatik eroaten eben eta urte guztian etxean eukita be ez zala galtzen esaten ekien.

Alkarri ura eskintzean, "Zeruan alkar ikusi daigula" esaten ekien baserritarrak.

Esaten d<lhenez, Markiña'n ura bedeinkatzen ebenetan, iru bidar pitxarratik arranera eta arranetik pitxarrera erabilten eben baserritarrak eta korta (ukulu) guztietara ur ori botaten zan.

II jantziak.

Euskalduna beti izan da eriotzari lotsa zainduarren, bildurrik euki izan ez dautsana.

Azkue'k diño Baztan'en andra batzuk gazterik gertuten dabela il jantzia, geienak monja soiñekoa, Noizean beinka aizetu ere egiten dabela. Markiña aldean be emakume batzuk orixe berori egiten dabela. Onetan ni-neuk esan neike gure amak be komoda baten gordeta eukiten ebala bera ilten zanerako jantzi baltza eta sarri erakutsi euskula eta gogoratu eragin, komodako gauzak astintzen ibilten zanean.

San Juan lorak

Erri askotako oiturea da San Juan egunez bedeinkatzeko bedar mota ugariz txorta egitea. Gero txorta ori ate-gain, leio eta soloetan be ipinten ca.

Emen Markiña'n, Azkue'k be esaten dabenez, zinta bedarrez eta eriñotz latzez egiten da txorta ori. Bertatik edozein lore artuta. pertz zar batean txingarra jartzen da. Orren lurriña beiaren errapea biguntzeko naiz agiñako miña kentzeko ona izaten da.

Kalapitxi, Mitxeleta...

lzen asko emoten jakoz axandiloari.

Markiña'n txiribiri, Murelagan txilibili. Ondarroan kalapitxi.

Txiribiria argi-ondoan dabillanean, biaramonean barri onak artuko dirala sinistuten da.

Esaera da: Txiribiri zuriak barri onak, baltzak barri txarrak.

Toki askotan esaten da txiribiri baltza il egin bear dala.

Txoriak.

Sinistea: Txepetxak Andra Mariari altzoan kaka egin ei eutsan eta txantxangorriak garbitu.

Esaerak.

Esaera zar asko dagoz Euskalerrian eta oraindik gogoratzen diranak, gertaeretan erabilten diralako. Azkue;k bost edo sei bakarrik izentatzen dauz Markiña'n batutako lez. Orrek ez dau esan nai beste asko be Markiñan erabilten ez diranik. Azkue berberak 2.936 esaera agertzen dauz.

Markiñan batutzakotzat oneik agertzen dira.

Andra Maria Arratekoari bezperak esan ezkero, yakea lepora.

San Rokeak ezkero, lurrak baltz.

Ori ori, markiñarrak pelotari. (Au Lekeition batua da).

Sexta, yateko baiño ezta. (Karlisten bigarren gerratean Markiña'ko Batalloian egon zan sei-garrean konpañiagaitik esaten da).

Maria, Orion trumoia eta Markiñan euria.

Ondarroan asko erabilten diranak dira Markiña'ri ikututen dautsen esaera oneik:

Markiña'ko aizeak gona barrenak aidean.

–Markiña'ko aizeak, lizunak.

Markiñalde gori, laster dogu euri.

Markiñaldea gorri, errekaizea gori.

Ondarroan'n euri tantak asten diranean, mutil txikiak kantaten dakie: Eurixe, Markiña'n eurixe!

Errekaixeak brix, Markiñan sorgiñak dantzan dabiz.

Artizkua'k izenpetuta, El Diario Vasco'n agertutako "Bergara aldeko zenbait esaera zahar" en artean, au agertzen zan:

Markiña Etxebarri"ko Joxepa Ramona, ezer ez emoteko baiña borondate ona.

(Borondate ona bai. baiña sekula ezer emoten ez dabenei esaten ¡akue).



# EUSKAL KANTAK, MARKIÑA ETA AZKUE

Azkue zanak bere "Cancionero Popular Vasco" dalakoan, lau abesti agertzen dauz berak markiñarrengandik batu eta jasotako lez.

Bat: "Orra or goiko" lez ezagutzen dana.
Orra or goiko arestitxu baten
kukuak umeak egin dozak aurten...

Doiñu au Bizkaian "Maiganeko" dantzarentzat erabilten dana da. Berak diño, letra barik Lekeitio 'ko tanbolinteru bateri entzun eutsala, baiña letragaz Leon Zuriarrain markiñarrak erakutsi eutsala.

Abesti orren letran aldakuntza bi aurkitzen dau Azkue'k beste batzueri entzun eta markiñarrak berari abestutakoan.

"Kukuak umeak egin dozak aurten" en ordez, markiñarrak "Kukuak umeak egin jituk aurten" esaten ei dabe. Bai eta "Axe bere kukuaren zoritxarra za"en ordez, markiñarrak "axe bere kukuaren subertie zan" abestuten dabela.

–Markiñan batutako bigarren abesti lez, "Lenengotxu ori, punta biatz ori, beste guztien alduan trokotza dok ori" agertzen dau. baiña emen trokotza ordez, markiñarrak motzena esaten ei dabe: beste atzamar batenean, alperra dok ori esaten danean.



markiñarrak zorrena dok ori erakutsi eutsela eta olakoxe tokian tokiko berben aldakortasuna erakusten dau.

San Miguel'en abestirik ez eban batu Markiñan. Berak ldurretakoa agertzen dau.

Markiñan batutako beste abesti bat: "Belerengo urian" deitzen dana da. Gogoratu egingo dogu zelako letragaz abestu eutsan berari Julian Ugartetxeak:

I.– Belerengo urian, gabon gabaren erdian
Birgiña Maria zeuan kontsolaziño aundian.
Bart Belenen, da bai Belenen jaio da Jesus Nazaren.

II.– Jesús dibino! Gauaren otza! Jausten da liñetazia,
ordu bi orretan orrela ba da, il da ganaduguztia.

III.– Korraletako ardiak nere dantzan zebizen orduan
salbadorea jaio tageugaz bizi da munduan.

IV.– Nazareteko tenpluan dago dama eder bat yaririk,
izena bere Maria dau ta ondo graziaz beterik.

Azkue'k Markiñarrengandik jasotako laugarren abesti lez au agertzen dau:

I.– Ama, ezkondu, ezkondu, denporea dan artean.
–Ene alaba, zer diraustazu? Ogirikan ez etxean.
–Galburutxu bat topatu neban bidean, ostikopean,
zortzi anega kendu neutsazan aurreko bote batean.
Ukulun dringin maspelen dringin
sankulun de blanko txuntxurrun berde,
txitxibiribirirrak eta plau,
ardauak onelan ipinten nau.

II.– Ama ezkondu, ezkondu, denporea dan artean.
–Ene alaba, zer diraustazu. Ardaorikan ez etxean.
–Masmordotxu bat topatu neban bidean ostikopean,
zortzi kantara atara niozkan aurreko lakaiña batean.
Ukulun dringin maspelen dringin...

Abesti onek ba daukaz aldakuntza batzuk, baiña ez gogorrak. Abesti onetan arrigarria gertatzen dana au da: Orrelako berba jokoetan euskal esan naia emoten ausartu arren, Ukulun dringin maspelen dringin eta gaiñerako errepikari ez eutsala ezelako esan nairik billatzen eta ori euskeratu barik itxi ebala. la ba dagon markiñarrik, orreri gurpilla billatu eta aurkituko dautsanik.

# 815.-AMA EZKONDU (ID

*- llegreóio*




**JULIAN UGARTETXEA'GANDIK MARKIÑAN BATUAr**

# 1766 URTEKO MATXIÑADA

Mugartegi'ren "La Villa de Marquina" Monografía histórica, 1927" liburuan, kapitulu bat dator, Vll garrena, "Un movimiento comunista en la Villa y Merindad de Marquina" deituraz.

Bertan esaten danez, 1766 urtean alako algarada egon zan Markiña eta bere inguruan.

Jakiña danez matxinada a Esquilache ministroak Madrid'en artutako erabagien ondorenez sortu zan.

Gipuzkoa'ko Azkoiti'n asi zan. Azpeiti'ratu eta an indarra artu eta gero Eibar, Elgoibar'tik zear gure ingurura zabaldu. Asarrea sortu ta sua biztu eragin ebana: Aleki, likore eta abarren igotzea.

Erri batzutan erabagi gogorrak artu ziran, nai ta indarkeriz.

Ondarroa'n bertako portua izendatu zan kanpotik gari, arto eta beste janariak ezelako zerga barik ekarteko.

Markiña'n Apirilla'ren 18'an batu ziran asarre jagitakuak bertako Udaletxean eta biaramonean Jemein'go parrokiko koroan.

Batzar orreitan aleak (granuak) nai ta ez beratzea erabagi zan edo bestela auzokoen artean banatzea, eta iñor aurka gertu eta igarten ba zan, bere etxea erre eta abar.

Barriro illaren 23'an batu ziran Udaletxean, eta erasoaldi orreri arpegi emon eta baretu nairik ainbat ugazaba eta lur eta etxe jaube batu ziran.

Orren ondorenez, batzar orreitako erabagi lez, Markiña'ko Udaletxean artutako erabagiak oneik izan ziran.

1.– Orrelakorik geiago gerta eta ikusi ez dedin eta bere oroitzarik be geratu ez dedin, egin ziran batzarretan artutako erabagiak udal-liburuetatik kendu edo zirriborroz bete edo ez irakurri al izateko eran baltzitutea.

2.– Gari, arto eta beste ale ta janariak salmenta librean ipintea.

3.– Aleen neurrian. beti oitu ziranak erabiltea.

4.– Matxinadan estu artu ebenen izenak emoten zituenei, ixiltasuna gordetea, eurekaz iñor ez sartzeko.

5.– Gogor zigortzea matxinada onetako jendeari laguntza emon eutsenak.

6.– Udaletxean edo errian udal batzarrak egitea galerazotea.

7.– Txistu eta tambolin jaiak eta erromerietako dantzak galerazotea.

8.– Aldretan tabernetara joaten ibiltea galerazotea, eta illunabarra ezkero galerazpen osoa danentzat.

Eta erabagi onein aurka iñor ausartuten ba zan. atxilotu eta Bilbao'ko kartzelara eroatea.

Gauzak orrela, zer da baiña matxiñadako jendeak eskatu eta gero erri batzarretan onartuten ebana?

1933 urtean "Donostia'n argitaratzen zan "Yakintza" aldizkarian, l. Gurrutxaga'k egin eban matxiñadaren azterketa baten esaten eban: Zoritxarrez ez dira ezagutzen zeaztasunez orduko itunak, tratuak, zabaltasun edo osotasun batekoak ezik. Camino jakintsuak Mutriku'ko konponketei buruz jardutean esaten eban bertatik igarri geinkeala Azpeiti'koak be zelako izango ziran.

Gure aldetik, au esan giñei.

Mutriku erriari buruzko monografia bat idatzi nebanean, ango Udaletxean ez neban aurkitu erreferentzi zabal bat baiño. Baiña adiskide batek jakin eragin eustan Bergara'n egozala Mutriku'ko taldeak artutako erabagiak.

Lortu nebazan Bergara'tik.

Ortaz idatzi dabenen ikuspuntuari jarraituz, esan nei Markiñakoak be bardin samarrak izango zirala.

Mutrikukoak au esaten eben:

1.– Gaurtik aurrera, kalidade oneko garia, anega bakoitza 26 errialetan saldua izan daitela, eta ogia bere neurrian, eta artoa anega 15 errialetan.

2.– Errentak ordaintzeko aiña anega gari ez dauken errenteruak, dauken anega bakoitzeko 22 errial ordaintzeko ugazabei. Eta erriaren mesedean antxiñako neurrietakoak, eta iñor ziurtatzen ba da norbait orain erabilten diran neurri barriekaz dabillala, 20 dukaten isuna (multa) ezartea eta une aretan daukan aleen erdia kentzea.

3.– Asikiñak (primiziak) Udalak saldu daizala, enkantera atara barik, eta orretarako aukeratzen danari euneko amar emoteko.

4.– Errian batzen dan gaztaiña aurrerantzean bertako eta bertan bizi diranen artean banatzea, frutu guztia erriaren kontura batuaz, eta lagun bi izentatzea orretarako, oneik agindu dagien noiz batu eta banandu. orretarako bear lez ordainduta.

5.– Emendik aurrera ez ordaintzeko ez erriari ez jaubeei gaztaiñaren amarrenik, baiña bai asikiñak, primiziak.

6.– Gariaren amarrena ordaintzean, azitan erabilia gitxituteko, eta txarriekaitik be amarrenik ez ordaintzeko.

7.– Auntzak askatasunez bazkatu dagiela erriko eta jaubedunen mendietan.

8.– Portu onetara txaloparik etorten ba da alez beteta, bear daben laguntza emoteko, bai eta gura daben egunetan geratzeko bear daben baimena.

9.– Abade egiñak edo zai dagozanak, ez dagiela bakotxak kapillautza bi baiño geiagorik euki, eta orain daukezanak itxi egiezala ez daukenei.

10.– Orain erri onetan osagillearen errenta ordaintzeko eskatzen dan sisarik geiago ez eskatzeko, eta osagilleari erriak ordaindu dagiola bere alogera, kontuan eukita, orretarako ezin leikela sisarik ezarri.

11.– Mendaro'ko auzoan iñok saldu nai ez ba dau azunbre txakoliñik 20 laurdenetan, erritarrak eskubidea eukiko dabela atsegin leikien kanpoko ardauak saltzeko tabernak ipintea.

12.– Auzolanean konpontzen diran bideetarako, erritar eta bertan bizi diran guztiei deitzeko, baiña ez bigarrenez, guztiak lan ori egin arte, eta pioi eta idi-zaiñei oiturazko diran erraziñoiak emoteko.

13.– Eleizakoetan, Gure Jauna eroatean igaro bear diran erreka nausitxoetan, zubiak egiteko, eta erreka onein egalak erri batenak baiña geiagonak ba dira, bien artean egiteko zubia.

14.– Salbaua ezin leikela saldu 32 kuartotan izan ezik; arrautza bakoitza marau (maravedi) bi; esnea, Maiatzetik Uztaifla'ren azkenerarte, azunbrea sei kuartotan, eta beste illetan zortzi kuartotan.

15.– Erriko buruzagiari, baserrietako osterarik ez ordaintzeko bakoitzeko errial bi baiño geiago eta errial bat kartzela zaintzetan.

16.– Edozein lanetan idiena ordaindu egin bear dala, au da, norbere kontura zaindu ezkero 8 errial, eta ugazabaren konturakoetan bost errial eta erdi, eta zamakariei 8 errial eta kuartillo bat ardau, antxiñako oitura beteaz.

17.– Su-tegi edo bizileku bakoitzari urtero lau egur karga emoteko sukalderako, Ikuslariak zeaztuta, eta geiago bear dabenei geiagoko ori ordainduta, baiña ez lenengo iru kargak.

18.– Iñor ez dedilla sartu egurretan besteen jaubetasunetan, ala egitean bakoitzean 15 errialeko zigorra ezarriaz, eta bardin orria egiten dabenekaz.

19.– Erri barruan bakoitzak bere etxean esne bei bat euki leikela, baiña kalterik egin ezkero jaubeak ordaindu bearko dauala.

20.– Oillo bakoitzak 3 errial balioko dauala; kapoiak lau. Orri batzen egiten dan kaltea ez dala aztertu bear ebagite batetik bestera bitartean ezik, eta azterketa egitean karga bakoitzagaitik iru erria) ordaindu bearko dala eta ez geiago.

21.– Esandako guztiaren baieztatzea lenengo Batzar Nagusian eskatu bearko dala, eta Alondika eta Burdiñoletako pixuak bardiñak izan daitezala, gaurko ezbardintasunak kalteak eragiten dauzalako.

22.– Solo jaube edo errentalari bakoitzak bear lez sarratu dagiazala, edo bestela, ez ordaintzeko ganaduak egin )eikezan edozelako kalterik.

23.– Gaurko egunaren buruan Urira eldu ezik eta euren aurrera agertu ezik, alkateari eskatuten dautse Txurruka'ren kontura ostatua emoteko, eta ostaturik egon ezik, zortzi, amar edo amabi lagun geratzeko.

## Postatum

Bikario jaunak ezingo dauala emendik aurrera ardularitza ordez ezelako ordezkorik eskatu, beti doan egin baiño, beartsu nai aberatsei izan, eta ezkontzetako dei eta euretara joatearren, urian nai baserrietan, zortzi errial baiño geiagorik ezingo dauala artu, eta Ogipideko abadeak, eurei amarrenak emoten dautsezanak izan edo asteroko zaintzapeko baserrietan il-tamuan dagozanei laguntzera egunez nai gabez gertatu bardin joan bearko dabela, ala egin ezik bakoitzean amar milla marauko zigorra ezarriaz.

## Itun onei buruz artutako erabagia

Eta Udalak, itun oneitan erabagitakoa jakin ondoren, luzaro eztabaidatu eban legezko ete ziran edo eza. Baiña ori erabagiten iñarduela, jakin zan Elgoibar eta Mendaroko irureun gizon baiño geiago, armatuta, Soraluzen (Plazentzin) egozala Bergara'ra igaroteko asmotan, itun orreitan esaten zana indarrez lortzeko asmotan, eta jakin eraso zan Markiña, Mutriku eta Deba'ko urietan eurak egindako kalteak ikusi eta euren ondorenekaitik oraindik ill eta joten iñarduela bertakoak.

Beste tarte batzutan ikusten da, Elgoibar'ko armadunen buru Gregorio Agirre zala, bertako udal-gizon baten semea.

ltun (tratu) onein gorabera laster zabaldu zan errien artean.

Itxuraz matxiñada au asi ebenak, ez euken luzaro armetan jarraitzeko asmorik. Karta baten esaten da bein erriko ordezka-riak, Abadeak eta euren laguntzailleak izenpetu ezkero, bereala biurtzeko asmoa eukela.

Esaten dana da Bergara'ko Udala gertu egoala armadunei aurrera egiteko baiña ango abadeak ez ebela ezetara be nai armekaz aurre egiterik, orretatik sortu eikezan ondorenen bildu-rrez, eta erabagiak artzean ortazko asarrea agertu ebela.

Orra ba, matxiñada zaratatsu areri buruz egon leikezan jakin naiak asetzeko aiña agerbide, gure ustez Markiña'ko istorian be sartu leikezanak inguru guztian bardintsu jokatu zalako eta egin ziran eskabidea eta artutako neurriak antzeko izan ziralako.



# XEMEIN ETA MARKIÑA ALKARTU AURRETIK

Uri eta eleiz-atea, au da, erri biak alkartu aurreko urte bat aukeratuko dogu, bata-besteko "bizimodua" ezagutzeko.

Eta zeatz-meatz, alkartzeko urtera joan barik, 25 lenago zelan ziran ikusi daigun.

Au da. 1927 urteko Markiña eta Xemein'go gora bera batzuk.

Urte orretan Markiña'k 1.700 bizilagun eukazan bertan bizi-ziranen artean eta beste 115 geiago eskubidezko.

Xemein'ek 1.296 bizilagun bertan eta beste 56 eskubidezko.

Esan daigun baita urte orretan Ziortza'k (Bolibar'be sartuta) 941 bizi-lagun eukazala eta beste 91 eskubidezko.

| | |
|---|---|
| Alkateak: | Xemein'en: Emilio Ruiz de la Maza. |
| | Markiña'n: Rikardo Urkieta. |
| Udal-idazkariak: | X: Jose Migel Onaindia. |
| | M: Federico Pradera. |
| Epaikariak (juezak): | X: Toribio Larruzea. |
| | M: Franzisko Gomez. |
| Fiskalak: | X: Jose Antonio Argoitia. |
| | M: Felix Alkorta. |
| Jaubetzako ardulari: | M: Julio Monsalve |
| Auzitegietako idaz-kariak: | X eta M (bietan) Casimiro Pradera. |
| Eleiz-gizonak: | • Erri bientzako parroki bakarra egoan lez, oneik ziran arduradunak: |

Parrokoa: Jose Anizeto Urrutia.

Laguntzailleak: Markos Espilla, Iñazio Larragan, Jenaro Ormaetxebarria eta Balentin Zulueta.

Amallo'ko parroko: Manuel Solozabal.

Merkataritza eta Langintzan

| | |
|---|---|
| Anabakak (Abonu mineralak): | X: Patxi Kalzakorta. |
| | M: Jose Arrieta, Patxi Bastida eta Baserritarren Sindikatoa. |

| | |
|---|---|
| Ur-beroak: | X: Alonso'ren alargun eta semeak. Urberuaga. |
| Elektra-gaiak: | X: Alejandro Gaytan de Ayala (lndar-ola) |
| | M: Jose Kareaga (lndar-ola) Karlos Salazar (tresnak) |
| Bizartegiak: | (Danak Markiñan) Hilario Aretxabaleta. Pedro Zelaia, Leon Garamendi, Domingo lbarluzea, Jose Malax-etxebarria eta Anbrosio Mallukiza. |
| Bizikletak: | M: Tomas Aretxabaleta (Alkilerra). |
| Kafetetxeak: | M: Joakin Azpiri, Bereza Anaiak eta Juan Larrinaga. |
| Ikaztegiak: | M: Bitor Barinaga, Juan Elorza, Felipe Garzia eta Franzisko Mentxaka. |
| Arategiak: | M: Fermin Alberdi, Andres Barrutia eta Pablo Zelaia. |
| Aroztegiak: | M: Benito Aginaga, Hilario Amutxategi, Jose Kalzakorta. Juan Bta. nomincgtie7. Ihnrliiina Jo- |



IRUZUBIETAKO IKASTOLA

se Larruskain, Jose Malaxetxebarria, Francisko Mentxaka eta Migel Onaindia.
(Makiñadunak) Casimiro Pradera, Iñazio Ugarteburu, Juan Ugarteburu eta Jose Mari Gisasola.

| | | |
|---|---|---|
| Karegintza: | X: | Julian Ituarte eta Damian Larruskain. |
| Jatetxeak: | X: | Julian Ituarte. |
| | M: | Kosme Azkune. Teresa Bustindui. Migel Onaindia eta Karmen Ugarte. |
| Alekiak: | X: | Patxi Kalzakorta, Pedro Mendiola eta Sindikatoa. |
| | M: | Jose Arrieta, Felipe Garzia eta Sindikatoa. |
| Otzara-egilleak: | X: | Iñazio Etxebarria. |
| | M: | Tomas Zuazo. |
| Ostatuak: | X: | (Denporaldikuak) Jose M. Ansotegi, Bereza anaiak, Juan Bustingorri, Jose Goikoetxea, Domingo Urriola. |
| | M: | Juan Bustingorri (Fonda del Prado). |
| Janari dendak: | X: | Julian Ituarte. |
| | M: | Bernardo Aretxabaleta. Cosme Azkuna, Klara Arregi, Basilio Bollar, Julian Duralde. Eusebio Iturbe. Carlos Salazar, Karmen Ugarte. |
| Artekariak: | M: | Jose Arrieta. |
| Gozotegiak: | M: | Bernardo Aretxabaleta, Eleuterio Azpiri. Basilio Bollar eta Julian Duralde. |
| Lokarriak: | M: | Maria Azpitarte. |
| Txokolate-gintza: | M: | Eleuterio Azpiri. Iñazio Azkue, Basilio Bollar eta Julian Duralde. |
| Drogeriak: | M: | Gerardo Ibarluzea eta Alejandro Kerexeta. |

| | |
|---|---|
| **Botikak:** | M: Leon Onaindia eta Alejandro Kerexeta. |
| **Burdin-saltokiak:** (Ferreterixak) | M: Ramon Arrate, Eleuterio Azpiri, Iñazio Azkue eta Basilio Bollar. |
| **Argazkilariak:** | M: Felipe Eizagirre. |
| **Metalki urtzailleak** | X: Barinaga eta Alberdi, Jose Goikoetxea eta Juan Larrinaga. |
| | M: Aretxabaleta Azpiri eta Lag, Mateo Kazalis, Kazaliz'en Alargun eta semeak, Modesto Foruria. |
| **Gasdun edariak:** | M: Jose Lejarza. |
| **Latoi-tresna-gintza** | X: Juan Barinaga, Barinaga eta Alberdi eta Jose Goikoetxea. |
| | M: Aretxabaleta, Azpiri eta Lag., M. Kazalis, Kazaliz, Alargun eta semeak eta M. Foruria. |
| **Gasoliña:** | M: Juan Bustingorri eta Tomas Duralde. |
| **Abere-tresnak:** | M: Josefa Barrenetxea, Tomas Duralde eta Maria Kerexeta. |
| **Urunak:** | M: Bitor Barinaga. |
| **Perratzailleak:** | M: Agustin Arrate eta Zipriano Maguregi. |
| **Burdiñolak** | M: Agustin Arrate eta Zipriano Maguregi. |
| **Bume-gintza** (Ojalata) | M: Rosa Gerrikabeitia eta Angel Goiogana. |
| **Lixiba ura:** | M: Jose Lejarza. |
| **Egur-olak:** | X: Eulojio Olabarria. |
| | M: Jose Arrieta. |
| **Osagilleak:** | X: Domingo Gantxegi. |
| | M: Domingo eta Manuel Gantxegi. |
| **Bitxi-dendak:** | M: llario Aretxabaleta, Klara Arregi, Antonio Barrenetxea, Franzisko Bastida. Klementina Korta eta Andres Maruri. |
| **Eskribadua** (Notarioa) | M: Cesar Olaortua. |
| **Okindegiak** | X: Jose Mari Larrinaga eta Benito Olabe. |

| | |
|---|---|
| | M: Bitor Barinaga, Karmen Etxebarria, Migel Larrinaga eta Bitoriano Ugarte. |
| Pentsuak: | M: F. Bastida, Baserritarren Sindikatoa eta Jose Urizar. |
| Kinkail dendak | M: Agustina Aranburu, Klara Arregi, Cosme Azkuna, Antonio Barrenetxea, Franzisko Bastida, Julian Duralde, Ambrosio Mallukiza, Migel Onaindia eta Karmen Ugarte. |
| Jatetxe-tabernak: | M: Teodoro Zelaia. Juan Elorza, A. Mallukiza eta Jose Mari Onaindia. |
| Jantzi-egiñak: | M: Luzia Olabe. |
| Jostundegia: | M: Pedro Goiogana. |
| Jostunak: | M: Gozalo Goiogana eta Eustakio Urtiaga. |
| Aziak: | M: Iñazio Azpitarte. |
| Zerrak: | X: Eulojio Olabarria. |
| | M: Domingo Lejarza. |
| Lagun-arteak: | M: "La Marquinesa", eta Katoliko-Lagun artea. |
| Tabernak: | X: Jose M. Ansotegi, lsidro Areitio, Martin Barinaga, Jose lriondo'ren alarguna, Julian ltuarte, Pedro Mendiola eta Jose Urionagüena. |
| | M: Gaspar lbarluze, Jeronimo Mendibe eta J.L. Zubieta. |
| Telleria: | X: Martin Garate. |
| Albaiterua: | (Bietan): Domingo Gantxegi. |
| Euleak: | M: Pedro Zelaia. |
| Eun-dendak (Tela dendak): | M: Dolores Alkorta, Jenaro Arrate, Manuel Barquin, Jose Kalzakorta, Jose M. Eizagirre, Cezilia Eraso. Norberto Gomez, Jose lriondo eta Jose M. Onaindia. |
| Ardauak. Askoka: | M: Tomas Duralde eta Jose Mari Gisasola. |
| Ardauak. Gitxika: | M: Tomas Duralde, J.M. Gisasola eta Jeronimo Mendibe. |
| Igeltzua: | M: Justo Barrenetxea. |

**Oiñetatuak** (Denda): M: Tomas Artaetxebarria.
**Oiñetakuak** M: Jose Andres Aginaga, Domingo
(Zapata-giñak): Aretxabaleta, Gerardo Ibarluzea, Jose Larruskain, Fabian Maguregi, Domingo Trotiaga eta Teodoro Urtiaga.



LARRUSKAINGO IKASTOLA

# UDALETXEAK

Oitu egin gara Udaletxeak, erriko-etxeak, erriko plaza-buru eta enparantzetan ikusi ta ezagutzera.

Markiña'koa kale artean daukagu.

Oitu egin gara, baita, Udaletxetako ormetan armarri ederren bat ezagutzera.

Markiñakoak ez dauka orrelakorik be.

Baiña Udaletxe ederra da, berezia. Bizkaiko monumentuen artean sartzea merezi izan dauana.

Alegiñak egin dabez markiñarrak euren erriko etxe au ondo zaintzen. Liburu au ataraten dogun urtean be (1991) lanetan diardua, etxeari bere itxurak zainduaz, erriko zerbitzuak eskatzen daben egokitasunik txairoena billatu eta emon nairik.

Ez da etxe bakarra, bikotxa baiño.

Batek baiño geiagok uste izan dabe iñoiz konbentu edo eleiz etxeren bat izan eta eikean be.

Kontu egin ba dagola liburu bat esaten dauana, Markiña'ko Abade batzarrak erabilten ebala, Ziar-kaliara emoten daben alderdia. (lnventario del Patrimonio Arquitectónico de lnterés Histórico Artístico. M. de Cultura. Madrid 1979),

Gero, 1725 urtean, etxe zarra joten barri bat egitea pentsatu zanean, karmeldar fraile legu bat izan zan bere egitura asmatu eta marraztu ebana be: Santa Teresaren Markos Anaia, karmeldar oiñutsa.

Udaletxearen ormak Markiña'ko kale zarrei begira dagoz: Zati nausia, torreduna. Erdiko kaliara eta Guen-kaliara bestia. Eta aurrea, zutoin andi batzuek euren gain jasoten daben egurrezko gaiñaga luze bat ikusten dala, Ziar kaliara.

Zutoiñak ez dira danak bardiñak eta denboraldi batekuak. Ba dira esaten dabenak euretariko batzuk lenago, gaur ezagutzen ez dan parroki batekoak izan zirala.

Ziar-kalera begira dago udaletxe aurreko aterpea, ikuspegi baten, etxarte estu aretan, bakan eta baketsu egiten dana.

Noizkoa eta dan?

Ba dirudi Markiña'k ez ebala euki erriko etxerik, kontzeju etxerik, XVI garren menderarte.

Ordurarte, esaten danez, uri ondoko arizti baten batzen zan erria, edo ta beste aterperen baten. Bai Erdiko kaleko kantoian be.

Ez ori bakarrik. Eleixa barrian edo ta Zemein'goan be egiten ziran batzarrak.

Baiña ain zuzen be Xemein'go eleizak sarri eukazan errirako asarreak patroien ezin ikusiagaitik.

Origaitik uste da gitxien erabilli eben tokia, Xemein'go eleiza izan zala. Eta asarre orreikaitik pentstu zala Markiña'rako parroki barria egitea be.

Udaletxeak alboko etxe berezian dauka errirako orduariaren torretzet ezagutzen dana.

1 827 garren urtean erosi zan lurra 20 metro luzerako eta orma lodiekaz torre bat jasoteko. Lur jaubea Manu Abarretegi zan

Bertan ipini zan erlojua Arraste'n (Mondragoen) egiña zan Zugazti'ren etxean. lru trenduna.

Geroago, Ariztirako, Gazteiz'ko Murua Etxeari *erosi* jako, elektromekanikoa, iru tren eta ozkintzaduna. Neurritan 126 x 44'kua.

Etxe au izan zan Xemein'go parrokian dagonaren egillea be. Zerbait txikiagoa da, mekanikoa. Esfera bi, tren bi eta ozkintzaduna.

Neurriak 100 x 41 x 47.

**XEMEINGOA**

"Ave Maria, Ihesus..." Eta erdera, emen euskeraz esaten dana:

Zubi au egitea Joannes Solarte eta bere emazteak agindu eben euren abereen bidetzako...

Eta ain zuzen Markiña eta Xemein artean ipiñi zan. eta Arretziñaga'ra bertatik joan bear da.

Zubi onen inguruko muga nastetsua izan zan benetan, uri eta eleizateko patroiak, jauntxuak, sarri eukiten ebezan asarre eta erasoakaitik

Gaur zubiko plaka ori Bilbao'ko Arkeoloji Museoan dago.

Zubi onek garoaz Arretxiñaga'ra, zabal esan da Xemein'era, bertan dagolako Xemein'go Udaletxe zarra.

Ba dirudi denboraldi baten Xemein'go erri batzarrak bertako jauntxoen etxetan egiten zirala, eta orretarako Ibarra, ltuarte, Artibai'ko labiano edo ta Larrazabal izentatzen dira. Edo ta Xemein'go Andra Mari eleizan.

Esandako tokiez gain, ba dirudi Arretxiñaga'ko Mikel deunaren eleizako koroa erabilten zala orretarako, bai eta Ibarburu'ko Jazinto deunaren ermita be.

Udal-etxe edo erriko etxe onen egitura landua da, apaindura bakoa.

Esan leike bere denboran barrokoa ba zan be orrelako etxeetan erabilten zan egitura, Xemein'go onetan bakuntasuna eta garbitasuna billatu zirala. Bertan igarten dan "andinaikeria", zela- ala deintzerren, barruko maillerietan, eskillaretan dagola esan giñei.

Udaletxe au egin zanean, Mikel deunaren eleiza be barriztatzen ibili zala orduko liburuetatik jakiten da.

1741 urtean etxe au egin zanean, etxe-oin bikoa egin zan.

Geroago 1919 urtean eskolak egitean, irugarren oin bat jaso jakon ortarako, lengo egitura berberaren neurrietan.

Etxe garbia da.

lrakaskintza ba egoan Xemein'en, eskolatzako egitura au egin zanean, baiña ortarako toki egoki barik. Origaitik jaso zan Udaletxe onen gain, neska mutillentzat egoki izango zan leku bikotxa, etxearen atzetik mailleri berezia emonaz.

Gaur, etxe onek, ez dauka lengo serbitzurik.





MARKINA



MAR KINA



JEMEINGO UDALETXEA

# SANTA KUTZ ABADEA MARKIÑA'N

Danok dakigu Santa Kutz abadeak, igaroten zan toki guztietan zear bere bildur, ikara eta estutasuna sortu eta lagaten ebala.

Markiña'n ez eban eragin andirik euki, baiña bai gogoragarri batzuk.

1873 urteko Otsailla'ren 3'ean agertu zan emen.

Berriatu'n lo egin eban edo gaua igaro eta Urloa ingurutik sartu zan Markiña'ra.

An markiñar gazte bat urreratu ei jakon, ikusmiñez. ltaundu eutsan nazionalak nun egozan Markiña'n. Mutillakj erantzun, eleiz torrean eskutauta egozala. Eta Santa Kutz'ek, erdi sinisgogor, erdi irrika, erantzun: Beltzak eta Elizan? Ez dituk ba eleiz zaleak izaten beltzak".

(El Cura Santa Cruz, "guerrillero", Juan Olazabal'en liburuan irakurten da ori).

Ori jakin ondoren, Santa Kutz'ek ordezkari bat bialdu eban eurekana esanez, ainbat ariñen makurtzeko, bestela sekulako zigorra artuko ebelako.

Boluntarioak arrotasunez erantzun ei eutsen, eurak ez zirala makurtuko il ezik.

Zer egin eban Santa Kutz'ek?

Norbaitek jakin eraso eutsan Primo de Rivera generalaren taldea bere atzetik etorrala. Laster zala inguru aretan.

Orregaitik Errekalde eta Axpe'tik zear ldarraga'ra urten eta Orio'ko abadea deitzen eutsena eta beragaz ebillana bialdu eban talde bategaz kartzela etxera eta andik bertan egozan jantzi eta manta batzuk atara ondoren, Ziortza'ra joan zan.

Ziortza'n •sartu eta an konturatu zan nazionalen ordezkari bi ebiltzala jakin eragiten Santa Kutz ara laster elduko zala, baiña Primo de Rivera be bere atzetik joiala.

Zorrotza zan orretan Santa Kutz, iñor ikustean zur ibilten zana, baiña batek iges egin eban bera konturatu orduko. Alaz eta bestea Tenplaua" deitzen eutsen mutilla atxilotu eban, estu artu eta il egingo eban Ziortza'ko Kolejiatako abadeak jakin eta Santa Kutz eri ziurtatu ez ba leutsa gizon a Markiña'ko karlostarren aldeko beroenetarikoa zala.



Eguerdian eldu zan Markina ra Primo de Rivera ren taldea. Bi milla gizonez osotua.

Santa Kutz'ek jakin eta garaiz artu eban Aulestirako bidea eta urrengo egunean Berriatu'tik zear barriro Gizpuzkoa'ra biurtu zan.

Egun areitan sekulako otza egin eban gure lurraldean, bai eta edur ugari be.

Markiña'n sartzean Santa Kutz'eri ikusmiñez bidera urten eutsan mutilla, geroago "Pola" izenez ezagutu zan pelotari entzutetsua izan zan.

# MARKIÑARRAK DEBA'REN AURKA?

Juan Mugartegi'k idatzitako "La Villa de Marquina" liburua 1927 urtean argitaratu zan.

Liburu ori kaleratu zanean, RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos) aldizkarian bere agerpena jakin erasoaz bertako gorabera batzuk emon zitun Julio Urkijo, aldizkari aretako zuzendariak.

Liburuen gorapenen artean, Mugartegi'k eukan Markiña'ri buruzko jakingarrien iturria zeaztuten eban Urkijo'k: Batetik Markiña, Ondarroa eta Xemein'go udalerri eta eleizetako artxiboak; bestetik Barroeta, Areizaga, Murga eta Mugartegi familien artxiboak eta gero Labayru, Etxegarai, Trueba, Plaza, Lhande, Aita S. Santa Teresa eta oraindik argitaratu barik egoan Bitor Munibe'ren lana.

Eta liburuaren atalak zearkatu ondoren, bigarren bat ataratzea komenigarri zala eskatzen eutsan egilleari.

Gauza asko egozala agertzeko. Orreitakoen artean Fernando Valle Lersundi'k berari esana: Vargas Ponce'ren bildumetan (koleziñoetan) ba egoala gauza jakingarri bat Markiña'ri buruz: Gerrarik sortzekotan, Markiña eta Mutriku'k ituna (tratua) eginda eukela Deba'ren aurka jokatzeko.

Zegaitik?

Mutriku Deba'gaz auzitan ibiltea ez zan arrigarri, jakiñik sarri ebiltzala asarre Deba ibaiaren goraberan. Gogoratu Deba ibaiak bide asko daroala alde batetik Mutriku'ko lurrak daukazala eta bestetik Deba berberarenak. Eta toki askotan jaubetasuna Mutriku edo Deba'rena zan eztabaidatu egin bear izaten zala. Or dagoz Urazandi eta Urazemeti bataren eta bestearen jaubetasunen mugatan. Mugatzen gaitz eta gertaera askotan asarre-sorleku.

Ibaiak gora berako asko eukiten dabe arlo onetan, batez be euren itxasoratzeetan.

Orrez gain ibaiaren bideetan itxasoa sartzen dan tokiak nastetsu izaten dira eta sarri an be.

Onetan Ondarroa eta Berriatu'k be ba ekien zerbait. Ondarrutarrak esaten ekien itxasoak goruntz joeran artzen eban lurralde guztia, eurena zala.

Berriatuarrak, euren aldetik, itxasoak mare berakuan agirian lagaten ebena, eurena zala.

Eta batak eta besteak agertzen zituen eskubide ori emoten eutsen aginduak batzutan, mesedeak bestetan edo ta gurariak askotan.

Orrelako zerbait Mutriku eta Deba artean igarotea, leikeana zan. Baiña zer euki be ete eban Markiñak Deba'gaz, gerra bat sortu ezkero bere aurka jokatzeko Mutriku'gaz ituna (tratua) egin-da eukiteko?

Aidean lagaten dogu erantzuna gaur gaurkoz.



# GERRAN ATXILOTUEN ERIOTZAK

1 830-1839 bitarteko karlistadako gerra deitu zanak zotin andia eragin eban Markiñaldean.

Derio'ko Artxibo Nagusian gordeten diran Xemeinigo parroki-ko liburuen artean, ba dago karpeta txiki bat. Amairu orrialde dau-kaz, 30x22 neurrikoak. Markiña'n egon zan gerran atxilotuentzako (prisioneruentzako) egon-leku bat, eta euren egoerari buruz asko erakusten emoten dauana da.

Bertatik konturatzen da bat zelako egoera larria eukiko eben gerrate orretan Markiña'ko "egon lekura" ekarri ebezan solda-duak.

Liburutxoak au diño bere goiburuan: "Libro Parroquial que contiene las Partidas del Hospital Militar del Depósito de Pri-sioneros de Marquina, desde el 17 de julio de 1837".

Berari esker dakigu, atxilotuentzako Gaixotegi Militarra egon zala Markiñalde onetan, Plazakolan dagon Urrijate torrean.

Bertan esaten danez Gaixotegi au Karlos V erregearen serbi-tsuan gudari ibili eta emendik gertatzen ziranentzako, eta Marki-ña'ko atxilotuen Egotetxe edo egon lekuan egozan gerran atxilo-tuentzako gertua egoan.

Ill en zerrenda 1837 urteko Uztaillaren 17'an asten da eta 1938'ko Bagillaren (Ekainillaren) 2'ean arnaitu.

Lenengo urte erdian, au da, Uztailla'ren 17'tik Abenduaren azken egunerarte larogei ta iru (83) lagun il ziran. Euretatik bat bakarra zan karlisten alde ebillan soldadua, bilbotarra bera. Beste larogei ta biak (82) atxilotuak ziran, gerrako prisioneruak.

Urrijate torreko gaixotegia zabaldu eta berealako baten il ziran bertan amazortzi lagun. Guztiei Berriatuko il-errian emon eutsen lurra.

Dirudianez, lurra emotea bakarrik egiten zan. Bestelako illeta-rik egin barik, eleizkizunik egin barik, orrelakoriek esaten ez dala-ko. Eta ordez, karlisten aldeko soldadua il zanean. konturagarri eta jakingarri lez esaten da, `voluntario del Rey" zala. Eta gaixote-gian sartuta egoan gaixoaz kutsatuta il zala, nai ta bera bizi zan etxean il, eta illeta meza "orrelako gizon batek merezi daben ospe eta anditasunez ospatu zala' .

Ikusten dana au da. Bata bestearen ondoren amazortzi lagun il zirala, eta oneik, lenengo illak, Berriatuko kanposantuan sartu ebezala, Urrijate torrea lurrez Xemein izanarren, eleizaz Berriatuko parrokian sartzen dana dalako.

Eriotza orrein ondoren, gaixotegia Bidarte Torrera aldatu eben. Eta emen ilten ziranak Xemein'en lurperatu zituen.

Eta Bidarte'n be eriotza erruki barik ibili zan.

Azilla'n (Azaroan) ogeita lau lagun il ziran Bidarten.

Gabon illean, Abenduan, beste berrogei ta bat.

Urrengo urtean, Urtarrillean iru lagun il ziran Bidarte'n eta barriro Urrijate'ra aldatu eben gaixotegia.

Emen beste sei lagun il ziran eta oi zanez, oneik Berriatu'n lurperatu.

Beraz gerrate orretako ogei ta lau lagunek Berriatu'ko iltegian artu eben azken lurra, danak atxilotuak, prisioneruak, eta Xemein'en irurogei ta zortzi (68) lagunek, euretatik bat ezik, danak atxilotuak.

Ezin ukatu Markiña eta Xemein eta inguruko eleiz-atetan. gizonak orrela ilten ikusi edo ta jakiteak, zotin andia eragingo ebanik.

Illak geienak Castilla aldekoak ziran eta batzuk España'ko be aldekoak.



# MOGEL, PERU ABARKA'REN EGILLEA

Markiñarra?

Mugartegi'k, bere "Monografía de la Villa de Marquina"n, "Galería de marquineses ilustres" atalean sartzen dau Juan Antonio Mogel'en izena.

Egia ete bat ez dala toki bateko edo besteko, sortzetik begira, nun bizi eta jaten daben tokitik baiño?

Jendeak markiñartzat euki eban Moguel.

Eta gaiñera, Eibar'eko istoria idatzi ebenak, Gregorio Mujika ospetsua aurrenengo dala, ez dabe sartu izan Mogel eibartarren artean.

Zer gertatzen zan?

Ikus daigun.

Mogel'en aittitta, Juan Antonio, Alfaro'n jaio zan. Eta Markiñan egon zan osalari, mediku lez.

Aita, Juan Antonio, Markiña'n jaio zan, medikuegin eta Eibar'en egoala Xemein'go Gabriela Urkiza'gaz ezkondu zan, eta Eibar'en bizi zan artean jaio zan Juan Antonio. Beste anai bat Deba'n jaio zan. ara aldatuta bizi ziran artean eta gero Markiña'ra aldatu.

Eleizako sendotza (konfirmaziñoia) be Markiñan artu eban Mogelek eta abade egin orduko, lenengo zeregiña Markiña'ko abade lez euki eban 1770 urteko Epaillaren 23'tik asita eta bost urte geroago Etxebarria'ra aldatu eta an iru urte egin ondoren, Xemein'go Andra Mari'ko parrokotzako aukeratua izan zan. Bertan il zan 1804'ko Maiatzaren 11'an.

Añibarro'ren eskutitzetan agertzen danez. naparreriz egoan gaiso bat ikustera joan eta gaiso aregaz kutsatuta geratu zan.

Mogel eleiz-gizona izan zan.

Gizon langillea eta erri maitalea benetan. Baiña euskera zale amorratua.

Emengo "euskaldun foruzale" batzuen aurka, baiña euskerarentzat ardura andirik agertzen ez ebenagaitik berak au idatzi eban: "Urkatuko litukee askok euren buruak, foruen legerik txikiena galdu ez dedin. Barriz antxiñagoti yatorkun euskera, galdu dedilla ordu onean".

Mogel, bere gauzetan, oso zeatza da.

Euskeran lez, eleiz gauzetan, egon zan parrokietako zeregiñak beteten, eleiztarren gogoak zuzentzen eta abar. Eta onelakoetan Mogel aldi baten modan egon zan "inkisiziñoira" salatu eban ameslari eta itsukeriz ebillala-ta ("por ilusión y fanatismo") beragaz autortzen zan serora, freila edo beata batek, Mari Garate'k. Emakume au elgoibartarra zan jaiotzez eta Etxebarria'n bizi zan.

Eta Mogel'ek garai aretako beste eleiz gizon eta jakintsuen antzera, Logroño'ra igaro bear izan eban denboraldi bat, bere jokabidea garbituta eta zurituta itxi arte.

Gertaera au Etxebarria'n egon zanekoa da, 1777 urtekoa.

Juan San Martin eibartar euskaltzaiñak, Mogel'eri buruz egindako itzaldi baten au esaten eban: Ona, jakituna, langille eta bere erriaren maitale kartsua zala.

Markiñar asko baiño markiñarrago, esan leike beragaitik, jaiotzako gertaera ezik, beste guztia markiñar odolez, Markiña'n edo bere inguruan igaro ebalako eta beti Markiña'ren aintza eta gorapen billa.

Mogel'ek ainbat liburu txiki idatzi zitun Eleiz-gaietaz: Esateko "Konfesio ta Komunio Sakramentuen gañean erakasketak", "Kristiñauaren dotriñea", "Konfeziño ona", "Kristiñauaren jakinbidea" eta abar.

Erderaz "La Historia y Geografías de España ilustradas por el ldioma Vascuence".

Berari entzuterik geien emona "Peru Abarka" da.

"Peru Abarka" euskeraz eta gaztelaniaz agertu zan eta dirudianez erderatzaillea Juan Carlos Gortazar izan zan. Liburu au gipuzkeratua be biurtua izan zan, Gregorio Arrue izan zan gipuzkeratzaillea.

"Peru Abarka" liburua, Markiña inguruko euskera biziaren agerlari jatorragaz batera, inguru oneitako oitura. ogibide, tresna.. lantegi eta zeregiñen erakusle ikasi eta atsegiña da.

## Jakingarri geiago

Juan lñazio Mogel. "Peru Abarka" ren egillearen aita, osagillea zala esan dogu.

Ala izan zan. Bai eta etxe jaubea be.

Beintzat, 1745 urteko erroltzetan. baserri bat baiño geiagoren jaube ezagutzen zan Amallo errekan.

Bat, Amallobieta.

Izen orretako etxe bi ezagutzen ziran: Nausia eta Txikia. Nausiko jaube lez Martin Garzia ezagutzen zan. Txikikoan. Juan Iñazio Mogel.

Beste bat: Aranzabal (Antzalal) etxea.

Urte berbertan Juan Iñazio agertzen da etxe onetako jaube be.

Eta bai beste baten be: Egurrola'n.

Beraz ikusten da Markiña'ra etorri eta laster asi zala baserrietan bere ondasunak sartzen.

Juan Iñazio osagille au 1773 urtean Euskalerriko Adiskideen Alkarteko irakasle izan zala jakiña da.

Beste Mogel entzutetsu bat: Juan Jose Mogel izan zan. Batzuk markiñarra izan zala esaten dabe. Bear ba da Markiña'n umetatik bizi izan zalako. Beste batzuk Deba edo Soraluze (Plazentzi'n) jaio zala diñoe. Alaz eta ezin kendu berari markiñar etxekotasunik.

Onek elabarri bat (nobela) idatzi eban: "Baserritar jakitunaren etxeko eskoaa" izenekoa. Bai eta "Eguneroko lan on eta erregubat meza santuba ondo entzuteko". Ez al da or markiñar euskera jatorra igartzen?

Eta ezin lei eskutuan itxi Bizenta Mogel eta Elgezabal, Juan Jose'ren arreba eta diñoenez beragaz eskolan ikasia.

Bizenta Azkoiti'n jaio ba zan be, Markiña'n bizi zan.

Esopo'ren alegiak (fabulak) euskeratu zitun eta "Ipuin onar" izenez argitaratu ziran Donosti'n 1804 urtean, Undiano'ren irarkolan.

Norbaitek Albazete'n il zala ba diño be, ziurra da Abandon il zala.

Ipuiñak bizkaieraz idatzi ba zitun be, beste batek gipuzkeratuta agertu ziran. Idazleak 20 urte eukazanerako argitaratu be.

Orregaitik Aita Villasante'n bere Literaturako Istorian diño arrigarri dala batetik andrazko baten lana izatea eta bestetik ain arin argitaratzea.

Bixenta'ren beste lan bat Españaetako Kardenal Gorenak egindako Pastoral baten euskeratzea da.

1820'ko Maiatzaren 15'ean argitaratu zan. "Traducida del Romance al Bascuence" diño.

Bizkaieraz. "Neure Artzaintzako lan eta eguin biarren artian gueijen tiratu dabena - beti nire biotza izan da" berbakaz asten da orduan Kardenal zan Luis Borbon'en idazkia.

Batzuk diñoe bere ipuiñetako izkuntza baiño zaillagoa darabillala emen, baiña ori ez da arrigarri, gai berbera mardulago zalako.

Orra ba Markiña'ri ospea emoten jakin ebenetan Mogeldarrak.






XEMEIN

1 - Angel de la Guarda
2 - Sto. Domingo de Guzmán (ruinas)
3 - Sªn Juªn Bªutista
4 - Sªn Jacinto
5 - Sªn Joaquín y Sta. Ana
6 - San Miguel Arcángel
7 - San Cosme y San Damián
8 - Santutxu de Ntra. Srª. de Erdotza
9 - Santa María de Erdotza
10 - Ntra. Sra. de las Nieves
A - Parroquia: Sªn Ignacio
B - » : San Pedro Apóstol

INSTITUTO LABAYRU
Departamento de ETNOGRAFIA

# THE BASQUE DIALECT OF MARQUINA

William Rollo izkuntzalariaren lana da:

Holanda'n eukan jakintsu onek bere ikas-etxea.

1 923-1924'ko udaldietan Markiña aldera etorri zan, bere emazteagaz batean, inguru onetako berbetako era ikasten. Ba dirudi Bariñaga'n egon zala.

Bere lanean eskerrak emoten dautsoz Juan Barkin'eri, onek bere erri eta berbetako erari buruz agertu eutsan zaletasunagaitik. eta batez be Inguruko etxe eta lagunen artean jardun al izateko zabaldu eutsazan aukerakaitik.

Zelako lana zan?

Azkue jaunak egin eban txosten baten esaten eban: Kritika bat egiteko zalantzan egon zala, Rollo'ren lanaren zientzi-jatortasuna aztertu edo ta berak aurkitzen eutsazan akats batzuk azalera agertzea egokiago izango ete zan zalantzan.

Eta bigarren au aukeratu eban atsegiñago eta erosuago izango zalakuan.

Ortik asi zan lan orretan agertzen diran eta markiñar ez ziran berba batzuk salatzen, baiña Rollo'k erantzun eutsan, berak berba orreik batu ba zitun, markiñarrak erabilten zituelako zala. Bera ez zala sartzen berba batzuk barri edo zar izan. baserritarrak erabilten ba zituen edo ezean baiño.

Gero s eta z zelan bereiztu jardutean, Azkuek esaten eban bera jaio zan errian (Lekeitio'n) bata ta bestea naastu egiten dabezala, ez dabezala argi bereiztuten, eta Markiñako urian be gazteak jokabide ori eukela, baiña ba ekiala Markiña-aldean ondo bereiztuten ebezala, ondo aozkatuta, eta berak ondo oartuta eukala ori, eta orrez gaiñera ba eukala orretan asko erakutsi eutsan bat, Maguregi abadea, gai orretan jakitun eta arteza zana.

Atzizki (subfijo) batzuen eztabaida be argitu nai izan eban Azkue'k, batez be kin atzizkia erabilteko egokitasuna.

Bere esanetan Eibar eta Soraluze aldetan kin ori bakarrekoan (singularrean) erabilten ba da be, gizonekin etxiekin eta abar, Markiña'n askotarakuan erabilten da eta bakarrekoetan gaz, au da, gizonagaz, nogaz... eta abar.



i)C:II)cl Ucit/u.;i UUru/ 0L tJ/ /INtF iU-
re Azkue eta Rollo.

Esateko Rollo'k aitatzen eban jopu berbari buruz Azkue'k erantzun eutsan be ba ori ez zala emen erabilten, barria zala. Ordez otsein eta mc rroi zirala emengoak.

Rollo'k bere aldetik erantzun eutsan jopu berba, baten baiño geiagotan entzun ebala eta ez zala gogoratzen otsein entzun ebanik.

Ill en izenetan be ba ekiala deitura batzuk erdi galtzen eioazala, baiña baserritarrak oraindik erabilten zituela eta ordez Azkue'k aitatzen zitun illen berba batzuk geroagoko kutsaduraz erabilten asiak dirala.

Beste berba batzuk, barrikeriak izanarren, baserritarren artean serte zirala ta erabilten zituela.

Dana dala. bata ta besteak euren eritxiei eusteko itxura agertzen eben.

Baiña Markiña'ri ikututen dautsana au da: Len eta gero be, bere euskal berbetari. lotsaz begiratzen dautsela jakintsuak eta markiñarrak beartu egiten dauzala orrek. bertako berbetearen jatortasuna zaintzen alegintzera.

Esan daigun Rollo izkuntzalariaren liburua Amsterdam'en argitaratu zala 1925 urtean.

Eta lan ori zala-ta, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu eban William Rollo jauna 1925 urteko Gabonilla'ren 23'ko batzarrean, lentxuago il zan Mr. Dodgson ingeles jakintsuaren utsunea beteteko.

# KUBA'KO GERRA

Jakiña da Euskalerrian, bai Afrika'ko gerrak eta bai Kuba'koak zelako zotiña eragin eben lengo gizaldiaren azkenetan.

Baiña erri gitxik agertu eben, Markiña'k lez, 1896 urteko Bagillaren amalauan, Kuba'ko gerra amaitzeko gurari eta garra.

Jai andi bat gertu zan.

Markiñaldeko erri guztiak batu nai izan ziran bertan.

Orretarako, Gotzaiña umeei sendotza (konfirmaziño) sakramentua emotera etorri bear zan eguna aukeratu zan.

Nai eta abade guztiak euren parrokietan sekulako zabalkundea egin, kaletarako orriak be atara ziran, Bilbao'ko Astui'neko irarkolan.

Paperetan au esaten zan:

1896 garren urte onetako Bagilla'ren amalaugarren egunean, Karmengo Andra Mariagan Markiñako albo errietako eleiz barrutegietatik bideztiak, Cuka'ko gerria ainbat lasterren da ondoen amaitu ta gure erri onetako beste atsekabe ta ezbiar guztiak aldendutia lorturiarren elduko dira.

**Goizian:**

Zazpiretan Etxebarri ta Beriñagakuak; zortziretan Goillibar, Ziarrotza eta Geriakuak; bederatzietan Ondarrua ta Berritukuak Markiñara eldu ta Batzar Nagosiak izentauriko arduradun batzun bitartez artuak izanak batera. berbaldi labur baten urrengo Mesa isil bat entzungo dabe.

Amarretan Amalloa, Jemein da Markiñako-bideztiak Komentura eldu ostean, gure Obispo Jaunak esango daben Mesa nagosi bitartian Jaungoikoaren berbia adierazoko dabe: eliz-barruan Aita Vicente Karmengotarrak; eliz kanpuan, Aita Ugarte, Zarauzko Komentuko nagosiak.

**Arratsaldean:**

Vizperak eta Errosariva esanda gero Jaungoikuan berbia adierazoko dabe: eleiz barruan Resurreccion Maria Azkuetar Abadiak; eliz-kanpuan Larrako Komentuko Praille batek. Atzenez, bedeinkatutia, gure Jauna agirikua gordetia, azken agurrak eta bideztiak, urriñenguak lenengo dirala ta goizeko arduradunak urimugaraiño lagun egiten deutseela. urtetia.

Ikusten danez, une berean, eleiz barruan eta kaleko jendeetzat kalean sermoiak gertuteko, benetan jendetza andia itxaroten zan eta bai aurrez neurriak artu be, kalekoak sermoirik barik geratu ez eitezan.

Gogoan euki bear da oraindik abots zabaltzaillerik ez zala ezagutzen eta orrelako jaietan sermolari berezi eta ospetsuak ekarriaren, batez be abots onekuak, gaitz zala eurei kanpotik entzun al izatea.

Arratsaldeko sermoia, eleiz barruan R. M. Azkue jaunak egin eban eta gogoeta au "Zeruko Argian 1964 urtean Aita Lino Akesolo'k gogoratzen eban kronikan esaten eban, egun orretan markiñarrak eta ingurutakuak berbeta bardiñean jardunarren, Azkue'k laburpen txiki bat egin bear izan ebala erderaz, gotzaiñarentzat.

Kuba'ko gerra, euskaldunentzat, benetan gogorra izan zan. Asko galdu ziran bertan, eta beste asko gosez, dirurik barik eta min oriak jota etorri. Min oria, batzun esanetan, ango ifiebre amarill a" deitzen zana zan, Kuba'ko beroetan sortu eta jende artean erraz zabaltzen zana.

Gure bertsolari ugarik negartu eben ango gerra, edo zital ezetsi.

"Auspoa" sailleko bertso-liburuetan, ba dago bat "Afrikako gerra" deitzen dana eta ango bertsoen artean, aukeratzen ibili barik, onelako au billatu dogu.

Gaitza eta gosea
guretzeko beti,
baiñan guregandikan
dirua urruti;
bizirik nola gauden
Jaungoikoak daki,
nunbait oraindik emen
nai gaitu iduki.

# XEMEINGO ANDRA MARI

Eleiza onen deitura jatorra Xemengain izan zan.

Ala Don Tello Kondeak Markiña uria sortueran markiñarrei eskintzen dautsen eleizarena.

X garren gizaldian egiña zala esaten dan edo uste dan eleiza a galdu egin zan. Oraingo eleizaren sarrera zatirik zarrena dala esaten dau Mugartegi'k eta izan leikeia lengoaren azken denbora eta barriaren asieraten alkartzea.

Ustai zorrotz erako da, isabeldar denboretakoen kutsuaz.

Eleiza au 1510-1550 urteen bitartean egintzat dago.

42 metro ta erdi inguru luze, edo lengoen erara 150 oin.

2830 metro daukaz zabalean, au da. 102 oin.

Amazazpi metro daukaz. netik gora, bere zeruko indar guneak alkartzen diranera.

Iru zatitan banatua. Erdikoa 10.42 metrokoa eta albotakoak bakoitzak 7,24 metrokuak.

Lau kapillatxo. Ugarte, Barroeta. Kareaga eta Aldaolakua. gaur Urkijo kondearena.

Berreun eta ogei ta amabost illobi (sepultura).

Lenengotan bere eleiztarren artean 240 etxe sartzen ziran bertan: 96 Xemeingoak eta 144 Markiñakoak.

Guztira 1.100 pertsona Jaunartzeko adiñean egozanak.

Aldare nagusiko eskillarak Ugartetxeko arriolatik ataratako arriagaz egiñak.

Zenbat aldare?

Iturriza'ren kondairan zazpi dagozala esaten da. Mugartegi'k. Markiña'ko kondairan. sei diño.

ltxuraz lenengo egin zanean nausiaren egaletan lau ipini ziran, baiña meza emotean traba egiten ebela eta kendu egin ziran bi.

Asieran aldare nausiaren atzean egon zan sakristia. Baiña ezetasun nai bustitasuna sartzen zala-ta, Manso, Kalaorra'ko gotzaiñak, eleiztarrei eskatu eutsen sakristi barri bat egiten alegintzeko, eta alaxe asi zan 1607 urtean barri onen egitura eta itxuraz 1619 urtean amaitu zan.

Kanpai torrea. dirudianez, lenengoz egurrrezkoa egin nai izan zan. lstorietan irakurten da lenengo denboraldian kanpaiak arbola batzutatik dindilizka eukiten zirala eta 1623 pentsatu eta erabagi







zan torre eta koroa egitea. Eta 1627 garren urtean asmo ori aldatu zan eta orain ezagutzen dan torrea egin.

Torre barria egiten 1625 urtean asiarren, eta lenengotan urte bira amaitzea agindu, eta gero beste iru urtetako epea luzatu arren. ez zan ala gertatu. Kanpaiak 1637 urterarte ez ziran jaso al izan.

Eleiza au patroien ardurapeko izan zan.

Lau zatitan banatzen zan patroien eskubidea. Ugarte eta Barroeta etxeak erdiaren zati bana euken eta beste erdia Markiña'ko uriaren jaubetasuneko zan.

Oituraz sei abade egoten ziran: lau ogibide osoko eta bi ogibide erdiko.

Eleiza au, etxe lez, Bizkai'tik eleizarik zabal eta andienentzat dago. 1195'25 $m.^2$'ren eremua dauka.

Aldare nagusia ederra da eta bertako eta eleizako beste aldaretan dagozan irudi asko, Ama Errukiorrarena, Bakardadekua, Errosariokua, Sortzez Garbi eta abar irudi bakan eta edertzat etsita dagoz.

Bertan dagon Madalena'ren irudia be, gaur aldare nagusira aldatua dagona, Beaugrant artista ospetsu izan ziran anai batena dala uste da, Juan'ena. Beaugrant'darrenak dira baita be Amallo'ko ermitan dagon Ama Errukiorraren irudia, bai eta Ziortza'ko Kolejiatan dagona be.

Kastor Uriarte arkitektoak "Las iglesias "salón" vascas del último período gótico" liburuan, era orretako eleizen artean sartzen dau Xemein'go au, Bizkai'ko Zamudio, Gernika, Arteaga, Elorrio eta Abando'ko san Bixente'gaz batean.

Eleiza onen egituran, urterik urte eta lanak eskatu ala, aldi bateko langille-artistarik onentxuenak ezagutzen dira.

Urtez-urte zeaztuaz, zabal-zabal era onetan mugatu geinkez lan eta langille batzuk:

1510.– Martin Albisua, argin aparexadorea buru zala asi ziran eleiz egiturako lanak. Beragaz batean Domingo Solarte eta Pedro Andrinua, arotz maixuak.

1527.– Ayala'ko Juan ezagutzen da aldare nausia urreztu eta margotzen.

Bakardadeko kapillako burdin-sarea (errexadura), Ziortza'ko abata zan lrusta'k eskeiñi eutsan bera il aurrean, eta beti be 1559 baiño lentxuago.

Burdin sare ori gorputz bakarrekoa da eta kandelera eta biurrikeri bereziak igartzen dira burdiñean atarata.

1526.– Parrokiko aldare nausiko erretaula egitea agindu.





Erretaula au urrengo urtean urreztu eban Juan Ayala'k. Eta esaten da urteen akats edo okerren bat egon leikela tartean, ain denbora gitxian ezin egin eikealako ainbesteko lanik.

1601.– Sagrarioa.– Martin Besabe, aulestiar taillagille eta arkitektoak egin eban. Fernando Penagos bilbotarrak urreztatu eban.

1607.– Sakristi barria egiten asi. 1619 urtean 380.596 marau (maravedí) ordaindu yakozan Gaspar Balzola argin maixuari.

1619.– Kustodia. Castillo abizeneko taillugille batek Sevilla'n egiña da. Urte onetan parrokiari eskeiñia. Barruko lau abe (kolumna) txikietan bakoitzean Barri-on (Ebanjelilari) bat irudituta dago.

1626.– Juan Urizar Zabala kanpai-torrea egiten asi, berak egiña eukan egitasmupean. Atsegin jausi ez eta Urizar berberak jaso eban Juan Agirre azkoitiarrak agertutako egitasmu barri baten neurri eta arauetan.

1777-1778 urtean eleiz guztia apaindu eta txukundu zan.

Aldi aretan Andres Gasparini ezagutzen da organu bat ipinten.

Orrela, Xemein'go parroki onen egitada asko billatu leitekez paperen artean. Batzuk agertu eta ezagunak dira. Beste batzuk. or geratzen dira "parrokiaren fabrikako" liburu zarretan. 1527 urtetik asita 1936 bitarteko 4 liburu ba dira beintzat Parroki onetako liburuen artean "Fabrika"ri buruzkoak Derio'ko Artxiboan. Eta jakingarri bat. Eleiza egiten asi eta bertako gasturik ez zala iñun idazten eta Anberes'tik ekarri eben 1527 urte orretan liburu andi bat kontu guztiak batera eroan al izateko. Orregaz be gauzak argi eta garbi eroateko asmn nta (-n nnn, .irinr 7n n dlnu »nik n in ukatu.



# AITA SAN MIGEL, ARRETXIÑA'KO

Sei kantoidun eleiza. Tellatuko urak be sei aldetara.

Noizkoa? Ez jakin. Xl eta XlV garren gizaldien bitarteko.

lstorigilleak 1626 urtean italiar gotzain batek sagaratu ebala gogoratzen dakie.

Baiña orduko jaia barriztapen baten ondorena zan.

Barruko ikuspegia edo egitura da eleiza oneri entzute, ospe eta ikusgarritasuna emoten dautsana.

Ain zuzen inguruan ez dagon lako aitz mota barruan egoteak eztabaida geiago emoten dautsa barruko egiturari edo konponketari.

Arretxiñaga'k fedea, folklorea eta siniskerak alkartu egiten dauz iru aitzen menpean.

Mikel aingerua, berari izena damotsona, XV garren mendekoa da, esaten danez, aldererik nagusienean.

Apoloni eta Jazinto deunak, bestetan. Eta koroan, Fausto.. Antolin eta Maria Madalena deunak.

Ezkongaien erromes leku da. Baiña aitzen azpitik. azpiko zulotik iru bidar igaro bear da. beste ainbeste Agur Mari esanez. zerbait lortu nai ba da.

Urtean ezkondu baietz, ots egiten dabe igaroten diranak.

Agiñeko miñak be da dauke bertan bitarteko on edo zerutar osagille dan Apoloni deunaren irudia.

Ortarako eskumako aitzetik kozkortxuak atara bear dira eta agin zuloan sartu. Min orrek eldutakoen errukitsu ei da santa au.

Toki batzutan esaten da, mezetan, konsagrazioaren denboran, Ostia eta Kaliza goratzen diran bitartean eskatu bear jakola Apoloni deunari mesede ori.

Ermita onek, beste ermita askoren antzera, euki zitun lengo denboretan bertako ermitañoak eta freilak edo beatak, serorak.

Alboan daukan etxearen izenak ziurtatzen dau ori. Padarra deritxa etxeak.

Padarrak deitzen ziran Bizkaia'n antxiñako ermitañoak.

Arretxiñaga'ko oituren artean, antxiñako aurreskua gogoratzen da.

Esaten danez, antxiña Xemein'go Udaletxean dantzatuten zan aurresku ori san Migel jaiaren biaramonean, san Migel txiki deitzen dan egunean. Eta dantzariak eskutik oratuta, ermitari bira-ka ibilten ziran, eskuetan illentzije eroela. Eta gero andik Udale-txera biurtu eta an Mai-gaiñekoa dantzatu.

Azken urteotan dantza orreik Ermitaren aurreko plazan egiten dira.





# ELEXABARRI

Ez da arrigarri, aurrerago kontatu doguzan naste, indarkeri, itsukeri, jauntxokeri eta abarren artean, iñoiz gogait eraginda geratu eta beste era bateko urtenbideren bat billatzeko alegiñak eta ametsak egitea.

Dirudienez orrela sortu zan Markiña'ko uriaren jaubetasuneko lurraldean eleiza barri bat egiteko asmua.

Arrigarri da eleiza barri onetzaz zeaztasun ugaririk ez egon edo ta ez agertzea.

Orrek, zela-ala, Xemein'go parrokiak bertako kristiñauen artean eukan eragiña adierazten dau. Onetan bere eragiña eukiko eban, ziurretik, etxeko illobiak eleizetan eukiteko oitureak.

Baiña danak gainduta, egin zan Eleiza barri au. Jakiña da gaur Karmen'go plaza deitzen dan tokian egon zala eta bertarako sarrera nagusia Okerra kale aldetik eukala.

Itxuraz Eleiza ori jasotean markiñarrak euki eben xemeindarrei aierkunde (benc antza) lako zerbait egiteko asmoa. Uriaren indarra erakutsi naia. Labayru kondaira idazleak diñonez, Xemein'go eleizari uriaren aldetik eskintzen jakozan asikin, amarren eta eskubideak kenduaz, zela ala ango bizitza ittotasun baten itxiaz.

Baiña ez jakin zegaitik, eleiza barri au ez zan gaurko eleizen aiñako sendo; urteetan jausten asi zan. 1737 urterako beratzeko edo jausteko arriskuan egoala esaten da. Mezarik be ez zan bertan eskeintzen, san Pedro bertako zaindariaren egunean ezik. Orrek esan gura dau markiñarrak barriro Xemein'go parrokian egin bearko ebezala bateotik asi eta illetak arteko bearkun guztiak. Alboetatik okertu eta arrakalatzen asia zan, eta konpontzeko itxurarik ez.

Geroago, 1817 urtean inguru onetan igarri zan lur ikareak be zotin eragin eutsan. Origaitik eleiz-serbitsutan barik erriko serbitsu eta gordelekutzat erabilten zan, egur, ikatz eta atzerako gaiki eta tresnak bertan gordeaz.

Orrek markiñarrei buruauste asko emoten eutsen. Batetik zer egin ez ekielako ainbeste toki beteten eban etxe zar onegaz. Bestetik ainbeste premiñarik be ikusten ez ebelako, kontuan eukita bere albo alboan frailien konbentuko eleiza be ba egoala. fedeko premiñak beteteko aukera eta toki egokian.



Origaitik Eleizako agintariei -Kalahorra ko gotzaiñari- eleiza beratzeko baimena eskatzea erabagi zan.

Markiña'k alegiñak egiñarren, Kalahorra'ko gotzaiñak urteak igaro zitun markiñarren eskabideari erantzunik emon barik.

Baimena eldu zanean, Markiña zabaldegi eder baten jaube egin zan bere lurretan, gero merkatu plaza. azoka ta abar izateko aukerako tokiagaz.

Orrelakoetan eleizak nekez emoten daki baimena, ezelako lotuera barik eta oraingotan be baldintza bat agindu eban: Eleiza egon zan lekuan arrizko kurutza bat ipinteko.

Eta Mugartegi'k bere "La Villa de Marquina"n diño baldintza au erriak ez ebala bete eta gotzaingoak be betebearrik geiago gogoratu ez.

# BIZILAGUNAK

1704 urtean. Xemein'en 100 etxe egozan. Zeatzago esanda.. 104. Euretako 56 etxeetan. euren jaubeak bizi ziran.

Beste 39etxeetan. errenteruak ziran euretako bizilagunak.

5 etxeetako ziurtasunik ez dago.

Danetara 407 lagun bizi ziran. Batez beste etxe bakoitzean 3.99 lagun.

1797 urtean 671 lagun bizi ziran. au da, 264 lagun geiago. Etxeak be 48 geiago. Oraingotan 47 etxeetan bizi ziran euretako jaube ziranak. 101 etxetan errenteruak eta beste 4'tako zeaztasunik ez dago. Batez beste etxe bakoitzean 4.50 lagun, osotasun baten jota.

Markiñan. 1704 urtean 185 etxe bizitza egozan.

Euretako 65'tan etxe jaubeak bizi ziran. 111'tan errenteruak eta 9'tan zeaztasunik ez. Batez beste etxe bizitza bakoitzean 4,85 lagun bizi.

**Zelan egiten ziran etxe batzuk?**

Ezin ukatu Xemein eta Markiña jaun aberatsen bizi leku izan diranik. Etxe askotan igarten da ori. Baiña be egozan bestelako etxe-jaunak be. lurrari zela-ala bere garrantzia ataraten ekienak.

Garbi esanda, etxea zorretan egiten ekienak, etxe egillea bitarteko eta artzeko zala.

Batzar Nagusietako Artxiboan zerbait jakin leike orretaz. Esateko 1810 urteko kontuetan irakurten da. Axpe etxeko jaube zan Madalen Zenarruzabeitia'k etxe bat eukala eta etxeak 550 errialeko errenta emoten eutsala. Baiña errenta ori etxea egin eutsan Martin Guenetxea'ri emon bear izaten eutsala. Etxegille au Illunzar Kofradikoa zan, argiña eta arotza eta etxea egin eutsan Madalena'ri errentak kobratu-ala ordaintzen joatekotan. Eta urte orretan esaten danez, beste sei urteko errentak artzeko egoan kittutzeko.

Ikusten danez lur jaubeak bere lurra ipini eban eta etxegiñak bere lanaren ordezko errenta ziur baten ordaiñez bere lana egin.

Bitartean paperik ez ba egoan be. kontzientziko ipoteka egongo zan.

# EDURTZETAKO AMA

lruzubieta'n dago, zubi egalean.

Aurrea arlanduzkoa. Bestea esku-orma edo orma lankatza.

Tellatua, lau aldetakua. Ez dauka kanpai torrerik. Kanpaia eleizpean dago.

Errementarikua etxeak konpondu eban 1981 urtean.

Len Bolibar'eko parrokiaren menpeko zan. Asentsio'ko errogatibetako ibillaldi bat Bolibar'tik bertara egiten zan.

Jai eguna, Abustuan, illaren 5'an, Edurretako amaren egunean, baiña ospakizuna urrengo domekan. Garbantzu eguna, iruzubietatarrak orrelako egunei deitzen dautsen lez.

lturriza istori idazleak diñoanez, 1635 urte inguruan sortu edo jasoa da ermita au, Juan Urberoaga eta Maria Olaetxea'ren kontura

Mugartegi'k, bere aldetik, 1641 urtean zeaztuten dau ermita onen egitura.

Egituraz lauko zuzena da, 8,85 x 6,72 neurrikoa.

lrudien artean, Andra Mari, santa Luzia eta Jose, Sebastian eta Bartolome deunak agertzen dira.

Len, san Gergorio egunean, maiatzean, meza eskintzen zan bertan.







0

# ERDOTZAKO AMA

Ermita baten ordez bi dagoz, bidea aitzaki.

Bat. jatorra, errepidea baiño beratxuago, lengo bide zar alboan. Errepidea egitean, erromesen eta oiñezkoen ukarrak eta eskintzak artzeko, egin eben barri txiki bat, bide barri ori zabaldu zanean, 1845 inguruan. Beste batzuk amabi urte geroago egin zala diñoe, au da, 1857 urtean.

Gaur ermita txiki barri orreri, "santutxu" deitzen dautse.

Bere leio zabalaren ganean dagon olean bertso oneik irakurten dira:

Marija, dontzella eder
ta Erdotzakua,
Zuri esaten yatzu
Osasunekua.

Bidian dabiltzanen
lagun segurua,
izan zaitez ba da
bere debotua.

Lenengo ermita, zarra, polita da, 17 x 30 eta 8.85 neurrietan.

Bere ormak arlanduzkoak dira. Tellatua alde bitara. Egurrezko kanpai torretxua gaiñean.



Urte gitxi dira bertako Andra Mariaren irudia Kantabria'ko Santillana del Marean barriztu ebela.

Ermita au, Xemeingo lurrean egonarren, Markiña'ko alkatearen agindupean egon zan, baiña xemeindarrak 1630 urtean bi milla dukat eskeiñi eutsezan orduko Erregeari, eta arek agindu eban aurrerantzean ez egiala bertan Markiña'ko alkateak ezelako agindurik ez zer kusirik, Korrexidorearen ordezkariak baiño.

Ermita onetan. Andra Mariaren alboan, santa Luzia eta San Anton'en irudiak dagoz.

"Santutxua" ermita onen lagungarritzat artzen da.











# KOSME ETA DAMIAN DEUNEN ERMITA

Meabe auzoan.

Gogoratu bearreko da Meabe auzoko etxe batzuk, geienak, luzaro Ziortza'ko parrokiko eleiztarrak, ango menpeko lez bizi zirala.

Eta nai eta ermita au auzoan euki, euren eleizkizunetan beartuta egozan Ziortza'ra joatera.

Andik aldentzeko eskabiderik zabalena 1857 urteko Urrillean zuzendu eben Bizkaiko Aldundira, Ziortza'ko Kolejiatak bere nortasun, ospe eta agintea galdu ebanean.

Ermita au 1657 urtean egiña dala dirudi. Bertako orma baten au irakurten da: Damian Meabe eta bere emazte Ibatao'ko Maria Nikolasak egin eta irazi eban ermita au, euren kontura eta Kosme eta Damian martiri santuei zaintzen eutsen eraspen eta maitasunez.

(Guk euskeraz agertzen dogun idazkun ori, bertan gaztelaniaz dagola autortzen dogu).

Ermita txikia da, 7,30 x 6,25.

Egalak arlanduzkoak, baiña beste ormak arlangaitz edo eskuormaz egiñak.

Aldaran erdi-erdian, gaixo bat ikusten da oean, bere alboan santu miraritsuak daukazala. Lauki orren albokoak egoera txarrean dagoz.

Aldara gaiñean etxeetan oi diran irudi txikietako bi: Ama Miraritsu eta Jesusen Biotzarenak.

Patrokua etxearen jaubetasunekotzat dago.

Jaia lraille'ko 27'an edo urrengo igandean ospatzen da.

Bertaratzeko biderik errezena, Markiña'tik Aulesti'ra duan bidea da, 52 kilometrora eldu baiño len eskumatara joaz.







# JOAKIN ETA ANA DEUNAK

Arretxiñaga°tik gora Amalio alderantz joaz, Barroeta torretxea-ren albo baten aurkitzen da ermita au.

Ermita laukotea, 9.20 x 6,15.

Markina alde onetan ezagutzen diran beste ermita batzuen tankerako da bere egitura.

Tellatuko urak lau aldetara.

Kanpaia, eleizpeko aga batetik dindilizka dago.

Barruan, lauki bat, latiñezko berbaz, euskeraz onetara itzuli leikena:

"Joakin andi, Ana'ren senar, Birgiña'ren aita, emoiguzu emen zure serbitzarioi osasunaren zoria".

Ba dira ogei ta bost urte inguru ermita onetan eleizkizunik ospatzen ez dala.

Ermita au, auzo-ermita barik, Barroeta etxearen menpeko izana da.

Gaur, arrizko zutoi bik eutsita daukan bere eleiz-aterpea egur gordelekutzat erabilten da.

Bertan dagon irudia. Praga'ko time Jesus'ena da.

Bere inguruko etxeak, Barroeta torrea eta Barroeta-goiti. Ba-rroeta-Arana. Barroeta Beiñi. Bauskain, Elorregi, eta Ortulaukua dira.





# JAZINTO DEUNA

Antxiñako Berriatu'rako bide zarraren egalean. Gaur, errepidean, Bolu'ko zubia artu eta igaro bear da bertarako bidean.

Umeak jator asi daitezen eske egiten eben ermita onetara euren ikertaldia inguruko ama askok euren umeekaz. Bai eta paralisiak osatzeko erreguetan.

Ba ekien baita sein-bako andrak bertara urreratzen, amatasunaren zoria eskatzen.

Bertako zaindariak latiñez daukan esaeran sinisten eben ingurukoak.

"Jazinto semea, zure erreguak atsegin jakoz nire Semeari".

Karmeldarren eragiña igarten da ermitako laukietan: Karmengo Ama, santa Teresa... Kristo'ren lgokunde eta Maria'ren Biotzagaz batean.

Dagonil (Abustuaren) irugarren igandean ospatzen da bertan jaia.

Egun orretan, Axpe etxeko jaubeak edo buruak, ermita onetan be bere jaubetasuna erakustearren, ermita barruan dagon kurutzea artu eta beragaz ermita inguratzen dau.

Legorte denboretan errogatibak egiten ziran Parrokiatik bertara, letañak esaten.

Ondo zaindutako ermita da.

Len orioa eroateko oitura egoan, argontzirako. Gaur kandelak eskintzen dira.







# AMALLO'KO SAN JUAN

Ingurukoentzat, Sanjun.

Larruskain'erako bidea asi eta laster, gorako pista bat artu bear da bertaratzeko. Kilometro erdira dago ermita, tontortxu baten.

Ermita jatorra, kanpai orma ta guzti. Aldara gaiñean olezko zerua.

Kurutzetik Beratzea erakusten dauan taula irudia, Ama Neketsu, Kristo. san Juan eta Madalena ikusten dirala.

Koruan irukoitz bat dago: Erdian Kurutzetik beratzea eta egaletan Pedro eta Paulo apostoluen irudiak.

Auzotarrak alegintzen dira ermita au txukun eta ondo zaintzen. eta Kofradiaren kontura barriztatu eben 1974 urtean eta 1983 urtean tella-barriztu.

Bagillaren eguna, san Juan eguna bertako jai. Egun orretan ermitaren atadian leizar adarra ¡pinten da.

Oiturazko zan len ingurua loraz eta zinta bedarrez apaintzea.

Besperan su andia egiten da. Su orretan erreten dira aurreko urtean bedeinkaturiko trumoi bedarrak eta beste lora txortak.

Bedeinkatutako lora eta bedarretako batzuk erre egiten dira ekaitza igarten danetan. Orrez gain bedar batzuk sutan ipinita.





euren lurruna erabilten dabe beien errapak gogortzean, biguntzeko.

Ermita onek ba dauka ikuturen bat mariñelekin. Bertan dago, eleiz erdi-aldean, eskegita, agin zorrotza deitzen dan arraiñaren buru zati bat.

Oraindik ermita zarretako oitura asko zaintzen dira bertan. Esateko, Kofradiko bat il ondorengo bederatziurrena zaintzen da, il kanpai jote eta abarretan, nai eta gaur, egia esan, "bederatziurren" ori iruurren biurtuta egon.

Esaera da ermita au izan zala Xemein'go lenengo parrokia.







# AINGERU ZAINDARIA

Aingeru guardakoa, erri berbetan.

Itxastarrekaz zer ikusia dauka ermita onek.

Iturriza istori egillearen esanetan. Kalahorra'ko gotzain batek 1662 urtean emon eban ermita au jasoteko baimena.

Bertako auzoan dagon Lauzirika etxekoak eurentzat dauke. jatorriz.

An esaten dabenez, urte asko dirala, bertako seme zan Jazinto Lauzirika itxasoetan ibilten zan ontzi baten.

Bein, urandietan ebillala, ekaitzen bat nunbait sortu, eta ondoratzeko arriskuan gertatu zan eta Aingeru Guardakoari arrisku aretatik osasunez atarateko erregutu ei eutsan eta eskintza bat egin era onetan: Ondo urteten ba zan, ermitatxo bat jasoko ebala bere izenean.

Eta or dago ermita. Txikia, 5.70 x 5.15. baiña ondo zaindua.

Orma lantzekak daukaz eta egalak, kantoiak, arlanduzkoak.

Lau aldetarako tellatua.



Aldare gaiñean olezko zerua. Beia zementozkoa.

Kanpaitorrerik ez dauka. Eleizpean dago kanpaia. gaihaga batetik eskegita.

Jaia. Dagonil (abustuko) lenengo igandean ospatzen da.

Ermitaren egalean pago andi ikusgarri bat dago.







# GUZMAN'GO DOMINGO SANTUA

lzen orregaz baiño ingurutakoak geiago deitu eta ezagutzen dabe Santa Rosa (Santarrosa) izenagaz.

lturriza istori idazlearen esanetan, ermita au 1662 urtean jaso eben Juan lbarra eta Clara Ubilla bere emaztea zanak.

Urrijate torre-etxe zabalaren inguruan dago, eta bere jaubetasuneko da.

Ermita barruan marmolezko illobi bat dago, armarri ta guzti, eta Panteon de la Familia lbarra R.l.P. esaera irakurri leike bertan.

Amabost urte dira ermita onetan eleizkizunik ospatzen ez dala. Ondarroa'tik Markiña'ra duan errepidearen egalean dagonez asko arritzen dira bere arlanduzko orma ederrak ikusi eta tellatua jausita eta aterik barik ikusteagaz.

Gaiñera ba dauka berari buruzko jakingarri bat: Plazakola burdiñolako ola gizonen eleiza izateko egiña zala esaten da.

Len Xemein, baiña gaur Markiña-Xemein'eri ba dagokio be, eleizaz Berriatua'ko Pedro deunaren parrokiaren menpeko da.

1979 urtean sua egon zan eta arrezkero galdu ziran bertako santu-santen irudiak: Domingo santua, lñazio santuarena eta Kristo'rena. eta Kataliñe eta Errosa'renak.

Bere egalean Artíhaí erreka igaroten da



# ABESU'KO KRISTO

Etxebarria'tik Markiña'rako sarreran dago.

Gaur "Prado", antxiña erriko arizti zarraren ertzean.

Lengo oituretan, fededun lez errian sartzeko apal-toki, edo erri-sarrerako gurutz-toki.

Iturriza'ren esanetan. 1536 urtean jaso eben Martin (bañez Garakate eta bere emazteak.

Murgatarren jauregi alboan dago eta gaur euren jaubetasunekotzat dago.

Txikia da eta orrelako ermiten egitura eta itxura bardintsukoa.

Lau uretako tellatua; kanpai-tokirik ez. Aurrea, arlanduzkoa, eta gañerako egitura arlangaitzezkoa.

Ez dauka leiorik. Soladura, beia, zementuzkoa.

Aurrean, burdiñazko errexadura eta egurrezko saretegia, zur-sarea deitzen dana.

Eleiz-jairik. gurtza jairik ez da bertan ospatzen.





# LARRUSKAIN

Amallo'ko sakona.

Mendi arte estu eta luzea, azken egalera jo arte. Larruskain'go baserriak, batzuk Gipuzkoa'ren muga dauke ingurutzat, besteak Etxebarria'ko Ander deuna eta besteak Berriatu. Jemein zarraren lurraldea dala astu barik.

Nekez lortu zan bertan parroki bat sortzea.

1887 urtean egin zan parrokia eta alboko abatetxea, aurrean plazatxu txiki bat daukala. eta ikastola egalean.

Auzoko zaindari eta parrokiari izena emoten dautsana, Loiola'ko lñazio deuna da.

Gaur bide ederra dago bertarako eta egoki eldu leike bertara, nai eta Azpiltza-tik sei kilometro inguru joan bear parrokirarte.

Bertako abadetza Berriatu'ko parrokiko arduradunaren kontura dago eta domeka eta jaietan eguerdi inguruan emoten dau meza.






AMALLOA




GARA JAINKOA ZEHLETRN
G0i213 ITXASO NEND ETAN



ORMAETXE



ORMAETXE



UBILLA



MUGARTEGI LAKA





BARROETA





MANOZKA

# ERROTA ZARRAK



ATXABAL



KAREAGA



MADALENAKO ERMITA BARRIZTUA



O Osasun Etxea
02 Botika
• Udaletxea
O Pelotalekua
50 Polikiroldegia
© Zelaia
07 Xemeineko Eleiza
® Karmengo
® Arretxinagako Mikel Deuna
10 Lea Artibai Eskola
11 Beko Benta
• Merzed
13 Registroa
O Aparkalekua

## MARKINA-XEMEIN

1990





azpiko errota
urbitarte
1
2
3
4
6
7
8
9
10
11
12
14
15





# MARKIÑA: PARROKIA, URIA ETA PATROIAK

Noiztik ete etorkiezan patroien etxeei Xemein'en eukezan eskubideak?

Ontaz Kondairan doktore dan Sabino Agirre'ren lan batzutan irakurten da. Ximeno Barroeta bat, Juan Perez bateri Gernika'ko Batzarretan laguntzen egon zala. Legizarnondarrak Bilbao'ko uriagaz euken auzi baten lekuko, testigu. lez.

Orrek erakusten dau Barroetatarrak Xemein'en ba egozala Markiñako uria irazi (fundatu) aurretik eta gitxienez 34 urte aurretik.

1417 urtea izan zan, beste askotan lez. Markiñako Lope eta patroiak asarre bizian ebiltzan bat. Ain zuzen be urte orretan, euren arteko erasoaldi baten, Markiñako Lope'ren semeak gogorren iñarduen erasoaldi baten, euretariko bat ilda geratu zala, torretik jaurtitako saeta baten eragiñez.

Orrelako gertaerak su bizian eukazan eleiza-berbertako patroien artu-emon eta bizitzak. gaurkoak konturatu be ezin giñeizen eran, eta misterio eta illunpeko urte eta giro areitan zelako eragiña eukiko eben orrelako jasoera eta gertaerak etxeetan eta inguruan. orduko siniskera eta lotueretan eta kontzientzien estuntzetan. eta abar. Jainkoak bakarrik jakingo ebala esan bear.

Alperrik ziran artzen ziran neurri eta erabagiak. Andinaikeri aren edo agindu-naiaren itsutasunak danei billatuko eutsen akikuluren bat orrelako egitadei arrazoiren bat emon eta zurituta laga nairik.

Eta gaur konpondu ziralakoan biaramonean barriro naastu.. orrela bizi ziran.

1489 urtean batzorde batek artutako erabagiak bake santua lortu ebalakoan... ezin urte asko igaro barriro naste barik.

Ezin ikusia zala ta parrokiko abadeak eurak be euki zituen arazo eta auziak ez bakarrik patroiekaz. bai uriagaz be.

Mugartegi'k esaten dabenez, abadeak euren etxea euki eben ortu ta guzti 1458 urte inguruan jasota, baiña Uria (Markiña) asarre agertu zan eta urte bete geroago. etxe ori zala-ta. gizon-onak edo bitarteko batzordeak euren erabagia emon bear izan eben. uriko eskubideak eta abadeenak etxe orretan mugatzeko.

Erabagia au izan zan: Abadeak jarraitu eikeela asitako lekuan etxe orreri tellatua emoten, baiña etxe orretan ezingo ebela euki abelgorririk ez bestelako abere andirik, eta bakar bakarrik txakur bat, asto bat eta txarri bat euki eikeezala bertan.

Gauza bakana iruditu eragin lei mugaketa orrek, baiña beti be jauntxokeri baten lotuera bat zan, menpean euki naia, azken baten txikikeria, baiña zitalkeria.

Etxe au jausi egin zan 1670 urtean eta oraingoan Markiña'ko uria esku zabalago agertu zan. Baimena emon eban toki berbertan etxe barri bat jasoteko sakristauarentzat. bearrezko izango eban neurri, anditasun eta gaitasunez.



BEKOBOLU'KO ZUBIA

# XEMEIN'GO PARROKIA, URIA ETA PATROIAK

Markiña erri biargiña izan da beti.

Lurrez eta bizi-lagunez txiki, baiña erriz jator. Lanetik, biarretik bizi izan dan erria.

Lengo gizaldiaren asieran entzute oneko lege-gizon ospetsu bat bizi zan bertan: Anton Astarloa. A be irizpide bardiñeko zan.

Jakiña da Xemein'go parrokia, bertako patroitzari buruz, beti izan dala nastetsua. Patroi altsuak, gangordunak egozalako bitartean: Barroeta eta Ugartetarrak.

Esateko endaz etorkioen patroitzari itsu-itsu eutsi nai, nai ta eurak sarri alkarren zirri-tirrika ibili. Itsukeriz, edozelako uzkeriakaitik, alkar ikusi eziñez sarri.

Eta gero, Markiña'ko udala be, bere ustetan eukazan eskubideak zaindu nairik.

Eskabide oneik zirala-ta, auzi gogorrak egon ziran. Baiña ez ziran beti eskubidetzat ezagutu nai izan Markiña'k berekotzat aitatzen ebazanak.

"Patroiak" uriko udalagaz sartzen ziran. Eta orrelakoetan gertatzen dana, ainbeste asarrez gogaituta, gizon-on lakoen batzordeak sortzen ziran. Orrelako baten Kofradietako alkate edo buru ziranak euren irizpidea emon eben 1455 urtean.

Baiña Markiña'ko uria irizpide orren aurka jarri zan asieratik eta gora jo.

Markiña'k errazoi bat erakutsi eta aintzat artzeko eskatzen eban: Erriaren irazpeneko kartan, fundaziñokoan, garbi agertzen zala Xemein'go Andra Mari eleizako patroitzako eskubide edo jaubetasuna emoten jakola. Eta eleiz orretan meza entzun eta eleizak eskeiñi eikian guztia artzeko eskubidea emon eutsala erri lez agiri orretan, Markiña'ri Bizkaiko Jaunak emoten eutsazan eskubideen artean.

Berak ordutik eukala eskubidea, eta ordez Barroeta eta Ugertetarrak denporaldi batetik artu ebela eskubide ori eta berari lotuta jarraitu nai.

Patroiak esaten eben, erria sortu eta bereala, markiñarrak eleiza orretako arduradun edo patroi ziranei eskeiñi eutsezala

euren amarrenak eta beste lotueren erantzuna, eta oraingo patroiak lengoen oiñordeko lez jarraitzen ebela patroitza ori eroaten.

Gaitz zan euren artean ondo ulertzea. Eta 1455 urteko akordua balio barik geratu zan.

Asi ziran barriro konponbide bat billatu naiko alegiñetan. Eta orretarako Ganboa tar Juan, Barroeta'ko Juan, Adorriaga'ko Lope, (bañez de Bilbao tar Peru eta Meabe'ko Martin aukeratu zituen, auzia aztertu eta erabagiko eban batzordetzat.

Aukeratuak anaitasuneko batzorde lez agertu ziran, alderdi batetik Markiña'ko agintariak eta bestetik Fernan Ugarte eta bere legezko emazte Marina Gorostiaga'k eta Barroeta'ko Martin eta bere legezko emazte Leonor Olaso'k emondako aginpide zabalez.

Oneik zentzuz eta gogoz artu eben euren zeregiña, eta itxura baten danak poztu naiko urtenbide bat billatu. Danekaz ondo konpondu eta geratzeko asmotan, zati bitan egin eben patroitzaren duintasunaren banaketa.

Erdia, osorik, Markiña'ko Udalari, au da, Markiña'ko erriari ezagutu eutsen.

Beste erdia, erdiz banan, Ugarte eta Barroeta etxekoentzat.

Orrez gain, patroi bi oneik eleizatik urbil eukezan torreak, etxe indartuak, indarra galdu egiela agindu eben, eleizaren serbitsuari buruz jarduten zalako, eta euren etxeak lurreko indar-zaletasunetik aske geratuta, eleizaren mesedean obeto gelditukо ziralako.

Markiña'ri, patroitzak erakarrezan lagungarritzat, Barinaga'ko lurrak emoten ebena orretarako erabiltea baimendu eutsen.

Eun eta ogei ta bost eguneko epea emon eutsen erabagiok beteten asteko, azken au patroi biei egokiezan arazoetan.

Itxuraz patroien etxe biak, Ugarte eta Barroeta'k ontzat artu eben erabagi ori, baiña beste erdia beretzat lagaten eutsen patroi nausiak, au da, Markiña'ko uriak, ez eban ondo ikusi. Markiña bereala asi zan esaten berak patroitza osua eukala, don Tello Bizkaiko Jaunagandik artutako nortasun eta duintasunez, eta besteak aberatsak eta indartsuak ziralako "jaubetu" zirala patroitza orregaz.

Oneik. jauntxokeriaren denboretako eragiñez, fede txarreko setakeri eta arrapaketaz jaubetu zirala patroitza orregaz. Eta jatorriari bere itxura ona emoteko, garbitasuna eta fede onez jokatzea eskatzen dala.

Gizon-onen zeregiña beteteko aukeratu zan batzordearen erabagiz, Markiña'ko uriak ontzat artu ezarren. Errege Katolikoak ziurtatu ebin eben erabagi ori.

Ezin ukatu orretan jaun-etxe bien ukondoak bere eragiña euki ebanik.



**BEASKOA'KO ZUBIA**

# XEMEIN'GO PATROITZA AIDEAN...

Erabagiak erabagi, ez uste berealako baten gauzak argitu eta zeaztuta geratzen ziranik.

Agindu eta erabagietara egun baten makurtuarren, biaramon goizalderako gangorra zutik igarten eben euren gain Xemein'go patroiak. Onetan bardin zan Barroeta nai Ugarte edo ta Munibe ta Markiña'ko uria deitu.

Batak besteari ez ekian parkatzen.

Esateko 1627 urtean, bakeak eginda egozalakoan, Munibe'ko jaunak, Martin'ek, Xemeingo parrokiko patroitzaren erdia berega-natu eban bere arerio izan zan Ugarte'ko Gonzalo'gaz euki eban auzian.

Urte onetan Markiña'ko uria be Ugartetarren aurka agertu zan, esanez, patroitza ori jauntxoen denboretan lapurtuta eukela. Ez ori bakarrik: Munibekoen aurka be jarki zan bere ustez patroitza ori ez zalako erregeetatik etorkien eskubidea, Markiña'ko uria sor-tueran don Tello Bizkai'ko jaunak eta markiñarrak egin eben zer-baiten ordezko tratu batetik baiño.

Oraingo onetan Barroetatarrak ukatu egin eben patroitza erre-ge eskubidezkoa izatea, Bizkaian erregeak aiñako eskubidea eukelako sortze eta irazpenetan bertako bizi-lagunak.

Oraiñarteko auziak nastetsu, zital eta burrukalariak izan ba ziran oraingo au be ez zan makala, geienbat bertan aldi aretan entzute andiko gizonak sartu zituelako ziñaldari eta lekukotzat.

Orreitariko bat Ziarrotza'ko Abata entzutetsu eta ezaupide andiko zan Diego lrusta izan zan.

Bere autorpena au izan zan: bere ustez Xemeingo patroitza errege eskubidekoa zala, patroitza ori Markiña'ko sortzailleak Uriari itxi eutsalako. Ba ekiala patroitza ori 1490'ko erabagia ezke-ro Markiña'ko Uriak eroiala erdia eta beste erdia Ugarte eta Barroeta etxeak, baiña oneik, uria jaubetu baiño lenago, bien arte-an erdiz-bana eroaten ebela, Errege eskubideko lez.

Aztertzen ibili zan epaikari baten esanetan, Simancas'eko artxi-buko paperetan garbi agertzen zala patroitza ori errege eskubide-koa zala. Eta ori bai, autortu eban, Barroeta eta Ugarte etxeak beragaz jaubetu ba ziran be, indartsu eta altsu ziralako, indarkeriz

jaubetu zirala patroitza orregaz.

Ez zan uste orretan bakarra izan lrusta Abata.

Beste lekuko batzuk be irizpide bardiña agertu eben; baiña Ugarte eta Barroeta'ren aldekoak be euren arrazoiak agertzen zituelako, parkatu egin eutsezan Munibe'ko Martin'ek egindako eskabideak.

Eta ezin esan, oraingo au be euren arteko alkarri ezin opa eta ezin ezaguturiko barru txarrak sortu eragindako azken auzia izango zanik.



BEKOBENTAKO IKASTETXEA

# ILLERRIA (KANPOSANTUA)

Italian, Genova'ra joaten diranei, ango kanposantu "aberatsa" ikusgarri dala esaten dautse ta asko dira bertara osteratxu bat egiten dabenak, ez illen oroitzaz, pitxi eta edergarrien ikusmin baiño.

Nik, benetan. ango aberastasun ea arte eta edergarri guztiak baiño, naigo dot Gipuzkoa'ko Apozaga bateko bake, garbitasun eta nasaitasuna.

Jakiña da gure illobiak, len, parrokietand egoten zirala.

Etxearen geigarri lez ezagutzen ziran Esan be egiten da illobi orreik etxearen osotasun zirala, eta askotan. gure amaei etxeko zeregiñak baiño ardura eta lotuera geiago emoten eutsen.

Eleizetan egindako illobiak banatzeko agirietan garbi ikusten da otxeko luzetasun edo jaubetasun ori. ondarroa'n, esateko, 1767 urtean egin zan parrokian egin ziran illobien banaketa, eta euren zerrendan ,Galletekoa, Andonegikoa, Goxenengoa, Likoa-koa...orrela asten daba ia berreunen jaubetasuna. Familienak.

Gero, jakiña danez, 1787'ko legeak agertu ziran: Illerriak, kanposantuak egiteko aginduak, eleizetan lur emoteko oiturak kendu eta aldatu eragiñaz, Osasunaren aitzakia ipinten zan orre-tarako.

Agindu orreik euskalerrian ez ziran ondo jausi. Nai ta ez oitu-ra jarraitu naia agertu zan. Norbere guraso edo familikoak eleiza-ti k kampora lurperatzea diabrukeri zan. Eta parrokietako ardura-dunak estu ibili ziran erri batzutan. Bakio'n, bat aitatzeko, ango parroko zan Barturen jauna estu erabili eben eta ez eban beste erremediorik euki bikariotza laga eta eskutatzea baiño

1783'en Errege agindu bat zabaldu zan: Gaindu eziñiko zail-tasunik egon ezik, eleizetatik kanpora egiteko kanposantuak eta toki aizetsuetan.

Orrez gain agintzen zan iru zatik ordaindu bear ebela egitura ori, eleizetako fabrikak dirurik euki ezik: Amarrenak artzen zitue-nak, ezeukientzako egoten zan dirutzak eta errietako udalak.

Alaz eta urteak igaro ziran aitzaki, asarre eta ukapenetan.

Markina-Xemein'en 1811 urtean ezagutzen dira illobi barri batzuk, gaur kanposantua dagon tokian. Orduan, oraindik orma bakua zan, eta ormak egitea agindu eben Markiña'ko Udalak eta Xemein'go eleizako patroikide ziranak.

Illerriko egitura nausia 1850-1851 urtetan egin zan.

Gure denborak arte obiratzeak lur errazuan egiten ziran, eta banakak ziran euren illobi jasoak, lurretik gorakoak, eukezanak.

Esateko Zabala, Arrillaga, Alonso eta Peñaflorida'ko kondearena.

Gaur, lurretik gorako illobiak ugaritzan duaz.

Kanposantu onen egituran klasiku barri deiturako erabidea, tankera igarten da eta ezagun da bertan inguru onetan entzutetsu izan zan Mariano Laskurain'en esku eta irudimena.

Gaur illerri au, monumentutzat etsita dago eta orrelako egiturak agintzen dabena zaindu bearreko da bertan.






PROPIEDA
ASPE
R I P

# AUGUSTINDAR SERORAK, BEATAK

Antxiñatik ezagutu izan zan seroretxea Markiña'n.

Paperetan irakurri daitekenez 1543 urtean sortu zan. Jakiña, garai edo aldi aretako oitura eta bizikeran. Gero, ordenak zabalduaz batera, augustindar monjaen nortasuna artu eta alaxe bizi, 1846 urtean Mari Josefa Agirre Amalloa il zanean, bizibide orreri itxi arte. A izan zan esateko azken serorea.

Itxuraz bertako serorak, monjak, neskentzako irakaskintza be euki eben.

Lenengotan etxe txiki baten egon ziran. Markiña'ko sarreran, Durango aldetik etorrita. Egon be Durango'ko Augustindarren nausiaren ardurapean egon ziran.

Gero, Merzedeko monjak euren etxea itxi ebenean, edo obeto esanda, Abesua'ra aldatu ziranean, areik erabili eben etxea artu eben, bertako patroi zan Juan Andonaegi eta Bidarte'k eskeiñi eutselako.

Orrela, 1667 urtean aldatu ziran etxe aretara. Iñor be ez ei zan konturatu etxe aldaketa egitean. Ixilik, gauez egin eben. merzedekoak egin eben antzera. Gauza astun batzuk eroaten lagundu eutsen lagunak ezik, iñork ez ekiala.

Andonaegi patroiak lengo merzedetarren etxean eukazan eskubideak itxi eutsezan monjaei. Ez ain garbi, bitartean ba eukelako etxeagazko auziren bat, baiña patroiak eskuak garbitu zitun, monjaen kontura itxita gertatu eikean auziaren konponketa eta ondorena. Berak Malaga'ko etxe batetik eukan 150 errialeko errenta monjaei eskeini eutsen.

Monjak, euren aldetik, betirako patroi ezaupidea agindu eutsan, bein bertan barruko monjatzat geratzen ziranetatik asita. Eta bertan eukiko eban illobia, bere armarri ta guzti. Eta bertan baita patroiak oiturazko eben jarleku nagusi eta berezia.

Jakiña da 1790 urtean amar monja bizi zirala bertan. Eta inguruetan zintzo entzute eta ospea eukelako, etxe askok euren alaben eziketa euren kontura lagaten ekien.

Patroiak beretzat zaindu nai izan eban eskubideetako bat au izan zan: Dote bako monja gai bat barruan sartzeko aurkeztuteko eskubidea. Onek ez eban esan nai gaiñerako lotuera barik sartu-

ko zanik. Sarrera eta profesako eskubide guztiak ordaindu bearra eukan, bai eta janari, jantzi eta beste monjak ordaindu bear zituen oiturazko ordainketak be.

Baldintza onetan egoten zan monja patroi eta kapellau artean aukeratzen zan, eta a ilten zanean, bere ordezkoa patroiaren senitarteko izan bear zan, beti be senitartekorik urrenekoena. Orrez gain Eguen Santu egunean, Monumentuko giltza be patroiak erabili bearko eban eta berak, egun orretarako iru libra argizari zuri emon bear izaten zitun. Eta patroiaren edo bere emaztearen eriotza gertatzean, monjak beartuta geratzen ziran dolumiña emonagaz batera, ordezkoari lauren firmakin, patroitzat ezagutzen ebela idaztea eta illeta egitea, illobi gaiñean gurutza eta argi bi ipiniaz.

Orren ordez patroiak eta oiñordekuak konbentuari 100 erria) emon bear eutsezan.

Patroiak, bere aldetik, monja baten abitu artzean, beste monja guztiei lez, eskupekoa emon bearra eukan, eta bera egon ezik bere semeak. Eta ori bertan egotea gertatzen jakon edozein alditan.



# NOIZTIK DAGOZ MERZEDEKO LEKAIMEAK MARKIÑA'N?

Gaur lez Markiña-Xemein uri bakar ezagutu ezkero, erantzuna XVII garren gizaldian zeaztu bear.

Baiña Xemein eta Markiña banatuta bizi ziran denboretara aldatu eta mugatu ezkero, XVI garren gizaldian Xemein'en Mertzedarien serora-etxe edo beata-etxea sortu zala esan bear.

Ez dakit len. Markiña'n zelan deitzen eutsen orrelako etxeei. Ondarroa'ko paperetan, Santa Klara ermitako zaindari izateko neska baten eskabidea aurkitzen da, 1541 urtean egiña. Erri batzarrean erabagi zan berari ortarako baimena emon edo ez. Eta eskabidean garbi esaten zan "beata" izan nai ebala. Ba dirudi deitura ori ezaguna zala monjaentzat. Ala gure kantu gotiku baten asieratik irakurri eta entzun lei:

Bieta santa Clara,
euskeraz argia,
zeu zara zerubetan
dontzella garbia.

Xemein'en 1547 urtean Mertzedariak egozala ziurra da. Ba dagoz ortazko paperak.

Eta Xemein'dik Markiña'ra noiz eta zelan aldatu ziran be ba dakigu.

Jendeak ez dakiana au da: Xemein'en euken etxetik iñori ezer esan eta jakin eraso barik aldatu zirala. Eta Xemein'go eleizako abadeak asarre agertu zirala, andik urten ebelako, eta Markiña'ko Udal gizonak be kezkati eta arduratsu Markiñan sartu ziralako.

ltxuraz Xemein'en etxe zarra euken. Eta etxe zarrera iñok joan nai ez. An egozanak gero ta makal eta gitxiago ikusten ziran. Ori monjen aldetik.

Markiña'ko erriak bere aldetik pentsatu eban, Abesua'ra aldatu ziran lez aldatuaz, inguru aretan etxe barri eta eleiza barria egin eta jaso bearko ebezala; eta orretarako auzo aretako etxe batzuk beratu egin bearko zirala, eta orrek erriko gizon batzuk bertatik kanpora urtetera beartuko ebazala eta Markiña makaldu edo beratu egingo zala bizi-lagunetan.

ltxura baten Markiña'ko uriak pentsatzen eban orduan aldatu

ziran Abesua'ko etxea zabaldu egin bearko ebela, inguruak artuaz, eta an egozan Zelaia'ren etxea eta Erramua'rena, Agirre'rena eta beste etxe batzuk iruntzi egingo zituela, orrelako konbentu batek eskatu eta bear dauan bakardade eta barnetegia eukiteko.

Origaitik Markiña'ko uria gora zuzendu zan, monjaei lengo etxera biurtu eragin naian.

Erriak eukazan lotuera eta bete-bearrekaz konturatzeko, esan daigun Markiña'k bere aldeko errazoien artean lurraldea jagoteko bete-bearrak aitatzen ebazala, eta euren artean "legua bi berago dagon Ondarroa'ko portu idegia aldeztuteko goikoen aginduz emon bear izaten eban gizonen prestakuntza be".

Edozetara be, Markiña bere asarrea erakutsi barik gelditu ez ba zan be, Mertzedeko monjak arnas barria artu eben toki barrian; eta bertarako eskabideak eta deiak ugaritzen igarri.

Garbi esan daigun etxe batetik besterako aldaketa, ezelako baimen barik egin ebela.

"Barru-bizitza" edo klausurako legerik ez austearren?

Aitzakitzat esan zan, larogei urte baiño geiago eroiezala Xemein'go etxe zarrean, eta baimen barik, abadiei be ezer adieraso barik, "Jaun-gurena" artuta, eta ildako monjaen azurrak be batuta, etxe barrira gabaz aldatu zirala, Ana Sarasua'k emon eutsen etxera eta an, orma egal baten, etxeko sarrera ondoan, oraindik bedeinkatu bagako aldara bat gertu ebela, eta monjen kapillaua zan Amezaga'ko fray Juan'ek esan ebala lenengo meza.

Eta aldaketa ori patroiaren aurka egin ebela eta eleizako (parrokiko) abadien kaltean.

Dirudianez monja oneik lenengotan ez ziran barruko edo "klausurako" izan. Markiñako lurretara aldatu baiño amalau urte aurrerago egin ebelako laugarren botoa, klausurakoa, len larogei urte baiño geiago orrelako lotuera barik bizi ondoren.

Markiña'ko lurretara egindako aldaketa, paperetan agertzen diran denboraldiak kontuan eukita, 1635 urtean egin zala zeaztu leike.

Uste danez, lenengotan, konbentu au Andra Mari Errukitsuaren Monastegia deitu zan.

1621 urtean aldatu eban deitura. Merzedeko izena erabilten asiaz.

Gorago esan dogunez, etxe zarrean iraun eban 1635 urteko Urrillaren 18 arte.

Urte onetan tokiz aldatu ziranean, eta eskutuan aldatu be,



iñori jakin eragin barik eta baimenik eskatu baga, asarrea ez zan bakarrik Markiña'ko udalarena izan. Xemeingoak be bardin egin eban. Eta lengo tokira biurtzeko egin eutsezan eskabideak, ez eben euren aldetik erantzunik lortu.

Gero, denporekaz, Ordena berak Araudi barria egin eban. Eta bertan azpaldiko eskabide eta premiñak ezagutu eta batzen ziran. Au da, komeni zala konbentu bakoitzak neskentzako lenengo mallako irakaskintza euki eta emotea.

Baiña ori lortzen 20 urte igaro ziran.

Askok esan leikie zegaitik ainbeste urte, lenengo irakaskintzak, aldi aretako erara, zailtasunik ez ba eukan?

Erantzuna au da: Barruko Araudiak agintzen ebala, orretarako bear zan irakaslea, maistra, barruko monja bat izatea. Eta garai aretan barrukoak kalera urteterik ez euken lez, gaitasun edo titulodun maistra bat monja sartu arte ezin eskolarik asi.

Azken baten 1917 urteko Uztaillean sartu zan maistra bat barrurako, eta oneri esker, urte aretako aulean zabaldu al izan zan eskola.

Ikastaro urterako opor oneik iragarri ziran: Gabonetan, 24'tik Urtebarri egunera; Aratuztetan, domekan asi eta eguazten eguerdirarte; Aste santuan, Eguazten santutik irugarren Pasku egunerarte eta Udakoak.

llteko iru peseta kostaten zan eskola eta bederatzi urtetik berakoentzat, peseta bi.

Gero Berriz'ko Merzedeko Misiolariekaz alkartzea lortu zan. Orrek indar berezia emon eutsan lkastetxeari.

1946 urtean zan ori.

Takigrafi, Mekanografi, Kontularitza, Etxeko ardura eta abar izan ziran orduan emoten asi ziran ikasketa barriak.

Baiña lrakaskintzak ekarren etenbako aldaketa eta aurrerakada ikusiaz, markiñarrak be Emakumeentzako Langintzari buruzko Batxillerraren premiña ikusten eben.

1964 urtean asi ziran ortazko ikastaroak.

Orretarako lkastetxea anditu eta barriztu bearra egon zan. Eta arrezkero gure lurraldean egon diran aldakuntzei jarraitzen aitzakirik ez dau euki lkastetxe onek.

Gaur Gotzaitegiko lkastetxe lez eratua dago eta gure eziketan agertzen diran aurrerakuntza eta aldaketei eutsi ta bide barrien bildur barik ekiteko asmotan.

Markiña eta inguruak milla mesede artu dabe Merzedeko Monjen lkastetxe oneri esker.



# KARMELDAR FRAILEAK

Karmeldar Ordenako bigarren konbentua da, Bizkaia'n, Markiñakua.

Nekez lortua.

Trabak eta ostopoak bitartean. Orretan alegin gitxi ez eban egin beste fraile-Ordena batek, frantziskotarrenak.

Oneik esaten eben eurak Aita Santuaren Bula bat eukela. Bula orretan eskubidea emoten eutsela, len eurak etxerik sortuta euken tokietatik bost leguatara (ogei ta bost kilometrotara) beste barri bateri baimenik ez emoteko.

Eta eurak or euken Elgoibar aldian sortutako etxea.

Markiña'n, sartu nai eben karmeldarrak, erria euren alde euken. Bai erritar esku-zabalak be.

Peñaflorida'ko kondea zan Iñazio Munibe'k, bere aita Martin Munibe Egino eta Aranzibia il zanean, zazpireun dukat emon zitun konbentu barri onen sortzerako eta beste ainbat ondasun, onein artean:

lñazio Ugarterena izan zan etxe bat eta zortzi ortu ta erdi.

Beste ogei ta bost ortu ta erdi.

Beste lau ortu.

Gaztain eta intxaur ol zabaletan laureun estadu.

Konbentuko tellatuak alkartzeko iru milla teillazka.

Markiña uriaren gaiñaldeko mendiko tellerian egoan egurtza.

Zentzu azkatutako milla dukat.

Beste milla eskudo zidarretan eta Asorinzabal etxearen balioa, beste milla eskudo inguru balioko ebana.

Frantziskotarrak bi irutan gora joarren, karmeldarrak ez eben etsi eta azken baten lortu eben zabaltzea.

Orrelakoetan fraileei ipinten dautsezan baldintzak bardintsu izaten dira toki guztietan.

Udalak, bere aldetik, au: Konbentuak ez ebala patroi berezirik eukiko, udala besterik. Eta erriko alkatea izango zala danen gaiñetik bere leku berezia bertako eleizan eukiko ebana. Or ikusten da Xemein'go parrokian patroiekaz gertaten zanagaz erreta egoala erria.

Beste baldintza bat: lñoiz amarrenak ordaintzen etorran baserrien bateko jaubetasuna euren eskuetara aldatzen ba zan, amarren orreik len ordaintzen eben tokian ordaintzen jarraitu bearko

ebela, eta orretan ez orain eta ez gero, ez ebela eskubide berezirik lortuko.

Xemeingo parrokiaren aurrean beste lotuera au agindu eben:

Illetetako (enterruetako) eskubiderik ez ebela sekula eskatuko.

Konbentuko ormen barruan geratzen ziran ortuen eskubideak besterik ez ebela eurentzat eskatuko.

Eta beartuta geratzen zirala urteko Xemeingo parrokian sermoi bi doan emotera. Sermoi orreik Dagonillaren (Abustuaren) 15'koa eta Abenduaren zortzikua izango ziran, au da, Jasokundeko Andra Mari eta Sortzez Garbi eguneko lez ezagutzen diran jaietakuak.

Konbentu barriaren sortzeko eguntzat 1691'ko Otsailla'ren bigarren eguna izentatuta geratu zan. Ain zuzen liburu au agertzen dan urtean irureun urte.

Gero etxe egitura eta eleiz egitura eta abar, ez ziran amaitu 1724'ko Andra Mari egunerarte (15-VIII). Egun onetan bedeinkatu zan Eleiza barria eta Udalak jai bereziak eratu zitun ospatzeko, argi, dantza eta zezen txikiak tartean zirala.

Konbentua, eleiza eta etxez andia da. Bere eleiz aurrea, Naparroa'ko Joakin deunaren izeneko barrutiko fraileak daukezan konbentuetatik ederrentzat etsiten da.

Politika goraberetan euki zituen fraileak astiñaldi ederrak. Alaz eta Markiñako erriak beti lagundu eutsen maitasunez eta gogoz.

Ala 1808 urtean, konbentuak kentzeko agindua egon zanean, Markiña'ko udala izan zan eskatu ebana konbentuko eleiza parrokiaren laguntzalletzat geratzea, askorentzat Xemein'go parrokia urrun egiten zalako.

Eskabide orreri esker konbentuko zati bat zela-ala zaintzea lortu zan. Konbentua bera emen egozan frantzetar gudarien kuarteltzat geratu zan. Oneik ortuaren zati bat saldu eben, "ormaz sarratuta eta etxea joten egoan ortua", bai eta beste tresna batzuk be. 1811 urtean zan ori.

Egoera baretu zalakoan, Anai arteko gerra amaitu ondoren, fraileak beste astiñaldi bat artu eben: 1839'ko Irailla'ren 16'ko errege aginduak konbentu guztiak kentzea agintzen eben, korteetako erabagiz.

Orren ondorenez konbentuko zeregiñak eten eta etxea eskola, ospital eta guardi zibillen kuarteltzat geratzen zan.



Azken bdten 1868 urteko Lrege dekretuz lortu eben fraileak bertan bizi al izaten astea, baiña baldintza bat ipini eutsen: ltxasoz beste alderako Misiñoetarako lkastetxe bat sortzea.

Orrela ingurutako etxeetan edo erbestean sakabanatuta bizi ziran fraileak, barriro bertaratzen eta konbentu bizitza egiten asi ziran 1868'ko Udako Andra Mari egunetan.

Egon ziran geroago be konbentuen aurkako eragiñak, batez be politika goraberetan sortzen ziran aize zakarretan. baiña karmeldarrak beti euki eben euren alde Markiña'ko udal eta erriaren on ikusi eta maitasuna eta orrela gaur-arte jarraitu.

Zoritxarrez gaurko giroa, batez be fraile bizitzarako deietan, benetan otz eta ezezkorra da, eta gaurko buruausteak ortik sortzen dira, ainbeste bizitasun euki eben etxe oneik. gaur barruko serbitzurik bearrezkoenak ezin betetera eldu dirala.

Konbentua sortu zaneko irureun urte gogoratu dira aurten. Eta etxean bear-bearrezko barriztapen batzuk egin ba dira be. markiñarren serbitsuan dagon eleizan gaurko bizibideak eskatzen dauan egokitasuna ipini eta eskintzen alegindu dira fraileak, markiñarrengandik lortzen daben abegi ona, euren mesedean biurtuz.







# KARMELDAR MONJAK

Eun ete bat urte bete dira liburu au agertzen dan urte onetan Markiña'ko torretxe bat, Artibai torretxea, karmeldar ordenako monja "sarratuen" konbentu biurtu zala.

Eleizan bertan irakurten da zeiñeri esker sortu zan: Bitor Munibe eta Epifania Argaiz, Peñafloridako kondeak.

Onetan esan leike, sortze onetan andreak bere senarrari lekua egin nai izan eutsala gerokoen oroitza eta esker onerako.

Konbentuko Eleizan dagon illobian, erderazko esaera au irakurri leike: Emen datzaz Peñaflorida'ko konde izan ziran Bitor Munibe eta bere emazte Munibe'ren Epifani Argaiz'en gorpuzkiñak.

Senarra, Bitor, 1874 urtean il zan. Epifani 1889 urtean.

Bata eta besteak ez eben konbentuaren sortzeko ospakizunik ezagutu.

Berreun urte aurretik karmeldar fraileak bertan egonda, bidezko zan oneik Markiña lako erri baketsu baten euren Ordenako monjaei tokia billatzea.

Luis Baraiazarra'k agertutako lan baten (Garaian, 6) irakurri daitekenez, Markiña'ko seme zan Pedro Jose Alkorta karmeldarra izan zan asmo ori artu eta burutu ebana eta Peñaflorida'ko kontesa alargunari jakin eragin, eta onen biotz eta esku zabaltasunari esker, bere guraria betetea lortu ebana. Kondesa alargunak, borondaterik onenez eskeini ebazalako fundaziño onetarako bearrezkoenak: torre etxea eta ortua.

Eta orretarako bear izaten diran baimen, konponketa eta abar lortu ondoren, Avila'ko Konbentu Nagusitik etorri ziran sei monja, euren burutzat jaiotez getariarra zan Ama Luisa Arakistain etorrala. Ama deitzen diran bi etorri ziran, iru koruko eta "lega" bat. Sortzeko eguntzat Ekainilla'ren 14'a zeaztuta itxi eben. Markiña'n "beko monjak" lez ezagutzen dira.

Sei etorri ziran sortzera eta gaur konbentuetarako deiak larrialdi unea dauken denbora onetan, amasei dira.









o

# KOBAK

Koba andi eta sakonak izan ezarren, inguru onetan ainbat lekutzen dira.

Bizkaiko Espeleoloji taldeak zeaztuta daukaz batzuk. Gernika'ko taldeak beste batzuk.

Guk euren zeaztasunak emon nai doguz, ortan zale diranak ezaugarritzat euki dagiezan.

Deitura bakoitzaren argipen ondoren jarten doguzan zenbakiak, Bizkai'ko Espeleoloji taldeak 1985 urtean argitaratutako "Bizkaiko Haitzuloen Katalogoa"k bakoitzari ipini dautson zenbakia dira eta bigarrena liburu orretako zein orritan dagonaren adierazgarri.

Agertzen diran zuloen izenak, batzuk **koba** deitureagaz eta besteak **leizie** gaz oneik dira:

Axpe,
Basaibar
Gabaro I eta ll.
lbaseta
lturriko koba.
Kanterazar.
Karkabetako leizie.
Kobaua (soilik) eta I eta ll.
Lezan.
Motz arriolakua.
Osolo.
Otelar.

**AXPE.–** Atxondoa auzoan, Markiña'tik Lekeitio'rako bidean, Axpe baserri-etxearen inguruan, etxe berberak emoten dautsala izena. Neguan ur-sormena igarten da bertan, eta udan agortu egiten da



**GABARO**

Sifoiraño 400 metroko bidea dauka. A.D.E.S. Gernikar taldeak aurkitu eban 1982 urtean. (200-57)

**BASAIBAR.** –Markiña'tik Etxebarria'rako bidean, Munibe jauregiaren atze aldetik sartu, zubi txiki bat igaro, eta zulatutako aitz baten Andra Mariaren irudia sartuta dagon lekuraiño urreratu. Bere egaletik zear joanaz, leiza txiki baten sarrera aurkitzen da. Sei metro inguruko luzera dauka.

Bere azpia buztiñezko ondar eta erreka arrizkoa da. (837-174)

**GABARO I**

Etxe onetatik eun (100) metrotara dago, Atxoandoa auzoan, Igotz mendian. Ba dagoz oneri buruzko kontakizunak, antxiña lamiñen toki lez iruditauk. Larogei ta bost (85) metro inguru daukaz. Sarrerako sakontasuna, zulo antzera, amaika metrotakua da. Aoak 8 metroko ingurua. (201-57)

**GABARO II.**

Izen berbereko etxetik 200 metro ingurura dago. Etxetik gorantz doan bideari jarraitu, zelai batera eldu arte eta zelaiaren amaieran zabaltzen da leiza. Be ta goi metro biñako aoa dauka. Sakonean amalau (14) metro. (598-130)

**IBASETA.-**

Izen onetako baserriaren inguruan dago. Txikia da. Markiñatik Lekeitio'rako bidean, 51-52 kilometroen artean. (288-74)

**ITURRIKO KOBA.** –

Urberuaga'rako bidean, arriolen azpian dagon errepideko zubian, Artibai ibaiaren eskuma aldean.

Ibaian bera, ur-sormen lez agertzen dan sartara edo inzirritu bat dago. Eta berrogetamar metro (50) berago dago zulo onen sarrerako aoa, 1x2 metrotakua. Ur-andietan ur-sormen lez agertzen da. Irugoei ta amasei (76) metrotako ingurua dauka. (1631-292)

**KANTERAZAR.–**

Onen aipamena egiten da geiagoko zeaztasun barik. (329-81)

**KARKABETAKO LEIZIE.**

Ibaseta baserritik arriolara joanaz, kanterara joanaz, Karkabetal deitzen dan tokian dago. Ao estua dauka: 0,70 x 0,35. Sakonean amar (10) metro. (1630-292).

**KOBAUA.**

Markiña'tik Lekeitio'rako bidean, Santa Eufemi'ra kantera gaiñetik joan, Arrate baserrira eldu arte eta andik gora, beste ogei minututara dago. lrurogei ta amar (70) metro luze. Ba dauka kondaira aurreko gune oargarri bat. (91)-32)

**KOBAUA I**

Antxiña berun meatz-toki izan ziran lekuetan dago. Sakonean berrogei ta amabi (52) metro daukaz. Sarrerako aoa 10 x 5 metrotakua. Ogei metrotara meatz-toki bidea dago. (1.311-255)

**KOBAUA II**

Lengoaren inguruan ba dago beste zulo bat, muna baten beste aldean. Zortzi (8) metro daukaz sakonean. Sarrerako aoa (2 x 1) (1.312-255).

**LEZAN KOBA.**

Lezaran baserrira duan bidetik, bertara eldu baiño len, amar metrotara. Axpe'ko lezetik, zuzenean, eun eta berrogei ta amar (150) metrotara eta onen errezetik zortzi (8) metro gorago.

Uraldietan ur ugari urteten da bere aotik. Sarrerako aoa 1 x 1 metrotakua da. Amazortzi (18) metro inguru sakontzen da. (1630-292).

**MOTZ ARRIOLAKO LEIZIE.**

Arretxiñaga'ko ermitaren inguruan asiera daukan burdi bidea artu eta elektra-indarren zutoi bat igarota, eun (100)metro aurrerago dago leize au, esandako bidearen ezkerretara. Sarrera metro bi zabal eta 1,30 goi.

Zalakarrak. ondakiñak zeari arri biurtutako egoera bat da. (290-74)

**OSOLO**

Santa Eufemi mendiaren oñetan, Erdotza baserriaren aurrez-aurre. Antxiñako kontuetan entzun eta irakurten dan koba. Sarrera bi daukaz. Bat urteera zar eta antxiñakoa deitu leikiona. Berrogeitamar (50) metro igaro ondoren, ur geldien laku baten amaitzen da. Beko sarreran auzoko baserritarrak urarka bat egiña dauke. (27-62)

**OTELAR**

Au be lbaseta baserriaren inguruan dago. Baiña beste zeaztasunik ez da emoten. (289-74)

Markina-Xemein I liburuan agertu genduzan, aldi baten Bolibar, gaur Markiña'ko lurretan dagozan beste sei koba edo leize zuloen zeaztasunak, au da, Amotoko Señora'rena, Astarloa I, II, III eta IV eta Galinduaga'renak.

Kobaetako ipuiñak.

**GABARO'KO GAU DANTZAK.**

Bein Gabaro inguruan neska mutil bi ebiltzan. Txikitxoak eurak, baiña jakin-miñez.

Alako baten aize burrunbada lakoa sentidu eben. Ezin eben sinistu berealako baten agertu zanik. Euren aurrean, jantzi zuri eta txotadun neska eder bat agertu zan.

Arein larrialdi eta estutasuna. Alkarri begiratzeko adorerik be ez eukela geratu ziran. Aurrean eukena Lamiñea zan.

Igarri eutsen neska arek ikaratuta egozala. Eta esan eutsen: Ez zaiteze bildurtu. Goi oneitako Maitagarria naz. Ez dakit iñori kalterik egiten. Zuek lako neska-mutil gazteen kutun naz.

Baiña ezin ikararik kendu eta berbarik be ezin asmatu. Lamiñeak oraindik be: Ara, etorri zaiteze nire etxera. Sarri entzungo zenduen Gabaro'ko kobaren entzute zoragarria, ez da ala? Etorri be orixegaitik egingo ziñeen. Etorri zaiteze. Ez bildurtu.

Entzungo zenduen iñoiz pizti antzeko gareala, ez? Ortik zear guzur asko esaten da gugaitik. Ez gareala osoko izakiak, Eta antzerako ugari. Danak guzurrak. Emen mendietan bizi zareanok uste dozue askatasunean bizi zareela, munduko tokirik onenean. Guk, ostera, ez daukagu gure zuloetako bake, nasaitasun eta ixiltasuna saltzeko.

Zelan etorri zarie emendik?

Zerbait adoretuta, ain samur eta bigun berba egiten eutsen neska arek baketuta, erantzuten asi ziran:

Ain zuzen arañegun Oiz'ko mendietan gebiltzala. alako denborale itzala sortu zan. Eta antxe, zulo baten eskutatu giñan, eguraldiaren abaune bat gertatu arte, ango tximist, iñestu eta trumoien bildurrez. Eta an gengozala alako neska eder bat igarri gendun, konturatu barik, gure alboan. Eta berak, zeuk lez errukiz artu ginduzan, benetan maitetsu.

Eta ez eutsuen ezer eskatu?

Bai, orrazi bat.

Ai, enetxoak. Ba dakizue zein zan a? Anboto'ko Lamiñazuloko erregiña lakoa. Emen egon zan zuekaz egon ondoren ta ba dakit zer eskatu eutsuen be.

Arrituta egozan neska-mutillak, batez be aren berbetako

samurtasunagaz eta geiago be ikusten ebelako egia esaten ebi-llala.

Ez dozue nai neure etxera etorri.

la gaba da ta! Zer esango dabe guretan?

Bai, gaba da ta. Galdu ez zaitezen be neuk emongo dau-tsuet ostatua.

Ezin ezetzik esan, nai ta alkarri begira, sekulako kezka eta urduritasuna agertu.

Ara. Sartu. Ez naz bakarri bizi. Asko bizi gara bertan, ikusiko dozue. Danok neu lakoxeak dira. Guk ez dogu basoetako abereak lez gauaren betean iñor estutu eta zoratu-erasoko. Gu mundu zoragarri baten bizi gara...

Eta barrukaldia ikusten asi ordurako, zoragarri iruditu jakoen. Ango argi, apaindura, edertasun!

An ebiltzan lamiñak eta epotxoak alako salto bitxi ta ariñetan, etenbako musika alaiaren doiñuaren durundietan.

Gauza bat oartu eben, Oiz mendiko lamiñeak esan eutsena: Orrazia erabillela eskuetan eta orraziaren zirriztadea zala zoraga-rritasun asko sortu eragiten ebana.

Eta antxe lo egin eben neska mutillak, eurak igarri barik, berez, kezka eta urduritasunak itxi eta lo bigun, baketsuan geratu ziralarik, tartetan amets gozoen irribarreak be urteten eutsezala.

Goizaldean andik urten eta etxeruntz asi ziranean, ezin aztu eben lamiñak eta epotxoak eurentzako agertu eben bizi barri baten irudi zoragarririk eta sekulakoak konta zituen euren etxee-tan. euren guraso eta aideak be arrituta itxiaz.



**AXPE**

# ARRETXIÑAGA

Asko idatzi izan da Arretxiñaga'ko Mikel deunaren Santutegiari buruz.

Ezin ukatu idatzi diran asko ametsak ez ba dira be, oiñarri bako uste ariñak izan diranik.

Anton Trueba zanak 1871 urtean agertu eban liburuxka bat onetaz eta bere irizpide eta beste agerpenen ondorentzat, bost puntu oneitan laburtuta laga zitun.

1.–Arretxiñaga'ko arri taldea izadiaren berezko lana dala, ez gizonen eskuz egiña.

2.–Santutegi orren inguruan aitz asko dagozala Arretxiñaga'ko ermita orrein egitura bardintsukoak.

3.–Arretxiñaga'ko aitzat ez daukela ze ikusirik ez zeltakaz, ez kartagotarrekaz, ez erromatarrekaz.

4.–Arretxiñaga'ko santutegia Amaika eta Amalau garren gizaldien artean jasoa dala.

5.–Santutegi onek beti euki izan dauala Markiña inguruko bizilagunen eraspen, deboziño berezi bat.

• • ·

Ondoren ori atarateko, zer diñon Trueba'k?

Asierako gogoratzen dau Euskalerriko ermita asko jaso izan zirala batzutan tokien berezitasun edo bakantasunagaitik. Ala Urallaga'ko Madalena, Galdames'en, Kolitza'ko Sebastian deuna, Balmaseda'n; Gaztelugatxe'ko Jon deuna, Bakio'n. Eta ala beste ainbat. Eta leikela Arretxiñaga'ko au be orrela jaso edo egiña izatea.

Kezkatuta agertzen zan Trueba ermita bakan onen asieretako barri gitxi daukagulako edo dakigulako.

Arretxiñaga, edo Arritxiñaga, edo Arrutxinaga, iru era oneitan idatzita ikusten dala deitura eta etzinda dagozan arrien toki esan gura dauala. Au da, arri etziña eta gero aga ugaritasuneko atzizkia atzetik daroala, bat baiño arri geiago dirala adierazoteko.

Orra deituraren itzen banaketa eta azalpena.

Baiña ba ei dagoz bestetik jokatzen dabenak. Esateko Etzin edo Utzin bizkaiatar gerralarien gudalburu izan ei zan Oktabio Augustoren aurka jokatu bear izan ebenean.

Ortik kantu zarra:

Tiber lekua<br>
geldiko zabal,<br>
Utxin tamaio<br>
grande jo.

Utxin onen ze ikuisirik ba ete eukan Arretxiñaga'n?

Arretxiñaga XI garren gizaldi ondoren eta XIV aurreko ba da, gaitz da orretan sinistutea.

Zegaitik gaitz?

Ba Xemeingain'eko Andra Mari eleiza Xl garren gizaldian egin zalako eta uria irazi (fundatu) zanean, eleiz a erdi utz eta arrakalauta egoan, eta lapurren eskutaleku biurtuta, jemeindarrak eurentzako maiteago eben beste eleiz baten ospatzen zituelako euren eleizkizunak.

Eta ezpai barik beste eleiz au Arretxiñaga'ko zala autortzen da.

Arretxiñaga aurrez egon izan ba fitz, Xemein'go baserritarrak ez eban jasoko emen beste eleizarik.

Onek beste itaun bat egitera beartuten gaitu: Noiz agertzen da Arretxiñaga'ren edo Arretxiñaga'ko jakingarri ziur bat?

Trueba'k diño ortazko lenengo agiria 1451 urtean billatzen dala eta ain zuzen be Markina eta Xemein'ek euren artean eukitako asarraldi batekoa.

Onetan uriak, Markiña'k Arretxiñaga'ko Mikel udaleko zaindaritzat aukeratu nai eban, eta besteak ez eutsen lagaten orrelakori k. Eta agiri orretan, orduko zarrak, lekuko edo testigutzat aukeratu zituenak euren agerpenetan esan eben, euren gurasoei entzun eutsela, ez ekiela Arretxiñaga'ko ermita orren sorpeneko ezelako barririk.

Gorago esan ba dogu 1.451 urtean asarraldi bat egon zala Markina eta Xemein artean Arretxiñaga zala-ta.

1631 urtean be asarre bizia egon zan bertan.

Markiñarrak ermitarako maiordomuak aukeratu zituen. Eta xemeindarrak ikusi zituenean eleiza barruan, Arretxiñaga'n, bertako eskea batzen euren aurka jarki ziran eta indarrez galerazo nai izan eutsen eta azkenean meza-emoleak nekez lortu eban bakea egitea.

**Ermitaren barriztapena.**

1 734 urtean, ermita jausteko arriskuan egoala ikusiaz, Xe-

meingo eleiz-ateak barriztatzea erabagi eban eta 1741 urtean ba-rriro zabaldu zan gurtzarako.

Ermitaren ormak exagono eran osotuak dira. Barruan iru aitz, iru arri andi, alkarri eusten, guztira 110 oiñeko be ingurua osotzen dabela.

Mikel deunaren irudia 1826 urtean egiña da. Bere egillea Esteban Agreda, Madrid'eko San Fernando Akademiko zuzenda-ria izan zan.

Urte batzutan irudi au Arretxiñaga'tik kenduta egon zan, "ezer balio ez ebalako" batzuen esanetan, eta Merzedeko monjak euki eben gordeta.

**Gotzain bat ermita onen** inguruan.

1646 urtean Firmina'ko Gotzaiña igaro zan emendik, eta arri-tuta geratu zan ermita onen barruko egitura eta aldareagaz.

Bere esanetan, antz andia aurkitzen eban V garren gizaldian Pulla'ko gergano mendian jasota egoan Mikel deunaren omenez-ko ermita eta onegaz. Eta Kalahorra'ko gotzaiñari baimena eska-tuta, berak sagaratu eban eleiza au. Ba dago bertan egun aretako agiriaren aipamen bat.

Orrelako ermitak beti eukiten dabe kontu eta kantuetan inguru zabal bat.

Arretxiñaga'k, kantu eta dantzarako egoki dan bat dauka:

Aita San Miguel Arretxiñako
zer dogu apaitarako?
Orio aza gozo gozua
arto beroaz jateko.

Aldi baten Karmelo Etxegarai azpeitiarra zalea zan orrelako eleiza, inguru eta berezitasunetzat zerbait idazten, eta Arretxiña-ga'ko eleiza onek be sortu erazo eutsan amalaudun edo amalau-ko bat eta bere adiskide andi zan Txomin Agirre, edo berak esa-ten daben lez Domingo Agirre-joari eskiñita agertu zan.

Onela diño kantaldi orrek:

ARRETXIÑAGA

Zuri begiratzean, arriturikan,
oroitutzen naiz, arpill ikusgarriya,
nola gizon argiyak, berezirikan
dabiltzan, jakin nairik zure sustraia.
Batzuentzako zatoz ujoldetikan,
beste batzuentzako zera sutiya,

beste batzuentzako goiyetatikan
gizonaren indarrak ona jetxiya.
Baña, bakarrik or. nik dakustana da
Egille Goyenaren aunditasuna:
Ikusten dot, gizonak egiña bada,
Jainkoak eman zion argitasuna;
eta Sortitzarena. lan ori bada.
Sortitzaren Jaunaren neurteztasuna.

Karmelo Etxegaray-koa.

## Ondasunak.

Labayru'ren kondairan, 1745-46 urtean, Arretxiñagari buruzko aipamen bat egiten da. bertako ondasunak zeaztuaz.

Urte aretan, 1745'n, ermita onek jaubetasun, ondasun eta gitxien artean oneik euzkazan:

Eun eta berrogetarnar dukateko zentzu bat. euneko 7 1/2ko mozkiñean. 1667 urteko Maiatzaren 17'ko agiri baben agertzen danez.

Pitxi biribil bat. 75 esmeraldaduna. Bere balioa: amabost errialeko eun eta berrogei ta amar eskudo.

Zidarrezko argiontzi bat. 187 ontza pitxatzen dauana.

Lau kandelari andi eta txiki bi. zidarrezkoak, danetara 408 ontza pixatzen dabenak.

Azafata edo otzaratxu bi. zidarrezkoak, 27 ontza ta erdi pixukoak.

Kaliza bat. biñajera ta azpikoa, danak zidarrezkoak, urrezgainditualk.

Kaliza bat, biñajera ta azpikoa, zidarrezkoak, urrezgainditu barik.

Kasulla bat. damasko-zuria. beste bardintsu bat Holanda'ko kolorez, beste damasko-gorridun bat. alba bi, amito bat eta meza liburua.

## Geologi ikuspegiz, zelan sortua da Arretxiñaga?

Arretxiñaga'ri buruz lan bat egiña dauan Pilar Valle Lersund'k, toki onen sortze eta egitura dala- ta. irizpide oneik emoten dauz:

Lengo gizaldian eztabaida asko egon ziran orretaz.

Gizonak egiña ala izadiaren (naturaren) agerkari ta fenomenu at eta zan.

Navarro Villoslada'k 1876 urtean esaten eban, emen atzekoz aurrera edo goikoz bera gertatu dirala gauzak, ez dalako aoia suarria kare-arrien gain geratzea, bestera baiño. Ori orrela gertzeko sumendien jalgiduren bat gertatuko zala, edo ta ugoldetako erasoen bat.

Bere ustez ez egoan inguruan izate eta kaliadade orretako aitzik, eta orrek oraindikgeiago zailduten eban bere azalpena.

Gizon irizpidez be ez da aurkitzen erantzun jatorrik.

Amador de los Rios'en esanetan, euskaldunak jasotako arriandizko oroitarri megalitikoa da, antxiña zeltar oroitarri megalitikoak jaso izan ziran antzera.

Trueba'k berezkotasunez inguratu nai dau gertaera au, antzerako aitzak Arretxinaga'n geiago be ba dagozala esanaz.

M. Saralegi'k arriandiak berez sortu daben oroitarritzat dauka, eta Mugartegi'ren esanetan Arretxiñaga'ko aitzak izadiaren eragiñen baten bakartuta geratuak dira.

Fenomenu onek gaur be ba dauka bere azalpena, kontuan eukiten ba dogu erasoaldi sakon eta gogor bat egon dala ur berotan eta orrek aldakuntza bat ekarri duala kare-aitzetan inguru onetako ainbat lekutan (Azpeitia, Markiña, Ereño).

Eta erasoaldi onek erakarri dau baita ainbat su-arri, siderita, barita-arri eta abarren zerroetako egitura.

Kare-arrien izateak ea su-arriak dauken igadurarako zailtasunaren ondorena da su-arrik azalean geratzea Mutriku'n, Arno mendiaren gibelean lez, azkunean osotzen, edo ta zatika jausten mendiz bera, edo ta toki berezietan geratzen, azken onetan inguruak ze ikusi asko eukiaz.

Ba dirudi auxe dala edo ta orrelaxe azaldu leikela Arretxiñaga'n gertatua: Arri tangulu andi bi, egozan aitz-artetik basoketa baten askatuta geratu eta bata-bestearen tenka eta alboratzean geratu. Tangulu andiagotik beste txikiago bat eten, soltatu, bear ba da aundi biak alkar jotean, eta orrela berezko monumentu onetan geratu diran lez, oroitarri bakan eta arrigarri bat osotzen geratu.

Pilar Valle Lersundi'k diño irizpide eta azalpen au J. Valle Lersundi'rena dala eta ikus-puntu au lortzen lagundu eutsala baita be. l. Garcia Pascual orrelako gaietan aituak.



a)



# GOAZEN MARKIÑARA

Martxa au 1883 urtean egiña da, Markiñan urte aretan ospatu ziran euskal jaietarako.

Musika egillea Felix Ortiz y San Pelayo izan zan, eta berbak Karmelo Etxegarai-koak asmatuak.

"Orfeón Eibarrés" deitzen zanak abestu eban.

Goazen anayak Markiña aldera,
goazen guztiyok kantatzen:
Begira nola Euskal-Erriyan
danak diraden poztutzen.
nola diraden alaitasunez
eta otsarez betetzen,
ikusirikan zer fest ederrak
Markiñan diran ospatzen.

Goazen guztiok Euskal soñuak
kantaturikan gogotik,
euskaldun gauzak gure kantuaz
odoyetara jasorik,
Bizkaiko zelai, aitz ta mendiak
arkitzen dira mugirik.
beren aurrean ikusten diran
fest ederrekin suturik.

Goazen agudo Markiña aldera
entzun dezagun sansoa,
ikus dezagun Lekobideren
semeen izantz osoa;
goazen guztiyok aditutzera
bersolariyen jokoa,
gure lurrean miragarriro
gorde dan jolas gozoa.

An ikusitzen diran gauz danak
dirade gure gureak,
ospatzen diran festa guztiyak
euskaltasunez beteak,
Lekobideren erri gozoan
gizaldiyetan gordeak,
lur onetako seme danentzat
egiyaz guziz maiteak.

An entzuten da danboliña ta
jotzen dituzte txistuak:
an, elurturik ille bizarrak,
dauzkaten gizon prestuak
dabiltza dantzan, aditurikan
euskaldun zarren soñuak,
ikusirikan Euskal oiturak
Feniz antzera piztuak.

Ala mendiyan dirurik gabe
bizi diraden gizonak,
nola jauregi galant batean
dirudun bizi diranak,
txit atsegiñik kantatzen eta
dantzan dabiltza dan danak
Fest oriyekin azturik beren
naigabe pena ta lanak.

# PELOTAKO UNIBERSIDADEA

Aupadatu zenduban,
au zorakeriya,
zertara ta pelotan
Markiña guztiya,
Aupada ero orrek,
Motriku esazu,
ez ditu bada beti
Markiñak auzpaztu?

Orra lengo denboretako bertso batzuk, Markiña, pelota kontuan, gain gaiñean ipinten dabenak.

Bertsoak Pedro Pablo Astarloarentzat dagoz.

ltxuraz Mutriku'tik eldutako zemai, desafioren bat zorakeritzat artzen.

Zeiñeri ta Markiñ Hiri pelotan?

Markiña'ko kondaira bat idaztean, ezin isildu pelotarik. Len pelota eskola ba egoan be, gaur Unibersidadea dago Markiña'n.

Dantza, erromeri, joko eta abarrei buruz euskeraz idatzi izan dan liburutik ausarta eta gogorrena, Markiña'ko frailien konbentuan idatzia da ziurretik.

Ez zan markiñarra idazlea. Bai auzoko. Bertako merindadeko. Fray Bartolome Santa Teresa, ala deitzen zan, etxebarritarra zan.

Liburua: "Euscal-errijetako olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba".

Kritika asko euki ta artutako liburua.

Zer daukan zer ikusi peloteagaz?

lrakurri: "Aguirico olgueetaac, eta diversinoe publicuac eragotzita dagoz Domeeca, ta jai osuetan, meza nausitaco, sermoetaco, visperetaco, procesinoeco, ta Altaraco Sacramentuban Jesus aguirijan daguan arteco denporeetan. Olgueetia, edo diversinoia inocentia izan arren, eragotzitaco demporaan bada, malezijaz jaztenda. Erri guztiaren oneraco Eleisaan cereguin Santubac eguiten diran artian, ezdau Eleisa Ama Santiac parcatuten aguirico olgueetaric".

Ori orrela, Markiña lako erri fedetsu baten, noiz jokatu pelotan?



Edozetara be Fray Bartolome ez zan ausartu pelota txartzat salatuta izendatzen.

"Esan dirian gauzeetan paltau bagaric, jocuan olgueetia ez da berez gauza chaarra. Erri batzubetan egoten dira pelota lecubac, ta bola lecubac, gentia divertiduteco. Au gauza chaarra ezda".

Bakoitzak ikusi eta erabagi ze zeaztasun emon esaera orreri: "Txarra ez da". Eta ona?

Edozetara be Markiña'ri izen andia emon eutsen abade pelotariak, edo pelotari abadeak.

Aita Donosti batek esaten ekiana: Peloteak soiñak eta arimak biguntzen dauzala.

Markiñako pelota istorian, ba dago sarri gogoratzen dan abade bat: "Laba abadea. Obe Labakoa esatea, bera jaio zan etxean ogia erreteko laba egoalako.

Laba abadea, bere denporetakuak esaten ebenez, gizon indartsu, arrigarria zan, atleta itxurako, zama-motz giartsu, kolore gorri, boxeatzaille baten itxura agertzen ebana.



Urte askotan ez eban areriorik euki pelota jokoan.

Baiña bein Eibar'ko Txikia deitzen eutsenagaz, (durangarra zan), Bilbao'n jokatu eban 1876 urtean, eskuz-esku, eta joko a betiko geratu ei zan askoren irudimenean. Ala irakurten da.

Aldi aretan Eibar'ko Txikiak amazazpi urte eta ille bi eukazan. Dabid eta Goliat'en antzeko burruka izan zala esaten da. Txikiak irabazi.

Geroago. 1883 urteko Iraillean, Euskal Lore Jokoen barruan pelota toki barriztua zabaldu zanean, Txikito au izan zan "Fakundo"gaz batean, "Txitibar" eta Vega'ren aurka jokatu ebana. Oraingo onetan galdu egin eban.

Gogoratu bear da, Txikito de Eibar lez ezagutzen zana, Indalezio Sarasketa zala eta Durango'ko "Azpiri" baserrian jaio zala 1 860 urtean. Gero, berrogei urtedun zala, Eibar'en il zan, ara bizitera joana egoalako.

"Laba"k lenengo jokoaren errebantxa eskatu eban eta Bilbao'n jokatu zan.

Orduko kronikalariak diñoenez, benetan joko gogorra egin eben, etenkorra, tanto luzeak eta tanto bakoitzean pelotariak txil eginda beian etzanda geratzen ei ziran. Ete une orretan, eskuak andi-andi eginda erabillezalako, lagunak joaten ei ziran eurekana, eta etzanda egozan tokian, eskuak zabaldu eragin eta gizon bi jarri esku zabalaren gaiñean eta orrela eskuko anditura beratu eta berera ekartea lortzen ei eben. Beti be eskumakoa izaten zan, ziurretik jokorik geiena eskumagaz erabiliko ebelako.

Isabel Erregiña Bilbao'ra joan zanean, bilbotarrak eratu zituen jaien artean, pelota jokoak ospatu ziran. Eta orretarako, eukan entzuteagaitik, "Laba" eroan nai izan eben.

Bilbotarrak ordezkari batzuk bialdu zituen Markiña'ra, "Laba" gaz berba egitera. "Laba"k ez eukala eragozpenik, baiña bera abade zala eta orrelako jai baterako Gotzaingo edo Obispaduko baimena bear ebala.

Bilbotarrak erraz ikusi eben ori eta eurak geratu ziran baimena lortzekotan.

"Laba"k partidu bi jokatu zitun eta erregiñak beregana deitu be bai zorionduteko.

Markiña'ra biurtu eta etxean baketan egoala, ara nun amabost egun baiño len Obispaduko karta bat artzen dauan, Markiña'tik Enkarterrietara bialtzen ebela adierazoten.

Bilbotarrak, jakin ebenean, alegindu ziran aldakuntza ori eten nairik. Udal batzarrean be batu ziran bere alde ekiteko. Baiña alperrik.

Gotzaiñaren itxikeria ikusita, Erregiña'ri idatzi eutsen. Erregiña, itxuraz, ez zan ausartu emengo Gotzaiñari ezer esaten, baiña bai "Laba"ri idatzi, Madrid'eko parrokirik egokiena aukeratzeko.

"Laba"k ez eban eskintza ori ondo ikusi. Bera txoko zalea

zan. Ta azkenez lortu eben aldaketa bertan bera lagatea eta Bizkaia'n gura eban parroki bat aukeratzeko eskatu eutsen.

Berak, zer esanik ez, Markiña aukeratu eban.

Gizon on eta borondate andiko izan zala, diñoe, Laba" pelotaria.

Jakin daigun, labur, "Laba" abadearen fitxa.

Izen jatorrez Jose Agirre eta Elexoste zan.

1839'ko Urrilla'ren 25'an jaio zan.

Kirolzale amorratu. Bolari eta beste edozertan beti gogotsu.

Pelotan txapeldun. "Sugarri", "Pello", "Katua" eta orduko pelotari famatuenei erraz irabazten ekiana.

Bere sakea benetan zitala izaten ei zan. Erantzuten gaitz.

1876 urteko Uztailla'ren 26'ean izan zan Eibar'ko Txikiak irabazi eutsan eguna.

Pelota istorietan gogoratzeko eguna.

## Beste abade pelotari bat

Alzibar eta Aritxuluaga'tar Franzisko.

"El Estudiante de Markina" deitureagaz ezagutua izan zan.

XlX garren gizaldiaren azkenetakoa zan.

Argentina'ra joan zan bizitera.

Onen gaitasuna, indarra eta ziurtasuna ei ziran, eta arerioa beti atzean erabiltea, joko arriskutsurik egiten itxi barik.

## "Pola"

Santa Kutz abadea, gerratean, Markiña'ra eldu zanean, beraren ikusmin urreratu jakon mutiltxoa geroago pelotari entzutetsu izango zana izan zala esaten dogu. Santa Kutz abade gerralariaren sartuerako atalean.

"Pota" au gero pelotako arduradun (intendente) lez ezagutu zan Madriden eta bera izan zan Pedro Amorós "Gordito", Genaro Arrate eta abar Madrid'era jokatzera eroan ebazana.

Eskuz eta zeztuz bietara jokatzen eban berak.

lrakurten danez, "Pola". bere denporetan, ia bera bakarrik zan pelota jokoa. Bera zan dana. Errietara eroan eikean pelotaririk onena.

Ogei urte eukazala ez ei egoan iñor berari irabaztekorik. Baiña bera baiño gaztetxuago zan Eibar'ko Txikiak zemaia bota eutsanean, alako ikarea sartu ei zan errialde guztian.

Orduan, eta orduko pelotakaz, 32 eta 34 tantutara jokatzen ei zan. Eta askotan pelotari biak etenda geratu eta ogei tantutara eldu baiño len, zeiñek irabaziko igarten ez zala, jokoa atzeratu eta bertan bera lagaten ei eben adiskidetasunez. Kontu egin librako pelotekaz jokatzen zala.

Ordurarte banan-banako jokoak ziran geienak, baiña benetan nekatu eta etenda geratzen ziralako, biñakako jokoak asmatzen asi ziran.

ltxuraz Pola'k oiturazko eban iñoren zemairen bat artzen ebanean, baietz erantzutea, baiña partidu bitan jokatzekotan. Orrelako bat izan zan Txirloia'ren aurka jokatu ebana.

Juan lrigoyen'ek bere "El juego de la pelota a mano" liburuan diñonez, bigarren jokorako bizkaitar. gipuzkoar eta napar pelotazalez bete zan Durango.

Ez zan jokorik amaitu. Pelotari biak bata amalauan egoala eta bestea amazortzi tantotara elduta partidua bertan bera itxi eban eskuak apurtuta, minduta, odoletan eukezalako.

**Jakingarrí batzuk**

Pelota euskalduna da edo ez?

Orreri, zelan artu ala erantzun.

Euskal jentillak, arri pendulekin jokatzen ei eben pelotan. orma barik. Mutriku'ko istorian an gogoratzen da Aitz-Biribil, jentillak pelotatzat erabilten ebena.

Istorietan irakurten da, geroago, XV garren gizaldian, bizkaitar batek lnglaterrako erregearen aurrean jokatu ebala Londres'en.

Olite'ko gaztelu ederrak euki eban bere barruan pelota tokia.

Ziurretik eleizak egin-ala. pelotarako orma egokiak eskeini eutsezan erriari eta areik izango ziran pelota tokirik onenak eta eskolarik ziurrenak. Eta abadeak



ERDOTZA ANAIAK

be, eleiz-aterpean, pelotan jokatzen ikasi, baiña ez euren nagusien atsegiñez.

Gogoratu: 1602 urteko Kalahorra'ko gotzaingoak, obispaduak, sinodoa egin ebanean, ango erabagietako bat au izan zan: 9 atala. Eleiz-gizonak ez dagiela dantzan egin, ez kantu lizunik abestu ez eta erriaren aurrean pelotan jokatu be.

Simon Bolibar be (Markiña'ri ikututen dautsa) pelotan ekiana ei zan.

1 799 urtean, España'tik zear ebillala, Aranjuez'en gertatu zan. Bera eta Fernando printzipea "raqueta- dalakoagaz pelotan ebiltzala, Bolibar'ek uts andi bat egin eta Erregea izateko zana buruan jo ei eban.

Aita Larramendi jesuiteak, 1754 urtean idatzia dala uste dan bere Coreografía de Gipuzkoa'n diño, pelota partiduak azpalditik bata bestearen atzean jokatzen dirala. Batzen dan jendea sinistu ezin aiñakoa dala, gizonak dirua jokatzera etorrita. Diru jokatze au zela-ala konpondu bear litzakena dala, errez izan ezkero, baiña gaitz dala, pelotan jokatzea galeraso ezik, eta ori ezinbesteko nabarmenkeria izango litzakela.

Oraindik be eleizpe eta arkupe askotan geratzen dira antxiñako iragarkiak: Pelotan jokatzea galerasoten da. Ortan dabillana errial biren isunagaz zigortuko da.

**Noiztik Markiña'n pelota tokia?**

Eleizpe, arkupe eta etxeondoak itxita, ba dirudi lenengo pelota tokia 1798 urtean egin zala. Eskuz jokatzeko.

Gero, zeztuz jokatzeko aukera edo premiña ikusi zan, "ese nuevo juego de *blé"* irakurten danez. Eta origaitik 1883'ko udan zabaldu zan ortarako gertua. Ain zuzen urte orretan ospatu ziran bertan Euskal Lore Joko entzutetsu batzuk.

Aurrez erabagi zan lenengo pelota tokia Sarkalderantz luzatzea.

Pelota toki au 66,40 metrotakua zan, 13 1/2 kuadrotan banatuta. Aurreko ormak, luzeran, 9,06 metro eukazan. Kantxako zabaleran 9,41. Eta amar milla pesetetara ez zan eldu bere kostua.

Gero 1928 urtean pelota tokia sarratzea erabagi eta egin zan. eta 1965 urtean barriztu. 54 metro daukaz luzeran eta 10,5 zabaleran.

Jendearentzako tokia, 987 lagun jarrita eta beste 300 zutunik.

Gaur, emengo pelota tokia ez da edozelakoa. Pelotako Unibersidadea deitzen jako.

Markiñarrak nortasuna emon dautse pelota jokoari eta peloteak ogibidea markiñar eta inguruko askori.

## Markiñar pelotariak

Atsegin gertatzen da danen izenak emotea. Mingarri, batzuk ixiltzea. Borondaterik onenagaz atara doguz liburuetatik lengoak. Gaurko gazteak denbora eukiko dabe Markiña goratzeko eta euren izenak beste paperetan agertzeko.

Zerrenda au asi daigun, ospetsu izan zan baten izena emonaz:

Baskaran, eskribadu zana.

Amoroto, Pedro. "Gordito". 1877'n jaioa. Pola'k eroan eban Madrid'era.

Arakistain, Luis. 1869 urtean jaioa.

Arakistain Egaña. Juan. 1902 urtean jaioa.

Arrate Jenaro. Au be Pola'k Madrid'era eroana.

Arrate, Juan. 1894'n jaioa.

Arrieta Jose Iñazio. "Iñaki". 1950.

Arrillaga Etxebarrieta, Enrike. 1947.

Arriola Salbador. 1946.

Artetxe, Marzelino. 1947.

Burgoa Unanue, Luis Mari. "Chino".

Bereciartua Marzelino. 1896.

Bereciartua Jose Luis (Semea).

Bustindui, Tomas. "Arnedillo".

Bustingorri, Roberto. "Vega".

Erdoza Ugarteburu, Ñemesio. "Erdotza II".

Garate Jose.

Garate Antonio. 1902.

Garate Ugarteburu, Eusebio. "Erdotza menor". 1889.

Garate Arrate. Juan Jose. Txikito de Erdotza.

Garate Felipe, Erdotza III.

Garate Rufino. Erdotza IV.

Goyogana Tomas. 1941.

Ibarrolaza Julián. 1910.

Ilbro Jose Ant. "Txikito de Bolibar". 1952.

Larrañaga "Chucho".

Larruskain Marzelino. 1934.
Orbea Fernando. Orbea 1.
Orbea Luis. Orbea ll.
Pello anaiak, lengo gizaldikoak.
Nola. Esku eta zeztuz jokatzen ebana. Lengo gizaldikoa.
Solozabal, Martin. 1944.

Esan dogunez, beste ainbat bertako eta ingurutatik urten dabenak, Markiña'ri ikasketarik, eskolarik, ukatu ezin dagikeenak.






# MARKIÑA'KO "DAMATXUA"

Gure zarrak umoretsuak izan ziranik ezin ukatu.

Umoretsu jokoetan, umoretsu politikan, azken baten umoretsu bizitzan. Eta umerotsu bertsolarietan.

Gaur Muxika'ko eskola aitatzen da bertsolari kontuan. Bai Berriatu'koa be.

Baiña egon zan sasoi bat, Aita Lino Akesolo'k, 1967 urtean Markiña'ko konbentuan ospatutako bertsolari eguneko itzaldian esan eban lez, Fernando Amezketarraren denboretan Gipuzkoan Amezketa nagusi ba zan be, Bizkaia'n Bilbo, Durango eta Markiña agertzen ziranak bertsolekurik aberatsen.

Eta Aita Lino'k gogoratu eban, berak "Bizkaiko andra baten izenpean 1809 urtean agertuko lez gogoratzen ebazanak, ziurtzat zeaztu eikezala zeiñenak ziran. Beraien egillea, oker andirik esateko bildur barik izentau geinke, geitu eban: Bizenta Mogel. Mogeltarren euskera usaina be ba eukelako.

Orrez gain geitu eban: Mogeldarren izenak jarten gaitu goren Markiña aldean. Eta Mogeldarren bertsoak aitatzen astean, gogoratu bear alako a:

Egun baten gaba eginda
niñoian neure etxera:
larrapastadatzar bat eginda
jo neban beeko bidera.

Oneik, "Peru Abarka" liburuak datozanez, ez doguz gaur barriro bertan jarriko.

Beste batzuk be agertzen dira 1823 urtean egiñak:

Ai, liberal tristeak,
egin dau zubenak,
laster dozuz ikusi
betiko azkenak.
Laiñorak lutuz dagoz,
damia gaixorik,
ez dago osatzeko
iñun medikurik.

Guk osorik gogoratu nai doguzan bertsuak Cadiz'ko Konstituziñoari buruzkoak dira.

Bein gerratea amaitu zanean eta bakea etorri, diño Aita Lino'k, jai andiak antolatu ziran Markiñan. Jai onetan "damatxua"

Konstituziñoiko irudia, txori malo jantzita, erriko plazaren erdian erre eben.

Jarraiko bertsotan agertzen da orduko gorabera zeken izan zan:

Ñozbait biar genduzan
biotzak askatu,
lengo illuntasunak
pozagaz argitu.
Katigario gogor
iru urtekua,
ez da señale baga
alan istekua.

Ñeure adiskide on
alkarri eutsiak,
igaro baditugu
garratz ta gaziak,
alkarregaz igaro
daiguzan gozuak;
asi bada iminten
mai eta basuak.

Ez izanik Markiñan
boluntariorik,
Xemein ta Etxebarrin
lege barrikorik,
orregaitik guztiok
gaur umore onik
gagoz ez dagulako
txanbelan usaiñik.

Emen ikusten dogu,
ara, irurok bat;
alan afkartuterik
nun eta zenbat?
lrurogetaz lagun
merindadekuak,
abade eta fraile,
juztiziakuak.

Lelengo Te Deuna,
ostean mezia,

soñu egokiakaz
izan da guztia.
San Martingo ermita
ondo entzunian,
maiatzaren ogei ta
zazpigarrenian.

Egun alegria zan
San Martin buruan
milla sortzireun eta
ogei ta iruan.
Kukubak berak bere
aurtengo soñuban
zerbait biarko zana
esan gura euban.

Txupin ta eskopeta
ondo garbituak,
guztiak dira emen
ondo orniduak.
Euren trumoe latzak
gaituz gaur poztuten,
bizkaitarren garaitzak
deuskuz gogoratzen.

Bolandera argi ta
goraberakuak,
izarren irudira
polbora-asmuak
Markiñan egin dira,
ez da au txantxia,
guztiok dakigula
fabrika-etxia...

Jana ta edana
guztia ugari,
baña zenbat al eban
bakotxak igarri;
ez da albo-alboka
iñortxo ikusi:
zelan olgau biar dan
ara nun ikasi...

Damaren irudian
Konstituziñua
ekarri izan dogu
zorigaiztokua.
Orregaitik Payasok
gure damiari
bota eutsan bertsua
txito arrigarri:
A, zital galdukua,
euk dona agiri
zelangua al azan
erdi sorgiñ ori...

Txanpalangarra bere
mutiltxu samurra,
astuak mutiltzeko
ez txito makurra,
Bein eldu bazan bere,
dogu ezaguna:
traskiladoria zan
bere aita jauna.

Iriarte, Soroa,
biak ze mutillak!
esanik dirianok
giñala serbillak.
Odonell irugarren
gizontxu biguna:
ondo txupau euskuben
mamin eta guna.

Kastañon konabdabte
Ñeronen lagunak
erakutsi euskuzan
larriak egunak.

Preso eruan euskun
geure markes jauna,
baita Bikariva
dotore entzuna...

Ñun ete dira orain
komandante jaunak,
guztioi egiteko
pozik eskumunak?
Damuz ezin ginaindez
euren billa asi,
beti dabiltzelako
serbillen igesi.

Sabelak estututa,
ezpanak sikurik
dabiltz laironak orain
buru beraturik;
poltsak urritu eta
ez adiskiderik,
iñork artu nai ez-ta
ezetan lotsarik.

Txapalangarrak dauka
orain portunia,
astakuak mutiltzen
ondo jakitia...

(Damatxuari)
Zuk bere biar dozu
atseginsaria,
izan zarialako
eurak imiñia.
Zer emongo al jatzun
bazkari ostian
erabagiten dogu
guztien artian.
Ao batezkua da,
au arrigarria:
tatarras erabilli,
azkenian erre,
guztiak egiteko
algara ta barre.

# JOSE DOMINGO UGARTETXEA, AITA

Etxekoentzat eta Markiñarrentzat: Pako.

Fraileentzat: Jose Domingo.

1888 urtean jaio, 1980'n il.

Karmeldarra.

1905 urtean profesa egiña. Beraz 75 urte frailetzan.

Musikalaria. Gasterik asia zan musika sortzen. 1914 inguruan "Oh Teresa, los vascos te aclaman" egin eban, Avila eta Alba de Tormes' era joiazan erromesentzat.

Gero, bizi guztian, doiñu eta eresi, musika eta notak, burutik kendu eziñik, irudimenak eta biotzak sortu eraginda.

Gure gerrate ondoren, Carmona'ko espetxean egoala, Sevilla'ko Aste Santuetako Kofradi batek sariketa bat iragarri eban eta ain zuzen espetxe aretan egozan euskaldun bi gertatu ziran lenengo eta bigarren sarien irabazle: Modesto Arana abadea eta Aita Jose Domingo, frailea.

Aita Lino'k egindako bere zerrenda baten au esaten eban:

Jose Domingo musikalari maixua izan da soiñu barriak asmatzen, Berak asmatutakoak asko ta asko ditu. Baiña, geienen eritxiz, maixuagoa da soiñuak, berak asmatutakoak naiz zarrak atontzen, ereskidetzen. Orretarako aparteko eskua ta trebetasuna eukala autortzen dabe geienak. Ai, Parisko aize batzuk artu balitu" esaten eban aita Donosti zanak.

Gregorianisten artean entzute andia artu eban bere Vesperale, Matutinale, Graduale eta antzerako liburuekaz.

Eliz kantuetan, ia urte barru guztirako daukaz. Gabon kanta, Astesantuko, Maiatz eta abarretarako.

Ainbat beza be sortu zitun.

Euskerazkoan artean, diñoenez, bera izan zan Egino Treku Santander'eko gotzain izan zanaren baimenagaz, gerraostean asi zan lenena. Bolibar Askatzailleari ereserkia eta Gabon mezak be, iru beintzat, euskal soiñuen inguruan egiñak dira.

Eta euskera utsean egiñiko kantuetan,

1.– Amalau euskal abesti, iru, lau, bost eta sei abetsetara.

2.– Agate deunaren abestiak.



3.– Iru euskal abesti (Egunto batez, LiIi bat ikusi dut, Bolon bat eta bolon bi).

4.– Suite Vasca, piano eta biolinentzat.

5.– Bateletan. Agun Ondarru, A. Zubikarai'ren itzekaz.

6.– Berritu erriari ereserkia.

7.– Berrituko biribilketa.

8.– Markiñako erriari ereserkia.

9.– Salbea. Erria eta lau abotsetara.

10.– Agur Maria, Mañariko erara eta lau abotsetara.

11 .– Gurutzbidea.

12.– Kanta-mordoa, abestaldetan banatuta.

13.– Elkormendi, txistu joteko.

Ezpai barik, Aita Jose Domingo'ri lekutxua zor jako euskal musikalarien artean.

# ETXE ETA TOKI BIKAIÑAK: "MONUMENTUAK"

Markiña ugaria da toki ederretan.

Baiña "monumentutzat", eta aberriko etxe edo toki bikaintzat, "monumentu nazional"tzat, iru dagoz zeaztuta:

Bat: Markiña-Xemein'go Jasokundeko eleiz nagusia, parrokia.

Beste bat: Ziortza'ko Kolejiata.

Irugarrena: Ilerria, kanposantua.

Lenengo biak aspaldi ezagunak dira.

Irugarrenari buruz au esan geinke: 1783 urteko agindu batek au agintzen eban: Ezin gaindutako eragozpenik egon ezik illobiak eleizetatik kanpora atara eta aurrerantzean gorpuei lurra emon al izateko toki aizetsuak gertuteko.

Emengoak, urrunera jo barik, eleiz ingurua be toki aizetsu zala ta eleiz albuan asi ziran gertuten.

1814 urterako asita egozan il batzuk illerri barrian sartzen.

Lenengotan, lurretik gorako kutxa barik, beietan sartzen zituen eta arlosak lur gaiñean ipini. Geroago etorri zan era barriko obiak egitea.

Aituak diñoe illerri onetan, bere egituran, Mariano Laskurain arkitektu ospetsuaren eskua igarten dala.

Beste sail baten "Bizkaiko etxe edo toki bikaiñen artean" beste lau sartzen dira erri onetako lez.

Asiera baten karmeldarren konbentua be sartzeko asmoa egon zan, baiña azken orduan beste batek tokia kendu.

Gaur oneik dagoz bigarren sail onetan sartuta:

Udaletxea.

Arretxiñaga'ko Mikel deuna bere osotasunean.

Ibarguen'go garaixa, "horreoa". (Etxebarria'n dago ta ez Markiña'n).

Eta Ubilla torrea.

Zoritxarrez Ubilla torrea bertan bera jausia da.

Gaur orma jausi, eten eta arrakalatuak gelditzen dira. Leioetako apaindura, armarri eta abar, nunbaiten batuta dagoz.

Inguru aretatik bidetik igarokeran, besterik ez da entzuten bere egoeraren atsekabe eta errukia baiño.

XVI garren gizaldikoa da. Armarria XVII garrenean geitu eutsen

Bere armarriak esaera au eukan: Paz más vale.

Etxe bikaintzat agertzeko agiria idatzi ebanak au esaten eban: Gaur, Ubilla torreak, jaramonik barik dagon eran, ez dau ezelako zeregiñik. Eroapenez bere beratze osoa edo ta barriztatzearen zain dago.

Eta geituten eban: Bearrezko da arin be arin berari esku bat luzatzea euskal erri-arkitekturaren lanik ederrenetarikoa dalako.

Baiña zoritxarez, diñogu, ori idatzi zanetik be denborak joan dira eta etxearen eguneroko jauste eta beratzerik ez da galdu. Beretzako armarrian adierazten eban bakea eldu da. Ez bake zoriontsua, kezka sortzen dauana baiño.



LEA-ARTIBAI'KO ATZERATUEN LANTEGIA





# BEDERATZI JAKINGARRI

## Arretxiñaga'ko zubiko arria

Bilbao'ko Arkeoloji Museoan, Markiña aldetik eroandako arri ikusgarri eta gordetea merezi daben bat dago. Ain zuzen Arretxiñaga'ko zubian egon zan arria da. Antxiña Markiña eta Xemein artean gertatzen zanaren lekuko ixil eta mutua.

Jakiña da, uria eta eleizatea, Markiña eta Xemein, Arretxiñaga'ra batera joaten ziranetan, markiñarrak alkartuta joaten zirala, euren alkatea buru ebela, eta Arretxiñaga'ko zubira eldutean, an egoten zirala zain jemeindarrak.

Ara eldu eta alkate biak mugara urreratu eta an gelditzen ziran; alkate makilla biak kurutzetu eta kurutze orreri musua emoten eutsen agintari biak, lenengo markiñarrak, gero besteak. Ori egin ondoren, Markiñako alkatea, bere zaindariagaz, urira biurtzen zan eta besteak ermitara joaten jarraitu, danak batera.

Zubi aretan egoan arria gaur esandako Museoan dago. Gotiku erako izkietan eta ezaugarrietan au diño: Joannes de Solarte é la sua muller este puente ficieron fazer para paso de sus ganados.

## Gaixotegiak

Erri askotan lez, emen be gaixotegi bi egon ziran luzaro. Ziurra da beintzat 1597 urterarte bi egon zirala. Bat Erroke deunaren izenekua eta bestea san Lazaro'ren izena eroan eikeana, beste errririk geienetan be orrela gertatzen zalako, bigarren au gaixo kutsagarridunak bertan batu eta zaintzen ziralako, batez be izurrite denboretan, gaixoari zabaltzea eten eragiteko asmoz.

1516 urtetik 1597 urterarte biak egon zirala artxibuko paperetan ikusten da.

Markiña'ko uriak urte onetan erabagi eban bakar bat egitea. eta arrezkero bakarra ezagutu izan da.

Etxe barri bat egin zan 1869 urtean, Uhagun'dar Karmen andre onaren leguntzari esker.

Oiturazko zan erri txikietan, eta oitura ori guk be ezagutu izan dogu, gaixotegietan bizi ziranak etxerik etxe eskean ibiltea, astean egun baten, ospitalerako laguntza eske, eta eurek batzen

ebena lagungarri on izaten zan beartsu askori laguntza eskeiñi al izateko. Markiña'n be oitura ori egon zan.

Geroago, gure denboretan oitura ori galdu ba da be, batez be erriak ardura geiago euki eta artu izan dabelako euren aurre-kontuetan orrelako etxeen eutsigarria izendatzen, beti egoten dira uste bako premiña eta laguntzen bearrak. Orretan txalogarri da pelotatokiko arduradunak eta pelotariak eratzen daben jaia, ospitalaren aldeko laguntza egun lez ezagutzen dana.

**Jirabirako aritza**

Entzute andiko arbolak ezagutu izan dira Euskalerrian. Batzuk azkatasun ezaugarri, edo ta foruen babesle zintzo, foruen eta usarixuen aldeko batzar asko bai Gernika'n, bai eta beste errialdetan, merindade eta abarretako batzarrak euren kerizpean egiten ziralako.

Beste batzuk, Markiña'ko au lez, toki onean egon, urte luzetan bizi, eta erriak eta ingurukoak maitatzen ebelako.

Gaur "Prado" lez ezagutzen dana, antxiña Uriko ariztegi lez ezagutzen zala irakurri izan dogu Markiña'ko kroniketan.

Zarrak esaten ekien bertan egoan arbola bat ainbat tokitan ikusi eta irakurten dan Bilbao'ko Arbieto arbola baiño iru bidar lodiago zala, eta bere adarrak alde batetik Merzedeko konbentua ikututera elduten zirala eta bestetik ia pelota tokiraiño zabaltzen zirala.

Bere inguruan jarrilekua ipinita eukan eta an batzen ziran, bere kerizpean, atseden orduetan markiñar asko, eta jai eta dantzetan berari birak egiñaz amaituten ziran aurresku, dantza eta beste ospakizun asko.

Zaartu eta igartuta egoalako, maitagarria izanarren, ebagi bearra egon zan.

Liburu onetan dagon beste atal baten –Gerran atxilotuen eriotzak– deiturakoan esaten dogu Karlistadako gerra deiturakoan baitu eta atxilotutako talde bat Markiña'n egon zala 1831 eta 1839 arteko erasoaldian. eta Munibe jauregian euki ebela euren gordelekua.

Dakigunez denbora orretan ebagi zan arbola ori eta bere adar eta zatiak egoki etorri jakoezan mutil arei, beste berogarrien faltan, suak egin eta zela-ala berotu al izateko.

**Sortzez garbiaren siniste eta autorpena**

1617.-

Markiña'ko erriak, urte onetan, Andra Maria Sortzez Garbiaren sinistea beretzakotu eta siniste ori aldeztutea zin (juramentu) egin eban.

Eta ori erakusteko, Sortzez Garbiaren eguna zortziurren eta guzti ospatutea erabagi eban, ibildeun (prozesiño), meza nagusi, kantu eta dantza jai, zezen erabilketa eta abar ospatuaz. Orretarako Abenduaren zortzigarren eguna izentatu zan eta jakiña, gotzaingora, obispadura jakin eraso zan erabagi ori, orrelako gauzetarako bear izaten dan baimena lortzeko.

Gotzaitegitik ontzat artu zan eskari ori, baiña baldintza bategaz: Jai egun orretan zezen jairik ez egitea. Kontuan eukita gorpuzti eguneko jaietako bat zezenak izaten zirala, arrigarri da erabagi ori, baiña orrela agindu ebela ziurra da.

Udaletxean ipini zan Sortzez Garbiaren lauki bat, kuadru bat, eta Sortzez Garbi egunaren besperatik irudi ori argiz apainduta agertzeko oiturea egon da.

Markiña'k, geroago be, arrotasunez agertu izan dau erabagi ori eta bere lenentasuna eskatu orretan.

Alaz eta ba dirudi Elorrio'k lenentasun eskubidea beretzat nai ebala, ango parrokia be Sortzez Garbi izenekoa dalako, baiña Markiña'k ba dauka erabagi ori artu ebaneko agiria eta ostera Elorrio'k ez dau orrelakorik aurkitu eta argitaratu.

Sortzez Garbiaren boto orren gomuta luzaro zaindu al izateko, Markiña'k jai berezi bat egin eban 1954 urtean.

Xemein'go parrokiaren aurreko zelaian, Pio Xll garren Aita Santuak eskatutako eta iragarritako Andra Mari urte bereziko jaien barruan, Sortzez Garbiaren irudi bat ipini zan.

lnguru guztiko parrokietako Andra Mari irudiak, eta parrokietako kurutze eta estandarteak batu ziran urte orretako Urrillaren 24'an, oroitarri ori bedeinkatu eta agertu zan egunean.

Liburu au idazten dauanak. beste askok lez, oiñez egin eban egun orretan Ondarroa'tik Markiña'rako osterea. Ondarrutar ugari batu giñan Antigua'ko Amari bidean laguntzen eta Markiñan alkartu bertako artxiprestearen ardurako ziran Amallo, Barinaga, Berriatu, Bolibar eta Ziarrotzako parrokietako eleiztarrekaz.

**Azoka, merkatu eta feriak**

Markiña, ainbat tratu, salmenta eta merkataritzarako, Artibai'ko uri eta eleizateen batzar-leku biurtzen da bere azoka egunetan eta Lea aldetik be ba dakie bertara baserritarrak eta bestelako tratulariak urreratzen.

Gaur ba dauka oituraz Urrillean ospatzen dan barazki eta ortuetako frutuen feri eder bat, inguru guztiko frutu, abere, egazti eta tresnen erakusketarako.

Baiña oituraz eguen guztietan egiten dan azokak be jende ugari alkartzen dau bertan.

Ia eun eta berrogetamar urte dira merkatu au ospatzen dala, ziur esanda, 1845 urtetik, eta feri egunak be, nai ta gaur euren indarra zerbaitetan galduta egon komunikabideen aldetik egiten dan zabalkundeagaz, oraindik Markiñaratzea galdu ezintzako eguntzat dauke baserritar askok.

**Antzerkilari (Teatro egille) zarrak**

Euskalerrian, jairik andienetako egunak andikiro ospatzeko, nai ta eleiz-jaiak eta gertakizun egunak gogoratzeko izan, jai bi egozan erriak maiteen ebazanak: Antzerti (teatro) jaia eta zezenak.

Egon ete zen antxiñetan Markiña'n teatro talde ospetsurrik?

Bilbao'ko paper zarretan, onelakoak irakurri leikez:

1566. Gorpuzti eguna ospatzeko komedi bi agertzeko asmoa egoala. Eta ortako Kofradiko batzordeak Udalari eskatzen eutsan bearrezko antzeztokia gertu eta jaso al izateko, toki egoki bat izentatzeko, eta orrez gain laguntzaren bat be bai, jaia egiteko bearrezko maia eta tabladua eta abar gertuteko.

Eta amaika urte geroago, 1577 urtean au irakurten da egun berbereko jaietan: "Vinieron Juan Lope, maestro representante y su compañía desde Markina".

Markiñarra eta zan kompañi edo talde ori?

Oneri buruz RIEV aldizkarian, bertako zuzendari zan Julio Urkijo'k au esaten eban: Markiña'ko Mugartegi idazlea ibili zan Juan Lope orren azterrenak Markiña'n billatzen, eta ez ei eban ezer lortu. Origaitik "maixu ordezkari" ori erbestetarren bat izan eikeala esaten da, erriz erri ibilten ekien artistaren bat.

Dana dala abizen oso barik agertzen dalako, izan eikean markiñarren bat be, kontuan euki ezkero Markiña'n, bertako dantzari eta abar, beti izan dirala antxiñetatik Gorpuzti eguna ospakizun andiz gertu eta igaro nai izaten ebenak.

## La Rochele'ko fede-ausleen aurka

Jakiña da XVl garren gizaldian, Bizkaia'n noz-nai agertu eta leorreratzen zirala itxasontzietan etorten ziran talde armatuak.

Ez beti lapurretan. Siniste barriak indarrez sartu nairik ebiltzen emengo siniste eta erlejiñoiaren aurkako taldeak be ugari ezagutu ziran.

Kontu egin aldi aretan ia errezago zala itxasoz erriz-erri ibiltea, leorrez baiño.

Inkisisiñoia be portuetako joan etorrien eta ibilleren kezkaz agertzen zan sarri, "dotriña txar eta gaiztoen" liburuak itxas bidez sartzen ziralako salakuntzaz.

Eta istorietan irakurten da La Rochele'ko fede ausle (hereje) talde bat, itxasontzietan urreratu zala Bermeo ingurura eta an sartzea eta leorreratzea lortu ebala.

Zela ala eldu zan Markiña'ra barri ori eta emen Gonzalo (bañez Ugartekoa, kapitana artegatu zen eta jagi zan, lauren (400) baserritar batu zitun beragaz eta danen buru Bermeo aldera urreratu eta an ebiltzan frantzetarrei astiñaldi gogor bat emotea lortu eban, danei itsu-mustuan euren txalopetara joan eragiñaz eta Bermeo'tik ospa egitera beartuaz.

Euretariko asko ezin izan ziran txalopetan sartu eta Bermeo'ko itxas ertzean itto ziran.

Ikusten danez. markiñarrak, bein berotu ezkero, ez euken eutsiko eutsenik.

1596 urtean gertatu zala esaten da erasoaldi au.

## Artzaintzarako zaletasunik ez?

Jakiña da Ameriketako Estatu Batuetan nekez zabaldu eutsezala bertaratzeko bideak emengo artzañei, nai ta gero, euren gorapenak eta ederkaturak egin.

Estadistiketan irakurten da, 1916 urtean, Ipar Amerikako Estatu batuetako Ñevada, Oregon eta ldaho'n, 184 bizkaitar egozala.

Bermiotar bat kenduta, beste guztiak Gernika eta Markiñaldekoak ziran.

Euretatik ugarienak lpaster, Lekeitio, Ea-Ñatxitu, Mendexa eta inguru orreitakuak ziran. Gernika, Errigoiti, Muxika, Ereño eta abarrek be emon zituen euren lagunak.

Eta Markiña aldetik zenbat?



Ara William A. Douglass eta Yon Bilbao ren Anerikanuak", Los Vascos en el nuevo Mundo" liburuan esaten dana, zeaztuta:

| | |
|---|---|
| Markiña | 14 lagun. |
| Berriatu | 8 lagun. |
| Bolibar | 4 lagun. |
| Ondarroa | 1. |

## Lantegietarako trabak

Zeiñena zan ur-jausiaren, ur-saltuaren jaubetasuna?

1878

Markiña inguruko lantegiei buruzko azterketa baten au irakurten da.

lkatzetarako erabili leiken baso ugari dagozala inguruan, sakona dala orretan, baiña emen ikatzak ez daukala urteerarik, ez dalako geratzen ikatzez erabilitako lantegirik, len gertatzen zan lez. Len burdiñola ta errementaritza asko egozan, baiña gaur beia jota edo gitxi gitxiago esan lei eurekaitik.

Ez da denbora asko, esaten da lan orretan, Xemein eta Berriatu bitartean lantegi garrantzitsu bat ipinteko asmoa egoala, ortarako azterketa eta ikerlanak egin ondoren, zoritxarrez egitasmua geratu bearra egon zala, bertan egoan ur-jausia, saltuaren jaubetasunari buruz goraberak eta zer ikusiak egozalako.

# DELMAS ETA MARKIÑAR OSPETSUAK

Juan E. Dalmas, Historiako Akademi taldeko izan zan. Bere liburuen artean "Biografia Universal de Claros Varones de Vizcaya" idatzi eban 1892 urtean.

Zerrenda orretan agertzen diran markiñar entzutetsu edo Markiña'ri ikututen dautsen gizonak oneik dira:

Andonegui Plaza, José. Españar gudarosteko koronela izan zan. 1761 illa. Jose Mari Murga'k liburu bat idatzi eban berari buruz: "El teniente general don Joseph de Andonaegui". Bilbon argitaratu zan 1928 urtean.

Alonsotegui, Toribio. Ez zan markiñarra, mungiarra baiño. Alaz eta Markiña'n egin zitun lenengo ikasketak, bertako sakristaua izan zan eta emendik urtenda, liberalen alde jokatzen asi zan eta Bilbo azkatu ebenean, bera izan zan Moriones general berbera baiño lentxuago Bilbon sartu zana. Zeztona'n il zan 1890 urtean, 84 urte eukazala, biotzeko ondoezak emonda. ango urak artzen egoala.

Astarloa, Pedro Pablo. Abade eta izkuntzalaria. Durangarra. Bere ama, Maria Angela Agirre markiñarra zan.

Barrenengoa, Andres. 1780 urtean Ziortza'ko Kolejiatako XXIII garren abata nagusi izan zan. Ziortza'n bertan jaioa.

Barroeta, Ortun. Jemeindarra. 1417 urtean alkar ikusi eziñez bizi ziran Ortun eta Lope Ibañez Markina'ren artean gudaketa edo burrukaldi gogorra egon zan Barroeta etxe inguruan. Lope eta beste asko bertan ilda geratu ziran.

Baskaran, Julian. Markiñarra. Militarra. 1791-1864. Frantzetarren aurka gudatu eban 1808'n. Ainbat urtetan batean eta bestean gerratan ibili ondoren, Markiña'ra etorri zan. Gero, 1833 urtean barriro liberal taldean sartu eta ainbat gradu eta domiña irabazi zitun, eta brigadako generala izatera eldu zan. Afrika'ko gerra asi zanean, arako deitu eutsen, agintaritza gorenetako bat eskeiñita, baiña lodiegi egoan, ezin ibilita, eta alaxe il zan 1864 urtean Madrid'en.

Bolibar, Gonzalo. Ziarrotza'n jaioa. Berak eta Elorrio'ko Amandarro anaiak Armentia'ko gotzaiña il eben, Arrazola'ko ba-

soetan, Aramaio inguruan, 1503 urtean. "Betirako" atzerriratuta, Frantzian il zan.

Irusta, Diego. Ziarrotza'n jaioa 1487 urtean eta bertan il 1 563'en. Kolejiatako abata entzutetsu, langille, ekintzale eta asmotxa izan zan.

Longa, Franzisko. Asiera baten Ziarrotza'n jaio zala esaten ba dau be, geroago agertzen da Mallabi'n jaio eta Bolibar'eko parrokian bataiatua izan zala. Markiña'n egin zitun lenengo ikasketak. Gerraetan egindako mesedeakaitik, VII garren Fernando'k bere gudarostetako "teniente general" izentatu eban. Errege aren adiskiderik andienetako izan zan. Euskal foru eta usarixoen eta askatasunen zale izan zala esaten da.

Isidro Antxia bolibartarra eta Maria Urkizu jemeindarra izan zitun guraso.

Markina, Juan. 1428-1486.– Salamanca'ko Bartolome deunaren Ikastetxe nagusiko zuzendari izan zan.

Markina, Pedro Martinez. Markiñarra. Ziarrotza'ko Kolejiatako lenengo Abata nagusi izan zan 1.380 urtean. Esaten da bere zeregiñean ain arduratsu izan ez ba litz, Kolejiatak ez ebala asko iraungo.

Munibe eta Idiakez, Jabier Maria. Peñafloridako kondea. Azkoiti'n jaio zan. Euskalerriaren Adiskide taldearen sortzaillea izan zan. Il zanean Markiña'n lur emon eutsen, bere aurretikoak bertako ziralako.

Murga, Jose Mari. Jemeindarra. 1770-1834. Euskalerriaren Adiskide taldeko idazkari izan zan. Bilboko alkate. Colon de Larreategi'gaz batean "Compendio histórico de los servicios prestados por la villa de Bilbao en la guerra contra la República francesa" liburua idatzi eban.

Ubilla, Antonio. Ubilla torrean jaiotako semeetako bat. 1654-1720.

Bigarren Karlos erregearen konseilari baten idazkari izan zan eta gero ministeritzako arduradun.

Bake zale izan zala esaten da eta origaitik bere torreko armarriko "bakeak geiago balio dau". Alaz eta ori esaten dabenari markiñarrak erantzuten edo geituten ei dakie: Bai, Ubilla torreko armarrian esaten dana.

Urrosolo, Antonio. Ez izenez "Larruskain". Jemein'en jaioa 1810-1859. Arotz on eta burutsua. Bai erritar armatuen kapitan be zazpi urteko gerra-aurretxoan, eta gerra sortu zanean Markiña

batalloeko gudalburu. Gizon indartsua benetan, Esaten danez, 1835 urtean Eibar inguratu ebenean, bertan sartzeko esiak eten al izateko, kañoi bonbak jaurti bearra egoan. Ba eukan kañoia, baiña eutsigarririk ez eta ezin jaurti. Besterik ezean, bere lepo gaiñean ipini eta su emoteko agindu eban. Eta alaxe Eibar menderatzea lortu. Eta era orretan ainbat erasoaldietan.

1839'en Bergara'ko ituna egin zanean, Espartero'k asko goratu ei eban, ibili zan inguruetan beti gertaten zalako beragaz. Gerra amaitu ondoren, barriro arotz lanetan ibili zan eta karlista nai liberal, edo beartsu nai aberats, alderdi guztietatik ondo ikusia eta adiskidetasunean bizi ei zan.



# PRAKAMAN BAT, PRAKAMAN BI, PRAKAMAN NOR DAN EZETZ IGARRI

**Ugartetxea abadea.**

Ba dago euskal kontakizunetan Azkue'k Markiña'ko Domingo Aldazabal zanari entzun, jaso eta bere Euskalerriaren Yakintza liburuan agertzen dauana: Aritza ta ospala edo Prakaman eta Prakaman.Eta ondorena au da: Aritzak ospala bere erakoa emoten dauala.

Don Alberto Onaindia'k, gure gerrate eta ondorenean, ia mundu guztian zear euskaldunen alde ibili zan markiñar abade jakintsu, borondatetsu eta ospetsuak, bere ibilleretako kontakizun baten, au gogoratzen dau.

Bein Mexiko'ra eldu zala. Eta ango itzaldi baten ondorengo bazkarian, bere alboan andik ebillan markiñar bat euki nai izan ebala: Jose Mari Ugarteburu zan. Gizon apala eta ez azkarra be jakituriz.

Argiña izan zan gaztetan. Eta gero abade txiki egin, au da, karrera laburreko abade eta Geria eta Bariñaga'n bere abadetza igaro.

Gure azken gerran bere arrebetako bat lerkari (bonba) batek jo ta il eban; geroago gerrako lenengo illetan anaia be il eta Mexiko'ra joan zan an bizi ziran senide artera.

An ixilik eta ezer egongo ez ba eban lez bizi zan. Baiña zerbaiten garra barruan.

Konturatu zan premiñazko zala uri buruan (kapitalean) famili txiro ta beartsuen umientzako ikastetxe bat zabaltzea. lñork ez eban pentsatuko orrelakorik berak al eikeanik. Berak be ez eban sinisten, buruz makala zala berberak ezagutzen ebalako. Baiña ikuspegi luze eta erabagi sendoko gizona zan. Andik ebiltzan euskaldun dirudunen biotzei ikututea pentsatu eban, batez be bankoetan sartuta ebiltzanei, aurrerakuntzak eta abar eskatu al izateko.

"Fray Juan de Zumarraga" izeneko ikastetxe andi bat sortu eban, eta bertan, zuzendari izango ziran irakasle onak aukeratu ondoren, 500 ume baiño geiago batu zitun ordainduko ebenen

artean eta beste 450 ume ze ordaindu ez eukenen artean. Berak ez eban ezer irakasten. Ango bizitza zaindu. Eta bertako arduradun nagusi izanarren, ikastetxeko tokirik apalenean bizi zan, txiro eta ixil.

Etxe eder bi ziran euren lorategi ta guzti. Baiña bera, leio bako gela baten bizi zan, berberak bere jatekoa egiten ebala, ango ardurea euken mexikotar monjei ezelako lanik ez emotearren

Erabagi au artzeko, Ugartetxea abadea ordurarte bere anaiaren etxean bizi zana, uri aretako konbentu batera joan zan eta ango fraileak euken ortuko tresnak gordeteko etxetxoan, txabola lakoan, biziten asi.

Bariñaga eta Geria'ko bakartedeak ze ikasi emon eutsen markiñar areri.

Aritzak ospala bere erakoa, izan be.

**Sor Madalen.**

Konbentuetan, alaxe bear dalakoan, santu-santa bizitza eroaten dabenak egoten diranik ezin ukatu.

Alako bat izan zan Maria Iñazi Ubilla. Aita Jose Antonio, markiñarra; ama orozkoarra, Ugartetarra.

Ubilla torre apaiñean jaio zan.

Eta gero zoro, gangar, neska-mutil, amaren atsekabe ta kezkatarako.

Amazazpi urte eukazala ama il. Ñeskaren atsekabe edo miña, kezka eta ardura, "lengo" izatea pikutara.

Ogei ta bi urtedun Markiña'ko Merzedeko konbentuan sartu eta an bera, berak be pentsatuko ez eban lez, umil, borondatetsu, Jaunaren maitasun zindoan gartuten.

Len mundu-zale, gero goi-maitale.

Ez zan luzaro bizi; denbora laburrean santutasun bidean zintzo alegindu eta ibili bai.

Ogeitamar urte eukazala il zan. Zortzi erlijiosa bizitzan.

Bere oroitza bat itxi nai izan eban: kalean zelako izan zan berberak idatzitako liburutxu bat. Bere parroko zanak eratu eutsan eta eskuz idatzitako 74 orrialdedun liburu bat, lau ataletan banatuta egokitu.

Ziurra da orain eun urte, Merzedeko konbentuan gauza bakan eta maitagarri tez gordeten ebela liburutxu ori.

**Iñazio Gojeaskoetxea.**

1916 urteko "Euskalerriaren Alde" aldizkarian, Eduardo Urrutia'k idatzita, au aurkitzen dogu:

Iñazio Gojeaskoetxea. Markiñako baserritar famili beartsu baten jaio, 1835'ko Uztailla'ren 31'an. Erriko parrokoagaz egin zitun bere lenengo ikasketak, gero zerbait sakondu eta Oñate'ko Unibersidadean sartu zan Filosofi eta lzkuntzak ikasten.

Amaitu eta abade egitea erabagi eta Kalahorra eta Toledo'n ikasten jarraitu eta azken onetan lenengo meza eskeini. Andik Salamanca'ra, doktoretza egiten.

Bereala lortu eban Toledo'ko Seminarioan ango irakasletza. Baiña erri miñez Euskalerrira urreratzen asi zan: Gasteiz'era, kanonigotzako leiaketak irabazi ondoren.

Luzaro Gasteiz'en, baiña Markiña'ko bikariotza utsik egoan baten, Markiña'ra bialtzea eskatu eta lortu.

Emen lan andia egin eban parroki lanetan, eta ermitak zaindu eta barriztatzen gogotsu ibili zan.

Gizon langille, jakintsu, ekintzale, eragintzale eta bere erri maitale benetan.

Euskerari buruz lan batzuk idatzita laga zitun. Bere "Apología de la lengua bascongada" garrantzi andikoa da. Euskerara aldatu zitun "Stabat Mater", "lragarleen salmoak", "Lau Ebanjelioak" eta Fray Luis de Leon'en olerki batzuk eta beste asko, bere azkennaiko gordelariak eurekaz gorde zituelako ezagutu barik geratzen diranak.

Lekeition il zan 1881'ko lrailla'ren 22'ean, azken denboretan an be irakasletza berezi baten sartuta ebillala.

**Amulategi'ko sagar igarra berdetzen.**

1936 urtean, Berriatu'ko parrokiko abadeen artean, gaste bat egoan: Jose Sagarna, zeanuritarra.

Anai arteko gerra sortu zan.

Larruskain'go serbitsua ber berak egin bear eban eta ara joan zan baten, militarrak bidean billatu eta ez jakin zegaitik –gerrateko itsukeriz– eriotza emon eutsen eta Amulategi'ko sagastian lurra emon abade zintzoari, kanposantu bateko lur bedeinkaturik be eskeiñi barik.



Bera sartu eben alboan igartuta egoan sagar adarra berdetzen asi zala, biztuten asi zala ta asko izan ziran gerra ostean ingurutatik toki aretara joaten asi ziranak, "mirari" ori ikusiaz abade santu areri maitasun omenaldia eskintzen.

Gaur arrizko gurutza ederra ipinia da bera erail eben lekuan.

**Beristain almirantea.**

Markiña antxiñatik oitu zan itxas kapitanak eukitera.

Errege katolikoen denboretan, emen errementaritzak eukezen batzuk, itxasontzi andien jaube ziran, euren tresnak toki batetik besterako garraioan ibilteko eta kapitan ospetsu izan ziran.

Errege katolikoen kartetan, Diego Arizmendi, Markina eta abar ezagutzen dira, errege areik zuzen-zuzenean eskatzen eutsezala eurak gertuten zituen arma eta tresnak. Ezin ukatu mesede asko egiten eutsenik. bein baiño geiagotan parkatu eutsezelako auzokoei egindako salmenta eta abar. Gogoratu garai aretan ez zirala ondo konpontzen Portugal eta Espaiñiako agintariak eta emengoei ondo etorten jakoela tartetan portugaldarrei eskutuan salerosketa batzuk egitea.



Almirante izatera eldu zan baita Antonio Beristain "Ñuestra Señora de la Concepción" galeoian, 1651 urte inguruan.

Beste bat, itxasoetan entzute andiz ibilia, eta gero Zaldi arma-

tuen kapitan lez Rosellon'en ezagutu zana, Juan Barroeta izan zan.

## Markiña'ko merindadea.

Bizkai'ko merindaderik txikiena izan zan.
lru erri baiño ez ziran sartzen bertan:
Markiña eta Kofradiak.
Etxebarria.
Jemein.
1704 urteko erroltzetara begiratuta ikusiko dogu,
Markiña'n 90 sugale (fogera) egozala.

| | |
|---|---|
| Kofradietan | 521/4. |
| Etxebarrian | 86. |
| Jemein'en | 92. |

Askok emoten dautse Etxebarria'ri Markiña-Etxebarri deiturea. Eta esaten da ori merindadeko izenetik datorkiola, au da, Bizkaian beste Etxebarri bat egoneran, oneri Markiña (merindadeko) Etxebarria.

Ikusten danez Ziortza be ez zan sartzen Markiña'ko merindadean ez eta Berriatu be.

## Aldi bateko buruausteak.

Gaur, kotxe eta motorren giroan, iñor ez da arduratzen zaldi, mando eta beste abereen perraen legeei buruz.

Markiña zarrean, eta Xemein'en. ba eukan onek bere eragiña.

Fernando eta lsabel erregiñak be, Bizkaiko Jaun lez, arduratu ziran orretzaz eta euren ordezkarien bitartez, jakin erazoten eutsen erriei ortazko ardura euki bearra.

ltxuraz egon ziran denborak zaldientzako perra kaltegarriak egiten ziranekoak.

Antxiña, zaldientzako perraetan, dozena bakoitzean amairu libra erabilten ziran eta astoentzat amar libra, eta zaldientzako. berezietan, amabost libra ta erdi.

Ostera perrantzako untzetan, zaildientzakoetan, milla untze egiteko bederatzi libra erabilten ziran, eta berezietan amar.

Orain, esaten zan, perrak eta ultzak askoz be ariñagoak dira, eta origaitik sarri ariñegi galtzen zirala, eta ori erritarren kalterako zala.

Eta barriro lengo erara egitea agintzen zan, et ala egin ezik, amar milla marau (maravedí) zigortzat ipinten ziran.

**Errien sarrerak.**

Aritza zelako, ospala alako. Sarrerak zelako, erria alako be esan bear.

Ikus 1799 urteko erroltzetan Xemein'ek zelako sarrerak eukazan:

lru "bentaetxe" egozan bere lurraldean: lrarraga, ltuarte eta Olaetxea.

| | |
|---|---|
| lruren artean 620 errial emoten eutsezan erriari | 620 |
| Arretxiñaga'ko etxetxuak, urteko errenta | 255 |
| Eleizateak bere alde eukazan zergak | 600 |
| Gaztañadiak batez be eta beste jaubeen basoak | 1.000 |
| Erriko mendi eta basoak | 2.064 |
| Danetara urtear | 4.539 |

Bere aurka, zen zo batzuk eta euren korridua eukan.

Ala Migel Anton Murga'ri, 1.200 dukaten zentzoa.

Manuel Urreztieta, mutrikuarrari, 600 dukat.

Karmeldarren konbentuari. 900 dukat.

Zentzu oneik euneko bi ta erdiko mozkiña euken.

Erriak zer egin?

Aritz meiak, ospal meia.

**Goiko portaleko iturria.**

Ezin ukatu Munibetarrak mesede ugari egin eutsezala Markiña'ri. Bat, galanta, uren eskintza.

Ursolo iturria Munibetarren lurretan egoan, Ugarte torrearenean eta euretariko bateri esker, Markiña ur orreikaz jaubetu zan.

Berreundak urte or egon da Goiko Portaleko iturria, ur ederra oparo eskintzen.

1786 urtean asi ziran lenengo egitasmuak eta gero bideko tutu iminte eta abar, denbora joan zan, baiña urte batera iturria jasoko zan tokirarte urbidea egiña egoan.

Esan daigun markiñar andrak be sendo lan egin ebela Goiko Portaletik atara zan lurra aldatzen.

Bertan ibili ziran pioiak eguneko lau errial, ardaua eta ogia ira-

bazten ebezan: Orduko lan egunak gaurkoen aldean luzeak zirala esan bearrik ez dago.

Argin batek, iturrirako arriak lantzen, eun egun igaro zitun.

Karmeldarren konbentuak be euki eban bere zer ikusia uren bidean, baiña ordezkoa be lortu eban, iturrira elduten ziran uretatik zazpitik bat konbenturako eskeiño jakolako.

Asko dira itanduten dabenak zegaitik egin zan iturri ori ain basterrean. plazaren erdian egin barik.

Erantzuna au da: Oraindik Elexebarri tente egoala eta ezin erdirago ebin.

Ezagunak dira iturriko bertsuak, Mogel'enak diralakoz dagozanak:

Karlos lrugarrena
Bizkaiko jaun dala,
Markiñako urijak
egin nau onela

Ugarte aspietan
daukat jatorrija,
ubide zakonetan
ekarri ugarija.

Ur au ederra zala
esanik aitubak,
alan arindu dira
neke ta kastubak.

Ba dirudi egon zala danboraldi bat bertso oneik kendu zituela, baiña barriro ipini.

lturri gaiñean dagon Praga'ko Ume Jesusen irudia 1923 urtean ipinia da. Ubide zakonetan ekarri ugarija... baiña geiago bear. Eta orain berreun urte Ugarte aspitik artuak, ba dirudi orain Bariñagako lagungarrien zain dagozala. lzan be nire mandoa urak ba dakar, urak daroa. Len eta gaur.





# ALKATEAK

J. Mugartegi'k bere "La Villa de Marquina" liburuan, uri onetan 1499 urtean asi eta 1927 arteko alkateen zerrenda agertu eban.

Ez dagokigu izen orrein agerpen barririk egiterik. Orretan arduratu leikezanak ba dakie nun dauken zerrenda luze bat.

Guk 1927 urtean asi eta gaurdaiñokoen izenak azalduko doguz, alkate eta berak aukeratutako lenengo eta bigarren alkate ordeenak jakin eragiñaz.

Orrela zerrenda osotuta geratuko da.

1926.— Apirilla'ren 3'an.

Alkate : Rikardo Urkieta Txopitea.
1.° ordeko : Jose Mari Eizagirre Ibaibarriaga.
2.° : Jose Mari Aranbarri Barinaga.

1928.— Urrilla'ren 19'an.

Alkate : Felix Alkorta Zulueta.
1.° ordeko : Jose Mari Eizagirre.
2.° : Jose Mari Aranbarri.

1930.— Otsailla'ren 26'an.

Alkate : Juan Bustingorri Ugalde.
1.° ordeko : Eleuterio Azpiri.
2.º: Franzisko Gomez Trueba.

1931.— Apirilla'ren 16'an.

Errepublika'denborako Udal barria.
Alkate : Felipe Garzia Maguregi.
1.º ordeko : Tomas Duralde Kerejeta.
2.º: Luziano Muñoz Azpeitia.

1933.— Urrilla'ren 29'an.

Batzorde arduraduna (Comisión gestora).
Lendakari : Bitoriano Orbea Plaza.
Bigarren : Agustin Egizabal Martinez.
Arduradun : Bitoria Preciados Meces.

1933.— Maiatza'ren 10'an.

Udal barria.
Alkate : Jose Luis Gaytan de Ayala Costa.
1.$^{2}$ ordeko : Fermin Alberdi Alberdi.
2.° ordeko : Alejandro Duralde Barrenetxea.

1936'ko Azilla'ren 26'an.

Alkate : Bernardo Aretxabaleta Arriola.
1.$^{9}$ ordeko : Tomas Duralde.
2.$^{9}$: Angel Aretxabaleta.

1937'ko Apirilla'ren 27'an.

Batzorde arduraduna.
Alkate : Fermin Alberdi.

1937'ko Abustua'ren 4'an.

Alkate : Luis Felipe Gaitan de Ayala.
1.° ordeko : Rikardo Urkieta.
2.$^{9}$ ordeko : Alejandro Duralde.

1938'ko Azilla'ren 17'an.

Alkate : Rikardo Urkieta Txopitea.

1948'ko Maiatza'ren 5'an.

Alkate : Jose Eizagirre Kareaga.
1.$^{9}$ ordeko : Juan Jose Laka Ugarteburu

1949'ko Otsailla'ren 19'an.

Alkate : Alejandro Gomez Omar.
1.° ordeko : Juan Jose Laka Ugarteburu.
2.° ordeko : Jeronimo Mendibe Ikaran.

1953'ko Abustu'tik 1954'ko Marti bitartean.

Alkate : (Aldiz aldizko): Juan Manuel Agirre Goitia.

1954'ko Martia'ren 4'an.

Alkate : Valeriano Gurtubai Zabala.
1.º ordeko : Juan Manuel Agirre Goitia.
2.° : Jose Martin Gisasola Bilbao.

1960'ko Urrilla'ren 24'an.

Alkate : Justo Arrieta Martinez.
1.º ordeko : Juan Larrinaga Larrinaga.
2.º ordeko : Rufino Laka Ugarteburu.

1967'ko Otsailla'ren 4'an.

Alkate : Luis Rodriguez Duralde.
1,º ordeko : Jose L. Molinero Osa.
2.° ordeko : Jose Laka Ugarteburu.

1971'ko Bagilla (Ekainilla)'ren 28'an.

Alkate : Joakin Iriondo Mendieta.
1.º ordeko : Julian ltuarte Plaza.
2.º ordeko : Jose Laka Ugarteburu.

1974'ko Otsailla'ren 3'an.

(Ziñegotzi barriak sartzean)
Alkate : Joakin lriondo Mendieta.
1,º ordeko : Pedro Azkune Arrate.
2.º: Pablo Azpiazu Egurrola.

1976'ko Azilla'ren 10'an.

Alkate : Pedro Azkune Arrate.
1.º ordeko : Lauren Aretxabaleta Goikoetxea.
2.º: Jabier Matute Alzaa.

(Alkate onek 1977;ko Martia'ren 9'an bere zeregiña itxi eban, eta bere zeregin-uztea ontzat artu eban Erri-zaintzako arduradunak eta bere ordez alkatetza, bere 1.º ordezkoak artzeko agindu).

Ori dala ta aldakuntza au egin zan:

Alkate : Lauren Aretxabaleta Goikoetxea.
1.º ordeko : Jabier Matute Alzaa.
2.º ordeko : Jose Antonio Ansola Pradera.



**1979'ko Bagillaren 15'an.**

Demokrazi denborako lenengo auteskundeak
Alkate : Lauren Aretxabaleta Goikoetxea.
Merzedes Zelaia Guenaga (Jemein'go aldetik).
Jose S. Azpiazu Totorikagüena (Bolibaridik).

**1983'ko Maiatza'ren 8'an.**

Alkate : Lauren Aretxabaleta Goikoetxea.
Irune Duralde Muguruza (Jemein'dik).
Felix Onaindia Jayo (Bolibar'dik).

**1987'ko Bagilla'ren 10'an.**

Alkate : Lauren Aretxabaleta Goikoetxea.
Miguel Barinagarementeria Armentia (Jemein'dik).
Sebastian Aspiazu Larrinaga (Bolibar'dik).

**1991'ko Maiatza'ren 26'an.**

Alkate : Lauren Aretxabaleta Goikoetxea.
Pilar Garitaonaindia Sarduy (Jemein'dik).
Justo Jose Alberdi Ibaibarriaga (Bolibar'dik).

# ONAINDIA TAR ALBERTO

Ez neuke liburu au amaitutzat itxi nai azken urteotan euskaldunok ezagutu izan dogun gizon ospetsu bat aitatu eta goratu barik.

Ñik Saturraran'en ezagutu neban 1927 inguruan. Gu irugarren urtea ikasten eta bera etorri zan, Erroma'n ikastaroak amaituta, irakasle lez.

lkasleen lagun izan zan. Orduko "molde" guztiak apurtu zitun. lkasleekaz kontu kontari ibiltea nai izaten eban, atseden orduetan.

Bera etorri eta Saturraran'go posta kutxak indar barria artu eban Mutriku'n. Egunero ainbat aldizkari, paper, liburu etorten ziran bere izenean.

Gero, gure gerratean, Bilbo'n ikusi giñan, ain zuzen berak "Eguna" egunkaria maite ebalako eta nai ta batetik bestera eten barik ibili Bilbora osterea egiten ebanetan atsegin izaten eban gu adoretzera etortea.

Jakingarri da egunkari orretan gure eguneroko lankide zala Jose Mari Arizmendiarrieta, bariñagatarra, orduan oraindik abadetzako azken ikasketan egiten iñarduana.

Baiña nire lorak guri berak eskiñitakoen ordaiñak izan leikezala iñork pentsatu barik, Olazar dar Martin'ek bera il zanean "Zer" aldizkarian idatzitakoa sartuko dot.

Une onetan adierazi neike, don Alberto'ren idatzi, karta eta beste ainbat agirien sailkapen bat oraintsu egin dala eta bere lan eskutuko asko laster argitaratuteko gertakizunak amaitzen diarduala jakintsu batek eta len ezaguna ba zan, emendik aurrera garbiago ikusi eta jakin al izango dala bere duintasuna.

Ara Olazar'tar Martin'en idatzia:

Donibane Loitzun'en, Etchegaray kalean 11n-atean bizi zan Onaindia tar Alberto abadea. Antxe alboan dago bere anaia zan Txomin'en izena daroan beste kale bat.

Ainbatetan joan giñan eta beti pozik, etxe orretara. Batzutan Alberto'ri lanen bat egiteko eskatzera, baiña azkenengo urtetan batez be, bere gaiso-aldian ikustaldia egitera.

Gaiso-aldi orretan D. Alberto berbatsu eta biotz oneko agertzen jakun eta agur egikeran esker onez auxe esaten euskun: "Etorri barriro be nai dozuenean, emen pozik artuko zaituegu..., baiña zuek ez zarie etorriko geiago".

Eta gomutamena apur bat galduta eukiarren, D. Alberto'k bere eritxiak zorrotz eta argi agertzen ebazan, berak bere bizitzan ainbeste auznartutako eritxi elduak ziran eta "testamentu antzera" artzeko berbak ziran bereak: Alderdi politikuak eta erria, eleiz-agintariak eta kristiñauak, giza-eskubideak, gaurko jokabideak Euskalerrian... eta abar.

Ordua.

Eldu jakon D. Alberto'r itxaroten egoan bere ordua, bere etxekoen aldetik eta batez be Karmen bere arrebaren aldetik ondo zainduta, txirotasunean baiña ezeren falta barik, egunero bere etxean mezea ospatzen ebala... bake-bakean igaro ebazan Alberto'k bere azken egunak, edozein euskaldun zintzok beretzat nai izango leukezan lango egunak.

Zeaztasun andi barik eta billaketa zeatz sakonak beste batek egiteko itxita, idaz-lan onetan D. Alberto'ren eginkizuna agertzeko diran gauza batzuk gogoratuko doguz, berak berbaz eta egitez egin eban lana, eleiz-gizonaren lana eta erri-gizonaren lana.

Berbaz.

Guztiok dakigu Izlari argia ta trebea izan zala, baiña geiago be esango neuke, izlari ausarta zala, iñork esaten ez ebezan gauzak esaten ebazala.

Eta ori lenengo ta bein eguneroko alkar-izketan eta egotaldietan, olakoetan agertzen diran eritiak ez dira ainbeste zabaltzen, baiña erri-azia dira eta erria egiten dabe. Garrantzi aundiagokoak agintari maillan dagozanakaz eta bakea egiteko bear ziran artuemonetan.

Baiña D. Alberto'k egin eban berbazko lanik ospetsuena ta ezagunena London'etik eta Paris'etik egin ebana izan zan.

Ñork ez daukaz gogoan agintaritza gogorraren menpean gengozala giza-eskubideen alde eta arazorik gogorrenak aztertuz "Padre Olaso" izen-ordeagaz D. Alberto'k egiten ebazan berbaldi areik?

Arlo onetan be gorabera aundiak izan ebazan D. Alberto'k eta azkenean politika-jokoak lortu eban bere abots zolia isiltzea. Baten batek aztertuko al dauz orretarako izan ziran agintari-arteko jokoak.

**Egitez.**

Berbetan trebea zala D. Alberto esan dogu, baiña egiteetan be ez zan makala. Gure lenengo Lendakariak aolkularitzat artu eban eta ortik lan aundiak etorri be bai, toki askotara joan-bearra eta ibi-‖al di luzeak sarritan egin bearra izaten eban, bere lana egiteko.

Geroago UÑESKO'n izan genduan langille.

Euskaldunak guda mingarria galdu genduanean Santoña'n azkenengo bakea edo ituna egin bear izan zanean, an izan ei zan D. Alberto eta guda ori barri zala be ondoren onik izan ez eben bake-alegiñak egin ebazan.

Lenengo Jaurlaritza arek eta Alderdi Jeltzaleak Batikano'n izan ebezan artu-emonak, mingotsak izan ziran eta artu-emon orreitan bere alegiñak egin ebazan. D. Alberto'k. Ez dira aiztu bearko Mateo Mujika Gotzaiñaren "Los imperativos de mi conciencia" kartea edo agir¡a argitaratzeko egin bear izan ebazan alegiñak.

Orrez gaiñera, berbea eta egitea batera diran liburuak argitaratzea izan da bere zeregiña. Or agertzen da geienbat D. Alberto'ren pentsabidea.

Pozgarria gure Euskalerriarentzat olako gizon baketsuak eta argiak sortzeko almena izatea. Jarraituko al dabe bake-gizonak euren lanean gure erri zauritu onetan.

Orra, esan dogun lez, Olazar tar Martin'en idatzia.






ON ALBERTO ONAINDIA
"AITA OLASO"



ONAINDIA ANAIAK (TXOMIN ETA ALBERTO) EUREN
ILLOBA YON ETA ASKAINiKO ERRETOREA

# AKATSAK



BEREZI

Markiña-Xemein I liburuan akatsa batzuk edo utsune batzuk agertu ziran.

Bolibar.– Zubialde eta Zubikoa etxeen argazkiak agertu ziran. Texturik ez.

Onetan esana daukagu gure asmoa baserri lez agertzen diran etxeen zeaztasuna emotea dala; kalekoetan, etxeak iñoiz agertuarren, ez dogu zeaztasunik emoten. Alaz eta...

Zubialde.– Tzeko illobak bizi dira etxean. Martina Zuazo izekoaren izenean dago jaubetasuna. Lobea Felix Mendibe Zuazo da. Hektarearik ez dauka.

Zubikoa.– lru etxe bizitzatan banatuta dago.

Bateko jaube Jose Luis Askaiturrieta eta Ñieves Olabe dira.

Bigarrean Jose Olazabal eta M.ª Lourdes Egiguren dira jaubeak eta eurekin bizi da Olga alabea.

lrugarrenean Jose Luis Lejardi eta Maria Olabe senar emazteak dira jaubeak eta Maria, Milagros eta Fernando seme alabak bizi dira.

Hektarearik ez dauke.

**Markiz.—** Etxe bi agertu ziran Markiz izendunak.

Zubibarria.— Textoa agertu zan. Argazkirik ez. Emen agertzen dogu.

**Berezi.—** (Bizi, Beko Etxebarri).

Tomás Gerrikagoitia'ren izenean dago jaubetasuna. Bertan bizi dira Jabier semea eta bere emazte M. Tere Larruskain eta Eunate eta Sáioa alabak.

Emeretzi hektarea daukaz etxeak.



ZUBIBARRI

# LANEAN LANGILLE TA JAIETAN JAI-ZALE




















188.K 188.K





**KALE GARBI BAKETSUAK**












ERDOTZA



LAN-BIDE IKASTETXEA

# AUZORIK AUZO

# LARRUSKAIN

Jainko-mendiak Gipuzku ertza
besarkatzen du gainez gain
da otamendia irripar gozoz
euzkiak irtetzeko zain,
AMALLO errekan bizi dirade
eskaillu, aingire, amorrain,
berdin gabeko auzo polita
da Markina'ko LARRUSKAlÑ.

Ñausi ta gazte gordetzen degu
lengo aitonen itzala,
sendi gozo bat osotuakin
jatorra ta serbitzala,
bata bestiei lagunduakin
orain artian bezala
San lñaziok zeru gainetik
luzaro gorde gaitzala.

**MAÑUKORTA**

# AMALLOA AUZOA, ETXERIK ETXE

**ABADETXEA.**

1796 urteko paperetan Kofradiarena zala esaten da.

**ABADESAGASTI.**

1960 urte ingurutik desagertuta dago.

Jaubetasun eskriturak, Lekeitio'ko Galletabeitia'ren izenean dagoz.

Izen onetako saroea, "sel" a XVI garren gizaldiko tratuetako paperetan irakurten dana da.

Lenengo Arantzibia etxeko jaunak Plaza'ko Juan'eri saldu eutsan eta onek eun eta amar kintal burdiñagaz ordaindu eutsan.

Geroago, Urrixate'ko suin batek, Laparra'ko jaubeari zentzu orde emon eutsan, Aldozka mendiagaz batean.

Urrengo urtean, Urrixeta'ko alargunak saroe eta mendi orreik saldu egin eutsazan Mutriku'ko txalopa baten jaube zan Andres Barroeta'ri.

**AGIRREAMALLOA-** (AGARRE AMALLOA)

1704'ko erroltzetan Matias Agirre agertzen da bertako jaube lez.

1746 urtean, Dionisio Agirre.

1796 urtean, Franzisko Agirre Amalloa, ezagutzen da jaube lez.

1826 urtean, Bartolome Agirre Amalloa.

1991 urtean, Juan Erkiaga Arriola'ren izenean dagoz eskriturak.

Bere emazte Martina lrizar'egaz bizi da eta euren seme alaba Luziano, lñazio, Esteban eta Santura eta bai onen senarra dan Luis M. Egia eta euron seme lban eta Xabat.

21 hektarea.

**AGIRREAMALLOA BARRI.**

1704 urtean Matias Agirre zan jaube.

1796 urtean Franzisko Agirreamalloa.

1991.– Utsik dago.

Jaubetasun agiriak lñazio Erkiaga eta Santura'ren izenean dagoz.

0,5 hektarea.

**AGORRIA**

1489 urteko paperetan Adorriaga irakurten da.

1704 ko erroltzean, Domingo Agorria irakurten da bertako jaube lez.

1745 urtean Jose lñazio Bustinzuria eta Pedro Elordi.

1796 urtean Agorria Andi eta Txiki bereizten dira. Andiko jaube Jose M. Ormaetxea agertzen da eta Txikikoan Pedro Elordi.

1799 urtean, Pedro Elordi jaubeak autortu eban 550 erria) artzen ebazala errenta ezaugarritzat.

1826 urtean be Pedro Elordi agertzen da bertan biziten.

1991.– Esteban Urrestiren izenean dagoz eskriturak eta Jose Agustin semeagaz bizi da.

la amar hektarea daukaz. (9,96)

**AMALLOBIETA.**

1489 urteko paperetan ba dago etxe onetako burdiñolaren barri.

1497.– "Santa Maria de Erdoza" izeneko itxasontziko armadore zan Markiña'ko Martin. Eta bere azken naian burdiñola au aitatzen da, bertan eukazan ondasunen zati bat erriari eskintzen.

1512 urtean, azken-nai ori bitarteko, Amallobieta'ko burdiñolaren erdia eskeiñi zan Markiña'ko eleiza barrian, Martin Markina itxas-kapitanaren alde meza bat betiraunean eskintzearen ordez. (Orduntxe asi eta munduaren azkenerarte, esaten da azken naian.) Eta Markiñako erriak ontzat artu eban eskintza ori, eta bere arduratu zan, iñori saldu barik, eskintza aretako baldintzak zaintzera.

1704'ko erroltzean, etxe bi agertzen dira. Baten jaube Martin Garcia zan eta bestearena Martin Aranzabal.

1745 urtekoan, Amallobieta nausia eta txikia esaten dira. Ñausiko jaube Martin Garzia zan eta txikikoa Juan lñazio Mogel.

1796 urtekoan, txikiko jaube lez Petronila Elgezabal agertzen zan eta andian Martin Garzia Amallobieta.

1826 urtean, Amallobieta andian Martin Amallobieta bizi zan eta txikian Martin Garramaiola.

1991.– Txikian, Zezilia Lezeartua Markuerkiaga, Maria Lezeartua eta onen senar Jose Luis Pagoaga eta Ana Teresa alaba bizi dira. Jaubetasun agiriak Jose Luis'en izenean dagoz.

4 Hektarea.

Andian, Iñazio eta Toribio Amallobieta anaiak bizi dira. Jaubetasuna Toribioren izenean dago.

26 hektarea.

**AMULATEGI.**

1991.– Utsik dago.

Juan Zabala eta Josefa Manzisidor senar emazteena da.

5 hektarea.

**ARANZABAL.** (AÑTZABAL)

1704 ko erroltzetan Martin Aranzabal agertzen da jaubetzat.

1745 urtean Juan Iñazio Mogel.

1796 urtean Petronila Elgezabal.

1799 urtean Juana Barroeta, eta 1.156 errial artzen ebazan etxe eta inguruaren ordez.

1826 urtean Jose Migel Balenciaga ezagutzen da bertan bizitzen.

1991.– Etxe bizitza bi daukaz.

Baten. errenteru lez, Jose Luis Egi Olabarria bizi da.

Bestean, errenteru lez baita, Martin Pagoaga eta Isabel Aulestiarte senar emazteak eta euren seme Jabier bizi dira.

Etxe bien jaubetasuna Antonio Torcal'ena da.

28,5 hektarea.

**BASOZABAL.–**

1977 urte ingurutik jausita dago.

Jaubea: Eiguren, Lekeitio'ko Egurgintzako etxea.

**BENGOETXE.**

1704'ko erroltzetan Pedro Mugartegi zan bertako jaube.

1746 urtean Pedro Jose Mugartegi.

1796 urtean, Pedro Balentin Mugartegi.

1799 urtean Domingo Aulestiarte'k autortu eban 604 errial ordaintzen ebazala errentatzat.

1991.– Franziska Alzibararetxuluaga bizi da bertan, bere

seme Jose Mari eta onen emazte Maria Jesus Arakistain'egaz, eta euron seme alaba Elisabet eta Pedro Mari.

Jaubetasun eskriturak Jose Mari'ren izenean dagoz.

7 hektarea.

**DAMUKORTA**

1799 urtean GAMUKORTA irakurten da. Domingo Arispe zan jaubea.

1826 urtean Krispin Laskurain bizi zan bertan.

1991.– Utsik dago. Enrike Guenetxea'ren izenean dago jaubetasuna.

18 hektarea.

Etxe honen izenez asten dan kantua ezaguna da:

Damukortan etxetzea, lmintolan gisatzea, Larruskaingo basatia, Garramiolan aldapea, Agorritan alkatea, alkate parerik gabea....

**EGIAGUREN.**

1970 urte ingurutik desagertuta dago.

Jaubea: Joaking Gaitan de Ayala.

**EGURROLA**

1704 urtean, Martin Aranzabal zan jaube.

1746 urtean, Juan lñazio Mogel.

1796 urtean, Petronila Elgezabal. Errenterua eukan.

1797 urtean, Pedro Kalzakorta errenteruak autortu eban 820 errial ordaintzen ebazala urteko errentatzat.

1826 urtean, Jose Kalzakorta bizi zan.

1991.– EGURRlOLA TORREA.

Pedro Jose Kalzakorta eta Josefa Sololuze senar emazteak bizi dira. Errenteruak dira. Jaubetasuna Antonio Torkal'ena da.

Torrea eta Errota sartuta, 55 hektarea daukaz.

EGURRlOLA ERROTA.

Utsik dago.

**ELKOR.**

1991.– Pedro Mari Totorikaguena eta Begoña Rementeria eta euren alaba Estibaliz bizi dira bertan. Etxe jaubeak dira.

4 hektarea.

## GABIOLA

1507 urteko paperetan agertzen da etxe onek parroki lez lotuerak eukazala Ziortzako Kolejiatagaz.

1704 urtean, Pedro Mugartegi zan bertako jaube.

1745 urtean Pedro Jose Mugartegi.

1746 urtean, Pedro J. Mugartegi zan Gabiola-errotako jaube.

1796 urtean, Pedro Balentin Mugartegi jaube eta errenterua eukan.

1799 urtean Joakin Urkidi errenteruak autortu eban 455 erria) ordaintzen ebazala errenta orde.

1826 urteko erroltzetan, Tomas Gallastegi eta beste zazpi lagun bizi ziran bertan beragaz.

1991.– Etxe bizitza bitan banatzen da.

Baten Murga Mugartegitarrak dira jaubeak eta errenteru lez Jose M.ª Lejardi eta Maria Kareaga senar emazteak bizi dira eta Rikardo, Alberto eta Jose Mari euron semeak.

2,5 hektarea.

Beste etxean Dominga Arregi eta bere seme-alaba Manuel, Maria eta Jose Aulestiarte Arreg¡ bizi dira. Jaubetasun agiriak Jose'ren izenean dagoz.

2,5 hektarea.

## GARRAMIOLA

Gizaldi luzetan etxe onetakoak Garramiola abizenari eutsi eutsen.

1704 urtean, Franzisko Garramiola ezagutzen zan jaubetzat.

1745 urtean Juan Garramiola.

1796 urtean Domingo Garramiola.

1799 urtean Domingo Garramiola. Urtean, zergak ordaintzeko, 924 errialeko irabazia autortzen eban.

1826 urtean 6 lagun bizi ziran bertan, etxeko jaun Domingo Garramiola zala.

1960 ingurutik galduta dago.

## GOIKOETXE

lzen onetako etxe bi ezagutu izan dira: GOlKOETXE BEKUA EDO AZPlKUA eta GOlKOETXE GOlKUA ETO GAÑEKUA.

1704 urtean, Goikoan, Juan Goikoetxea zan jaube, ta Bekoan Juan Ansotegi.

1745 urtean, Bekoan, Andres Ansotegi.

1796 urtean Goikoan Kristobal Ibarluzea eta Bekoan Jose A. Astarioa.

1991.– Goikoa utsik dago. Aste buruetan agertzen dira bertako jaubeak. Eskriturak Jose Totorikaguena Arostegi'ren izenean dagoz.

12 hektarea.

Bekoa jausita dago.

Jaubetasuna Pedro Zubero'k dauka.

5,5 hektarea.

## GOROSTOLA (KOSTOLA)

1515 urtean, Plaza'ko Fernando, Teresa eta Milia'k Gozalobasua, mendi eta saroeta itxi eutsezan Gorostola'n bizi ziranei.

1704 urtean Juan Antonio Arizmendi ezagutzen da bertako jaube.

1745 urtean, Franzisko Gorostola'ren Ardularitzakoa dala esaten da.

1796 urtean, Santa Kutz'eko Markesa zan jaube.

1826 urtean Manuel Txurruka bizi zan bertan. Zortzi ziran familian.

1991.– Etxe onen orman 1.795 urtea irakurten da, baiña barriztapenen batena izango da.

Burdiñolen kontuetan irakurten da Markiña aldetik Gipuzkoara bialtzen zan burdinki askoren gordelekua egoala emen.

Jaubetasun eskriturak Jose Zenarruzabeitia Osoro'ren ezenean dagoz. Jose Antonio Zenarruzabeitia eta Elisabet Pagoaga senar emazteak bizi dira bertan bai eta euren seme alaba Zara, Izazkun eta Arkaitz.

47 hektarea.

## GURBIOLA

1991.– Utsik dago.

Pedro Olabarria Urizarbarrena errenteruak zaintzen dau.

Jaubetasun agiriak Federiko Berastegi'ren izenean dagoz.

45 hektarea.

## KORTATXUPE

1991.– Margarita Zenarruzabeitia Txurruka'ren izenean dago jaubetasuna.

Mari Jose, Jose Emeterio, Miren Garbiñe eta Eneritz lriondo Zenarruzabeitia bere seme alabak bizi dira bertan.

**KORTAZAR**

1991.– Utsik dago.

Mateo eta Jesus lriondo Olano dira jaubeak.

**KANTERAPE.**

1991.– Ez da bere aztarrenik geratzen.

Bertako jaubea Jose Barrutia'ren alarguna da.

**LABETXE**

1796 urteko erroltzetan Santo Domingo Bizkondearen jaubetasuneko zan.

1799 urtean Martin Azpiazu errenteruak autortu eban 614 errial ordaintzen ebazala urteko errentatzat.

1826'ko erroltzean Pedro Lizaola agertzen da bertan bizitzen, sei laguneko famili-buru.

1991.– Patxi Etxaniz'en oiñordekoena da.

**LAPARRE**

1704 ko erroltzetan Juan Laparre agertzen da bertako jaube lez.

1745 urtean Migel Eskutasolo.

1796 urtean Domingo Elordi eta berbera bizi zan.

1825 urtean be Domingo Elordiren bost laguneko familia bizi zan bertan.

1991.– Julian Lejardi eta M.[1] Sololuze dira bertako jaube ta bizilagun.

16 hektarea.

Oarra: Liburu au gertuten gebiltzala il zan Julian.

**LARRUSKAIN**

lru etxe duaz izen buru onegaz: LARRUSKAlÑ ERDlKOA, LARRUSKAlÑ GOlKOA eta LARRUSKAlÑ ERROTA.

1704 urtean Pedro Urrosolo'ren Txikien izenean egozan.

1745 urtean Antonio Larruskain'en oiñordekoena zan jaunetasuna.

1796 urtean, Goikoa eta Errota Domingo Urrusolo'ren izenean egozan eta Erdikoa Ana Urrusolo'renean.

1 799 urtean Jose Badiola, Goikoa'ko errenteruak autortu eban 778 errialeko errenta ordaintzen ebala urtero.

1826 urtean, Erdikoan, Domingo Urrusolo bizi zan sei lguneko buru lez. Goikoan, Migel Alzibar. Onen familia be sei lagunekoa zan.

1991.– Larruskain Erdikoan Juan Zubikari Elorza'ren izenean dagoz eskriturak eta bere emazte M.ª Arantzazu lparragirre eta Jesus semea bizi dira.

8 hektarea.

Larruskain Errotan Migel Egia eta Maria lriondo senar emazteak eta euren seme Angel bizi dira. Etxe jaubeak dira.

Larruskain goikoan amar lagun bizi dira: Manuel lriondo, alarguna, eta bere seme Julian, Domingo eta Jose Mari. Au bere emazte Jesusa Zenarruzabeitiagaz eta bere seme alaba Franzisko Mari eta Arantza, eta onen senar Txomin Antxustegi eta azken onein alaba diran Ainhoa eta lrantzu.

Errenteruak dira.

Jaubetasuna banatuta dago. Erdi bat Alzibararetxuluaga Urkidi neba arrebena da eta beste erdia euren ama Josefa Urdikirena.

21 hektarea.

## MANUKORTA

1 991.– Ba dauka etxe onek zeiñek entzutea emon bertako seme dan Gregorio bertsolariari esker.

Matias Larrañaga Urkidi da bertako jaube ta bere emazte Maria Mandiola eta Gregorio eta Julian bizi dira bertan.

13 hektarea.

## MENDIKUTE.

1704 ko erroltzean Franzisko Etxezabal zan bertako jaube.

1745 urtean, Juan Elordi.

1796 urtean, Bizente Etxezabal.

1 799 urtean Jose Egurrola errenteruak autortu eban 770 errial ordaintzen ebazala urtero errentatzako.

1 991.– Jeronimo Barruetabeña eta Maria Aulestiarte senar emazteak dira bertako jaubeak. Eta eurekaz batera Alberto, lñaki, Alexander eta Luzia seme alabak bizi dira.

**OLABARRIA.**

Emen, izen onegaz, etxea eta errota ezagutzen dira.

1704 urtean Juan Olabarria zan bertako jaube.

1745 urtean, bai etxe eta bai errotan, Jose Olabarria.

1796 urtean. Juan Olabarriearen jaubetasunean egozan.

1991.– Simon Olabaria Zenarruzabeitia-ren izenean dagoz jaubetasun eskriturak eta bere emazte Kalatina Urriolabeitiagaz bizi da, bai eta euren seme Eugenio. Domingo eta Jose Antonio.

28 hektarea.

Errota utsik dagola ba dira 35 urte inguru. Bere jaubetasuna Domingo Olabarria Urriolabeitia'ren izenean dago.

5,5 hektarea.

**OLAZAR.**

1796'ko erroltzetan, Santo Domingo'ko Bizkondea agertzen da jaube lez, Olazar Bekoan.

1991.– Pedro Arrate Gandiaga eta M.ª Luisa Longarte, senar emazteak eta eureon seme alaba Jon, ldoia, Agurtzane eta Ainhara bizi dira bertan.

Olazar Goikoa, 1745 urtean Santo Domingo'ko Bizkondearena zan.

1796 urtean lñazio Uriarte agertzen da.

1991 urtean, Benito Etxaniz Barruetabeña da jaubea eta bere emazte Luzia Guenetxea eta euron seme alaba Migel eta Leire bizi dira bertan.

41 hektarea.

**OLUA**

OLOAGA irakurten da liburu zarretan.

1509 urtean, Ziortzako Kolejiata eta Xemein'go parrokiaren artean egondako auzi baten, Oloaga'ko Otxanda be lekukotzat agertzen da.

1745 urtean Oloaga soil agertzen da etxe bat eta Juan Oloaga zan bertako jaube.

Eta beste bat Oloaga barri deitureagaz, eta jaube berbera zala.

**RETOLAZA.**

Ziortzako Kolejiataren "sel" batean jasoa da etxe au.

1498 urtean egin eben Martin Mañoska eta bere emazte zan

Santxa lbarguren'ek Arretolaza saroea "sera alokatzeko tratua. ltun orretan lurra landu eta etxea jasoteko eskubidea be ba euken.

Baiña benetan baldintza gogorrak ortarako ipini eutsezanak.

Batetik eleiz legez Ziarrotzako parrokiaren menpeko izatera Jotzen ziran, orrelako menpetasunak eukazan eginbear guztiekaz eleizkizunen kontuan eta eleizari asikin eta amarrenak emoteko bear-izanagaz batera, beste bost anega gari, neurri andietakotan. ordaintzera. Ez ori bakarrik, eukiten eben ganadu guztia be erdiz banan izan go zan.

Lotuera ori benetan gogorra izan zala ikusten da urteak gero-ago, bertakoak dirutza ori ezin ordainduta ibili ziralako eta azken baten, 1643 urtean, eta 1643 urtean, eskribadu aurrean kontuan egiñaz, 1722 errialen zor atzeratua ezagutu eben eta bera ordaintzera beartu. Erretolaza etxean Xemein'go kontu-paper ugari daukez, emengo bat Xemeingo alkate be izan zalako eta paper kopiatzaille on.

Etxe au gaur lurrez Markina-Xemein ba da be, eleiz-legez Etxebarria'ko Ander deunaren parrokiko da.

**SAKONETA**

1 704 eta 1796 bitartean egindako etxe lez agertzen da 1796'ko erroltzean. Urte onetan Damian Muguruza zan jaube.

1 799 urtean Juan Bautista Muniozguren ezagutzen zan jaube lez.

1826 urtean Juan Bautista au bizi zan bertan bere familiagaz.

1 991.– Utsik dago.

Jaubetasuna Jose Barrutia'ren alargunaren izenean dago.

4 hektarea.

**TXILLARRETA.**

1991.– Antonio Zenarruzabeitia eta Margarita Martiartu senar emazteak bizi dira.

Errenteruak dira.

Jaubetasuna Maria Tere Murga'ren izenean dago.

14 hektarea.

**URRIJATE**

1489 urtean etxe onen barri irakurten da.

1704 urtean Bartolome lbarra zan bertako jaube.

1745 urtean Santo Domingo'ko bizkondea. Martin Urkiaga bizi zan bertan.

1796 urtean, Santo Domingo'ko bizkondea ezagutzen da jaube lez.

1826 urtean Jose Maria Salegi bizi zan bertan.

1991.– Valle-Lersunditarrak darabille eta batez be udaldietan etorten dira.

1830-39 bitarteko karlisten gerratean, Atxilotuen Batuleku bat egon zan Markiña'n eta Urrijate'n eurentzako gaixotegia.

**USOZABAL**

1960 inguruan jausi zan

Jaubea: Juan Malaxetxebarria.
12 hektarea.

**ZAMORA**

1704 urtean Juan Zamora zan bertako jaube.
1745 urtean Kristobal Larreateagi eta berbera bizi zan.
1790 urtean Jose Barroetabeña.
1991.– Utsik dago. Jaubetasuna lñazio eta Dionisio Barroetabeña Eizagirre'ren izenean dago.

AMALLOA auzoan egon eta gaur galduta dagozan etxe batzuen xerrenda.

**EGILUZE.**

60 urte inguru dira galdu zala.
Jaubetasun agiriak Ñikolas Larreategi'k daukaz.
4 hektarea.

**PLAZAKORTA BEKO.**

1958 inguruan galdu zan.
Jaubea: Felipe Gaitan de Ayala.

**PLAZAKORTA GOIKO.**

1970 inguruan desagertu zan.
Jaubea: Felipe Gaitan de *Ayala.*

## OREGUNTZA (ORUNTZE)

1958 inguruan galdu zan.
Jaubea: Maria Andresa Guenetxea Olea.
1 5 hektarea.

## ULEZETA

1950 urte inguruan galdu zan baserri lez.
Jaubea: "Maderas Aulestia° Zabalbeaskoa da.



ABADETXEA



AGARREAMALLOA



AGARREAMALLOA
ZARRA



AGORRIA



AMALLOBIETA TXIKI



AMALLOBIETA



AMULATEGI



ARANZABAL



ARANZABAL



BENGOETXEA



DAMUKORTA



EGURROLA TORRE



GARRAMIOLA BEKOA



KORTATXUPE



KORTAZAR



EGURROLA TORRE



EGURROLA ERROTA



ELKOR



GABIOLA



ELEXALDE ETXEA



GOIKOETXE GOiKOA



GURBIOLA



KOSTOLA



GOIKOETXE BEKOA



GURBIO LA



LABETXE



LAPARRA



LARRUSKAIN GOIKO



LARRUSKAIN ERDIKO



MENDIKUTE



LARRUSKAIN ERROTA



MANUKORTA



OLABARRI ERROTA



OLABARRIA



**OLABARRI ERROTA**



OLAZAR GOIKO



OLAZAR BEKO



OLUA BEKO



**OLUA GOIKO**



PLAZAKORTA BEKO



RETOLAZA



SAKONETA



TORRETXU



TXILLARRETA



USOZABAL





ZAMORA



ZAMORA BARRI

# ARRETXIÑAGA SAKABANATUAK

## ARRETXIÑAGA GOIKO

1796'ko erroltzan, Arretxiñaga goiko izenaz ezagutzen zan.

1799 urtean Migel Eizagirre errenteruak autortu eban 340 errialeko errenta eukala urtean.

1991 Etxe au AKELIÑO izenagaz be ezagutua da.

Jaubetasuna Piedad Aranguena Mirandona'ren izenean dago.

Eta beragaz bere seme Enrike Alberdi eta Maria Luz Zelaia senar emazteak bizi dira eta onein seme alaba Elisabet, Miren, Alazne eta Joseba.

Hektarea bi daukaz.

## ATAIN

Paper zarretan ez da ezagutzen izen au baserrien artean.

1991 Gaitan de Ayala da jaubea.

Bertan bizi diranak, Florentina Maguregi (ama) eta Julian Mugartegi Maguregi (semea) errenteruak dira.

Hektarea bat.

## BARROETA

Sarri irakurten da etxe au eta Ugartetarren artean asarre ugari egon zirala XV garren gizaldian.

1796 urtean Barroeta etxekoen izenean egoan.

1799 urtean Joakin Ugartetxea errenteruak autortu eban 558 errialeko errenta ordaintzen ebala.

Urte orretan Barroeta etxetxikiko errenterua Juan Irueta zan eta 372 erria) ordaitzen zitun errentatzat.

1826 urtean Joakin Ugartetxea bizi zan bertan.

1991 urtean jaubetasuna Jose Luis Gaitan de Ayala'rena da.

Bertan bizi diran errenteruak, Florenzia Txurruka eta Mari Karmen Ugartetxea dira, eta euron seme alaba Maite, lgor eta lzazkun.

**BAUSKAIN**

1704 urtean Barruskain irakurten da eta 1745'n Baruskain.

1796 urtean Barroeta etxearena lez agertzen da.

1799 Migel Barruetabeña errenterua bizi zan bertan. eta 1.200 errialen errenta ordaintzen ebala autortu eban.

1991 Juan Olabarria eta Isabel Ugartetxea senar emazteak eta euren seme Karmelo bizi dira bertan, arduradun lez.

Jaubetasuna Fernando Gaitan de Ayalarena da.

**EÑEKUA (BARROETA-BEÑA)**

1796 urteko erroltzean Barroeta beña izenez ezagutzen zan.

1799 urtean Juan Eguren bizi zan bertan eta 668 errialeko errenta ordaintzen ebala autortu eban.

1826'en Franzisko Zuloaga eta zazpi laguneko bere familia bizi ziran bertan.

1991 Etxe bizitza bi daukaz.

Baten Enrike Barruetabeña (jaubea) eta bere emazte Daria Aulestiarte eta Gemma alaba bizi dira.

Hektarea bat.

Bestean Kontxa Argoitia eta Goreti Astigarraga ama alabak bizi dia.

Eskriturak amaren izenean dagoz.

Hektarea bat.

**ELORREGI**

Izen onegaz ez da agertzen lengo denboretan.

1991 Fernando Gaitan de Ayala da jaube. Udaldietan batzen dira bertan.

GOITI. (BARROETA GOITI)

1796 urtean Barroeta etxeko lez agertzen da.

1799 urtean Juan Ugartexea bizi zan bertan erreteru lez. 668 erria) ordaintzen ebazala autortu eban.

1826 urtean Jose Ugartetxearen familia bizi zan. Danetara 6 lagun.

1991 Jaubetasuna Juan Gaitan de Ayala'ren izenean dago. Bertan, errenteru lez, Julian Aldekoa eta Maria Paz Azpitarte bizi dira.

Senar emazteak dira.

**ORTULAU**

1796 urtean Barroeta etxeko lez ezagutzen zan.

1826 urtean J. Urkidi bizi zan bertan beste zazpi senidekaz.

1991 Jaubea Jose Luis Gaitan de Ayala da. Eta Jose Pujana eta Purificación Egaña senar emazteak bizi dira, errenteru lez.

OXILOGIÑ (OXILAIÑ)

1796 urtean Oxilegin Errota lez ezagutzen zan eta Barroeta etxekoa zan.

1799 urtean Kristobal Barinaga, errotako errenteruak esan eban 930 errialeko errenta eukala urtean.

1991 Oxilain Errota deiturakoa jausita dago.

Oxilogin etxean Paz Guenaga Aranzeta (ama) eta Amaia eta Jose Andres Zelaia Guenaga neba arrebak bizi dira eta Juanita Garramiola alarguna.

Jaubetasun agiriak Amaia'ren izenean dagoz.

PADARRA. (ARRETXIÑAGA BEKO)

1991 urtean Juan Gaitan de Ayala da bertako jaube. Bertan bizi diranak errenteruak dira: Juan Ugartetxea eta Josefa garate senar emazteak eta euron seme alaba Iñazio, Maria Jesus, eta Elena.

Hektarea bi ta erdi.

ORMAETXEÑA ( BARROETA ARAÑA)

Barroeta etxearena lez ezagutzen zan 1796 ko erroltzean.

Gaur utsik dago. Diru etxe batek erosi eutsan bere jaube zan Joakin Gaitan de Ayala'ri.



**ATAIN**



**BARROETA TORREA**



BAUSKAIN



**BEINEKUA**



ELORREI



ELORREI



GOITXI



ELORREI



ORTULAU



D — -J -J CC



OXILLAIN ERROTA



PADARRA

# ATXONDOA AUZOA

**ARIZMENDI TORRE.**

1467 urterako billatzen dira etxe onen aztarnak.

1745 urtean, Peñaflorida kondearena zan.

1796 urtean, bardin.

1799 urtean Franzisko ldiondo'ko 660 errenta ordaintzen eban beragaitik.

1826 urtean, Franzisko Iriondo, alarguna bizi zan bertan. tele bi, urtzaille bat eta nekazari bi bizi ziran.

1991.– Pedro iriondo Azpiri da jaubea, eta bere emazte Antonia ldoetagaz bizi da, eta euren alaba dan Maria José.

16 hektarea.

**ARIZMENDI ERROTA**

1796 urtean Peñafloridako kondearena zan.

1798 urtean Migel Arrate zan errenterua eta 1.980 errial ordaintzen ebala bertako errenta, agertu eban.

1826.– Bost lagun bizi ziran bertan, Matias Orbea errotari zala. Bertan Arizmendi tobera arduraduna, baita Martin La Peira frantzetarra be, burdiñolako langillea.

1991.– Migel Zelaia eta Franziska neba-arrebak bizi dira eta onen alaba Begoña Larrinaga Zelaia.

Jaubetasuna Francisca'ren izenean dago.

**AXPE.**

1745 urtean ba egoan etxe onen barri.

1796 urtean Jose Garate zan jaube eta berbera bizi zan bertan.

1799 urtean jaube onek agertu eban urtean 650 errialetan baliatu eikeala bertako errenta.

1826 Franzizko Arejita bizi zan bertan, beste 8 senidekaz.

1991.– Zipriano Bilbao da jaube eta bertan bizi da bere emazte Mari Bitori Ibarluzea eta euron seme Juan Jose eta Jose Antoniogaz.

16 hektarea daukaz.

**BEGA**

1745 urtean ba dago bere barri.

1796 urtean Benino Ansotegi zan jaube eta errenterua eukan.

1799 urtean, Bizente Goikoetxea errenteruak agertu eban 380 errial ordaintzen ebazala errenta orde.

1826 urtean Julian Arizmendia, burdiñoletako ielea bizi zan bertan.

1991.— Barriztuten diardue.

**EZKURRANDI**

1704 urtean Guzman Ezkurrandi bizi zan bertan. Jaubea zan.

1796 urtean Franzisko (baita zan jaube.

1799 urteko autorpenetan agertzen da, 660 errialen irabazi ordeko errenta ordaintzen ebala.

1991.— Etxe bizitza bitan banatzen da.

Bien jaubea Jose Martin Arriola da.

Baten berbera bizi da bere emazte Eulalia Maguregi'gaz.

Bestean Franzisko Rodriguez eta M.[1] Estefana Anitua, senar emazteak bizi dira errenteru lez.

**ETXETXU.**

1799 urtean Franzisko Errekalde zan jaube.

1826 urtean, Dominga Eizagirre alarguna bizi zan bertan.

1991.— Utsik dago.

Jaubea Jose Antonio Ormaetxebarria da.

**IBARRA**

1796 erroltzean agertzen danez Anton Uberoaga zan jaube eta beragaz batera errenteru bat bizi zan.

1991.— Migel Solozabal da jaubea eta bere emazte Josefa Gisasola'gaz bizi da eta euron seme Jose Migel, Fernando eta Jabier.

18 hektarea.

**IBASETA.**

lzen onegaz, lBASETA Beaskoa, lBASETA Ñagusia, lBASETA ganekoa, lBASETA Erdikua eta lBASETA Barri agertzen dira paperetan. Bai eta lBASETA Ormaetxea be.

**IBASETA** Beaskoa, Bekoa, Bizketxe.

Etxe onen orman agertzen da 1588 urtean egin zala.

1826 urtean Franzisko Antonio Olasolo bizi zan bertan eta 10 lagun batzen ziran etxean.

1991.– Utsik dago.

Emilio Oruebarrenetxea da jaube.

10 hektarea.

**IBASETA** ganekoa.

Rosa Zabala eta Jose Antonio, neba arrebak bizi dira bertan.

**IBASETA** Erdikoa.

Etxe bizitza bi daukaz.

Baten Silbestre Onaindia eta Begoña Arizmendi bere emaztea bizi dira eta Alan eta Jone seme alabak bizi dira eurekaz.

Jaubea Silvestre da.

Bestean Juan Onaindia eta bere emazte M. ª Lejardi bizi dira, eta euron alaba Pilar, Migel Olabarriagaz ezkondua eta euron seme Jabier, German eta Mikel.

Jaubetasuna Juan Onaindiaren izenean dago.

**IBASETA** barri.

1968 urtean egiña da.

Emilio Urionabarrenetxea da bertako jaube. Bertan bizi da bere seme Juan Luis, eta Begoña'gaz eta onen senar Bitor Onagoitia'gaz.

**IBASETA** Ormaetxe.

Zezili lrueta Onaindia'ren izenean dago jaubetsuna.

Bertan bizi da bere alaba Maria Garate lrueta'gaz eta onen senar Kosme Uriguenpagategaz, eta euron seme alaba Maite, Ñerea era Rikardo.

9 hektarea daukaz.

**ITUARTE.**

lzen onegaz lTUARTE bekoa eta lTUARTE goikoa ezagutzen dira.

**ITUARTE** bekoa.

1796 urteko zerrendan agertzen da. Jose Donostebe zan jaube eta errenterua bizi zan bertan.

1799 urtean, Antonio Ituarte zan jaube.

1991.– Sabino Odiaga (aita) eta bere seme Juan M. ?, Maria Ugarteburugaz ezkondua eta euron seme Eduardo eta Alberto bizi dira.

Errenteruak dira.

Etxearen jaube Migel Solozabal Kareaga da.

10 hektarea.

**ITUARTE** goikoa.

1796 urtean Domingo Arrate zan jaube. Bera eta errenteru bat bizi ziran bertan.

1799 urtean, jaube lez autortu eban 400 errialeko errenta artzen ebala.

1991.– Josefa Gerenabarrena (ama) bizi da bertan, bere seme Jesus Guenetxea Gerenabarrena, Mari Karmen Arrate'gaz ezkondua eta euron alaba Arantza eta Belen.

5 hektarea eta erdi.

**ITUBE**

1 704 urtean Andres ltube bizi zan bertan.

1 799 urtean Domingo ltuarte zan jaube.

1 826 urtean Pedro Jose ltuarte zan jaube, nekazaria. eta 6 lagun bizi ziran betan.

1991.– Etxe bizitza bi daukaz.

Baten Julian Sarria (jaubea) eta bere emazte Joana Gojenola bizi dira euren alaba Mari Tere eta onen senar Jabier Oleagaz batean.

3 hektarea.

Beste bizitza utsik dago.

Jaubea Maria Larrinaga.

Hektarea bat dauka.

**INTXAUSPE.**

1796 urtean Bizente Belarroa zan jaube eta errenterua eukan.

1991.– Pedro Rekalde eta Bitori Arriola senar emazteak bizi dira.

Jaubeak dira.

13 hektarea.

**LEZAN** (LEZARAÑ)

1796 urtean Domingo Espilla zan jaube eta errenterua eukan

1799 urtean agertu eban urtean 650 errialeko irabazia artzen ebala.

1826 urtean, Tomasa Espilla alarguna bizi zan bertan, beste 7 lagunekaz.

1991.– Jose Mari Urriolaauzokoa eta Alejandra Etxabe senar emazteak bizi dira. Jaubeak dira. Eta eurekaz batean Tere eta Jose Luis semeak.

11 hektarea daukaz.

**LOPETXEA.**

Izen onegaz ez da aurkitzen lengo aztarrenik.

1991.– Utsik dago.

Jose M.ª San Martin eta Arantzazu Azurmendi, lengusu-lengusiñen izenean dago jaubetasuna.

3 hektarea.

**MENDIBE.**

1704 urtean, Franzisko Mendibe zan bertako jaube eta bertan bizi zan.

1796.– Antonio Urkidi zan jaube.

1799 urtean, Manuel Mendibe.

1826 urtean Antonio Urkidi bizi zan bertan, nekazaria.

1991.– Utsik dago.

Jose Agustin Olaizola Ansorregi'ren izenean dagoz eskriturak.

7.400 $m.^2$ daukaz.

**OLABE**

1796'ko erroltzean, Antonio Felix lriberri zan jaube.

1799 urtean, Asentsio Olabe Goikoetxea.

1826 urtean, Pedro Agirre, lurgiña, bizi zan bertan.

1791.– Jose M.ª Agirreamal lloa eta Paula Baskaran Oregi, senar emaztea bizi dira bertan.

Jaubetasuna: Agirreamalloa-Baskarandarrena da.

12 hektarea.

## ERREKALDE. (R EKALDE)

ERREKALDE izenean etxe bi dagoz. Bata ERREKALDE ÑAGUSlA, edo BEKOA, bestea ERREKALDE TXlKlA, edo GAÑEKOA.

1 796 urtean Joakin Barroetabeña zan jaube Errekalde Goikoan eta Migel Rekalde Errekalde bekoan.

1799 urtean Josefa Retolaza, Goikoan eta Migel Rekalde bekoan.

1991.– ERREKALDE ÑAGUSlAÑ, Pedro Urkiza Rekalde eta Karmen eta Domingo neba arrebak bizi dira, eta Elias Baskaran Urkiza, Karmen'en semea.

Jaubetasuna Pedro'ren izenean dago.

1 6 hektarea.

1 991.– ERREKALDE TXlKl edo GAÑEKOA; Jaubetasun eskriturak Benanzia Solozabal Arriaga'ren izenean dagoz. Bertan bizi da eta beragaz batean bere alaba bi, Maria Dolores eta Maria Kristina, azken au Luis Mari lbarluzeagaz ezkondua eta euron seme Koldo.

21 hektarea.

Kontakizunen artan, au gogoratzen dabe.

Errekalde txikian, lengo gizaldian, an bizi zan Antonio bat, baserritarra izanarren, ia abade lakoa zala. Gizon-on entzutekoa. Berak errezaten ei eban domeketako errosarioa Kosme eta Damian santuen ermitan.

Arretxiñaga'ko jai batzuetan, abaderik ez egoala-ta, bazkaritatik atara ei eben errosarioa errezatzera. Eta berak ain gogoz artu zeregin ori, santuen otoitzetan luzatu ta luzatu, idi proben ordua zala konturatu barik. Alako baten kanpotik asi ei yakozan deadarka: l, amaitxuk ori, santuek ezagutzen gaituez bai, eta probak geure zain yagozak-eta.

Bestela, bein errezaten asi ezkero, "galdu" egiten ei zan orduen neurri barik.

## TORREZAR.

1 796 urtean Jose Belarroa zan jaube eta errenterua eukan.

1 799 urtean Jose Zelaia bertako errenteruak egin eban agerpen baten esan eban 242 errilakeo errenta ordaintzen ebala urtero.

1 826 Jose Errekalde, nekazaria, bizi zan bertan.

1991.– Jose lbarluzea Egurrola eta Maria, neba arrebak bizi dira eta etxearen jaubetasuna euren izenean dago.

9 hektarea.

**URLOA.**

1796 urtean Domingo Arrate zan jaubea eta errenteru bat eukan.

1799 urtean Mari Espilla zan errenterua eta esan eban 650 errial ordaintzen ebazala urteko.

1826 urtean Andres Goikoetxea, nekazaria, bizi zan bertan beste sei laguneko familiagaz.

1991.– Etxe bizitza bi daukaz.

Jesus Mari Unamuno eta M. Mendibe Baskaran, senar emazteak bizi dira. Etxe jaubetasuna eurena da. Euren seme Jon bizi da eurekin, bai eta Marí'ren ama dan Maria Baskaran Oregi be.

Beste etxe bizitzaren jaubetasuna Jazinta'ren izenean dago.



ARIZMENDI ERROTA



ARIZMENDI TORRE



AXPE



BEGA



ESKURRANDI



ETXETXU



IBASETA GANEKO



IBASETA ORMAETXE



IBASETA BEAZKOA



IBASETA ERDIKO



**IbARRA**



**INTXAUSPE**



ITUARTE BEKO



ITUARTE GOIKO



ITUBE



**LEZAN**



LOPETXE



MENDIBE



OLABE



ERREKALDE NAGUSI (JATORRA)



ERAEKALDENAGUSI



ERREKALDE TXIKI



TORREZAR



**URLO**

# ERDOTZA SAKABANATUAK

MARKlÑA-XEMEIÑ'GO UDAL PAPERETAÑ IÑGURU AU ETXE OÑElK OSOTUA DATOR.

42.– Landaburu baserria.
44.– Oso Etxebarri baserria.
46.– Osolo Ñagusi baserria.
48.– Osolo errota baserria.
50.– Seat Garajea.
52.– Erdotza ermita.
54.– Santutxua.
56.– Gandiaga eta Argoitia Lantegia.
41.– Ibarreta baserria.
43.– Garai baserria.
43 B.– Ur-gordelekua.
45 A.– lparragirre baserria.
47.– Makutegi baserria.
49.– Makutegi baserria.
51.– Otalla baserria.

GARAl.

Erroltze zarretan ez da agertzen etxe au.

1991 Juan Kortabitarte eta Seberiana Pagegi bizi dira bertan, bai ta euron alaba Elena eta Gloria, au Jose Luis Iparragirregaz exkondua eta euron seme Xabier.

lBARRETA.

Erroltze zarretan ez da agertzen etxe au.

1991 Etxe bizitza bi daukaz

Baten, errenteru lez, Leon Barrenetxea eta Delia Jimenez bizi dira eta euron seme lñaki. Aitor eta Alex.

Bestea utsik dago.

Jaubea Juan Alkorta da.

6 hektarea.

IPARRAGIRRE.

1991 Etxe bizitza bikoa da.

Baten Jose Antonio Maguregi Alberdi eta Begoña Larruskain

Arano senar emazteak bizi dira eta euren alaba Alicia eta M.' Beatriz.

